



SAREAN HARRAPATUTA



Save the Children

Kolaboratzailea:



Asociación Europea
para la Transición Digital

***Haurren eta nerabeen sexu-esplotazioa
ingurune digitaletan***

Argitalpen hau Trantsizio Digitalerako Europako Elkartearekin lankidetzan egin da. MEDUSA Giza Eskubideak taldeak aurretik egindako ikerketan oinarritu da azterketa hau, bai eta Bartzelonako Unibertsitateko Haur eta Nerabeen Biktimizazioari buruzko Ikerketa Taldeak (GReVIA) egindako inkestaren bidez lortu diren datuen analisian ere.



Save the Children

Egilea: **Clara Burriel**. Proiektuaren koordinazioa: **Carmela del Moral**. Eragin Saileko Zuzendaritza eta Lurralde Garapena: **Catalina Perazzo**. Koordinazio grafikoa: **Óscar Naranjo**. Edizioa: **Clara Burriel eta Miguel Borque**. Artea eta maketazioa: **Alba Lajarín**. Azaleko argazkia: **Alba Lajarín**.



Argitaratzailea:

Save the Children Euskadi
Uztaila 2025

5	Sarrera
6	1. Haur eta nerabeen aurkako sexu-indarkeriak ingurune digitalean
8	2. Haurren eta nerabeen sexu-esplotazioa ingurune digitaletan
10	3. Haurren eta nerabeen sexu-esplotazio digitaleko modalitateak
23	4. Sexu-esplotazio digitalerako haurrak eta nerabeak erakartzeko dinamikak
32	5. Groomerren eta esplotatzaileen profila
38	6. Arrisku-faktoreak

48	7. Sexu-esplotazio digitalaren ondorioak biktima izan diren haurrengan eta nerabeengan
53	8. Ikerketa, detekzioa eta lanketa: teknologien zeregin bikoitza
63	9. Gomendioak
75	10. Ondorioak
76	Eranskina. Sexu-esplotazio digitalari aurre egiteko lege-esparrua
79	Metodologiari buruzko oharra
82	Bibliografia

Sarrera

Txosten hau argitaratu baino hilabete batzuk lehentxeago, hainbat urtean 12 urteko neskato bat sexualki esplotatu zuen gizon baten berri eman zuten gure herrialdeko zenbait komunikabidek. 45 urte zituen gizonak, eta bideodeien eta sare sozialetako elkarrizketen bidez jarri zen harremanetan neskatoarekin. Harengan konfiantza izan zezan lortu zuenean, sexualki eraso egin zion neskatoari, eta eraso horien argazkiak egin eta bideoan grabatu zituen. Ondoren, pedofiloekin trukatzeko material hori Internet bidez, eta harremanetarako aplikazioen eta Instagram bidez neska eskaintzera ere iritsi zen, beste heldu batzuek bortxatu zezaten eta eraso horien irudiak sortzen jarraitzeko asmoz. Atxilotu zutenean, "haur-pornografiako" 10.000 fitxategitik gora aurkitu zituzten, horietako ehunka asko gizon horrek eginak.

Kasu horrek agerian jarri zuen kezka handia sortzen duen fenomeno honen gordintasuna: ingurune digitalak zer-nolako eragina duen haur eta nerabeen sexu-esplotazioarekin lotutako dinamiketan. Argi ikusi dugu Internetek, sare sozialek eta teknologiek biktimak erakartzeko bideak errazten dituztela, baina, horrez gain, indarkeria modu horiek gauzatzeko eta betikotzeko bitartekoak ere izan daitezke. Esplotazio-dinamiken parte diren indarkeria moten arteko erlazioak ere agerian jarri ditu kasuak: haur eta nerabeen zaurgarritasunez baliatuta eta teknologien bidez (*grooming*) gauzatutako kontaktua eta manipulazioa; sexu-eraso fisikoak; haur horren aurkako sexu-abusuaren bidez, abusuekin lotutako irudiak sortzea; ondoren, material horiek trukatzea, eta neskatoa esplotatzea, hirugarrenek hari eraso egiteko, berriro ere bide digitalak erabiliz erasotzaileekin harremanetan jartzeko. Elkarrekin nahastuta gertatzen dira dinamika horiek (kontaktua, eraso, hedapena, trukea), eta zaila da bakoitzaren mugak zehaztea. Horrek berak zaildu egiten du, gainera, ingurune digitaletan haurren eta nerabeen sexu-esplotazioaren errealitatea zertan den argi eta garbi ulertzea.

Egia esan, zer dakigu benetan ingurune digitaletan haur eta nerabeek pairatzen duten sexu-esplotazioaz, unean uneko berriez aparte? Zenbateraino jabetzen gara indarkeria modu horien prebalentziaz, beren baitan sartzen diren jokabideez edo haur eta nerabeengan horiek denek duten eraginaz? Eta, bereziki, zenbateraino iritsi gara gizarte gisa haurrek pairatzen dituzten indarkeria mota horien adierazpideak edo indarkeria horietara iristeko arriskuak normalizatzen?

Txosten honen bidez, apur bat argiago ikusarazi nahi da oso konplexua den eta oraindik ere argi eta garbi zehazten zaila den fenomeno hau; izan ere, zaila eta konplexua da, alde batetik, ez dagoelako definizio bakar bat eta ez daudelako, ezta ere, arazo honen benetako prebaletziari buruzko datuak; eta, bestetik, arazo honen larritasuna ezkutatzen laguntzen duten zenbait jokabide normalizatuta dauzkagulako. Kontu hauek argitzen laguntzeko helburu horrekin, arlo honetako profesional eta aditu zenbaiti galdetu zaie, hainbat esparru hartuz barnean: juridikoa, zibersegurtasuna eta delitu informatikoak, psikologia, kriminologia, akademia eta ikerketa, edota haurren babes eta eskubideen esparrua. Gainera, jakin nahi dugu, baita ere, ingurune digitaletan sexu-esplotazioarekin lotutako zer arrisku identifikatzen, onartzen eta naturalizatzen dituzten nerabeek. Horretarako, inkesta bat egin zaie 18 urtetik 21era bitarteko 1.008 gazteri, eta nerabezaroan beren *online*ko jarreraz eta dituzten pertzepzioez galdetu zaie, batez ere lineako sexu-

esplotazioarekin lotutako ezagutzei, sinesmenei eta esperientziei erreparatuz.¹ Aurrez aurreko bi lantegi ere antolatu ziren 15 urtetik 18ra bitarteko nerabeentzat, Internet erabiltzen dutenean identifikatu ohi dituzten kezka eta arriskueta sakontzeko, bai eta arrisku horiekiko esposizioaren aurrean duten ardura nola hautematen duten eta banatzen duten aztertzeko ere.

Azterketa horretatik abiatuta, indarkeria mota horien aurrean haur eta nerabeak babesteko bideak indartzeko gomendioak landu nahi dira, kontuan hartuta gaur egun bidean diren prozesu legegileak ere, horrela, ingurune digitalean dabiltzanean beren eskubideak segurtasun osoz baliu ditzaten. Eta ikuspegia haurrengan jarrita egin da hori, argi baitauekagu teknologiak eta mundu digitalak haurrak eta nerabeak garatzen diren esferaren parte direla, eta arlo teknologiko hori haien gizarteratzearekin oso lotuta dagoela berez, bai eta norberak bere sexualitatea aurkitu eta esploratzearekin ere; horrek arrisku espezifikoa dakartza berarekin. Arrisku horiek, ordea, ez dira halako eremu huts batean sortzen; aitzitik, ekosistema digitalak haztegi moduko bat eskaintzen du, dinamika horiek errazteko eta baldintzatzeko.

1. Haur eta nerabeen aurkako sexu-indarkeriak ingurune digitalean

Aro digitalak areagotu egin ditu haur eta nerabeentzat lehendik zeuden arriskuak, eta, aldi berean, beste indarkeria mota batzuk eta lehendik zeuden indarkeria moduei erantsi zaizkien beste ezaugarri berri batzuk sortu ditu. Horien artean, leku nabarmena betetzen dute sexu-indarkeriek, bai beren larritasunagatik eta bai ingurune horretan hartzen dituzten dinamikengatik.


Haur eta nerabeei eragiten dieten sexu-indarkeria digitalen barnean, haur eta nerabeen askatasuna, osotasuna eta sexu-garapena urratzen dituzten askotariko egoerak sartzen dira; hauek, besteak beste: sexu-abusu digitala, *grooming*a edo ziberengainua, sexuarekin lotutako helburu batzuk lortzeko helduek egindakoa; baimenik gabeko *sexting*a edo eduki intimoak baimenik gabe zabaltzea; eta *online*ko sexu-abusu eta -esplotazio moduak, barnean hartuta haurren aurkako sexu-abusuekin lotutako materiala kontsumitzea, ekoiztea eta hedatzea. Indarkeria mota horren barnean azaleratzen ari diren joeren artean, sextortsio-kasuen gorakada ere nabarmendu da, eta, horren bidez, haur eta nerabeak hertsatzen edo mehatxatzen dituzte, edota xantaia egiten diete, material intimoa edo sexuala bidaltzeko; eta gero eta gehiago erabiltzen dira adimen artifizial sortzaileak eskaintzen dituen tresnak digitalki horrelako edukiak sortzeko. Nahiko ohikoa izaten da biktimizazio modu horiek elkarrekin lotuta agertzea, eta, askotan, ez dira oso argi izaten horien arteko aldeak edota mugak; horixe ikusiko dugu, hain zuzen, azterlan honetan zehar.

1 Informazio gehiago nahi bada, ikusi Metodologiari buruzko oharra.

Barne Ministerioak emandako azken datuen arabera, 2023an Espainian 4.896 salaketa erregistratu ziren haur eta nerabeen aurkako delitu zibernetikoekin lotuta, eta horietatik 1.068 salaketa sexu-delituekin zeuden lotuta. Datu ofizialak, dena den, ez dira izozmendiarentontorrabaino: haur eta nerabeen aurkako indarkeria-kasugehienak ez dira ezagutzera ematen, alde batetik, ez direlako salatzen eta, bestetik, zaila delako halakoak hautematea; zailtasun horiek, gainera, are handiagoak izan ohi dira *online* inguruneetan gertatzen direnean, hainbat arrazoigatik, besteak beste edukien anonimotasunak, batekotasunak eta aldakortasunak, edota horien larritasunaren pertzepzio ahulagoak lagunduta.

Errealitatearen eta datu ofizialen arteko arrakala hori agerian geratzen da txosten hau dela-eta egin ditugun inkestetan; 18 urtetik 21era bitarteko neska-mutilei zuzendu zaie inkesta, eta beren haurtzaroan eta nerabezaroan bizitako esperientziez galdetu zaie: galdetu zaien ia neska-mutil guztiek onartu zuten sexu-biktimizazio motaren bat jasan zutela ingurune digitaletan adingabeak zirenean.

1. irudia. **18 urte bitartekoen sexu-biktimizazioak ingurune digitaletan.**²



Datu hauek agerian jartzen dute zer-nolako arriskuei egin behar izaten dieten aurre haur eta nerabeek ingurune digitaletan sexu-indarkeria mota horietakoren batekin topo egiten dutenean.

² Inkestan, haurtzaroan eta nerabezaroan jasandako sexu-biktimizazio digitalekin lotutako hainbat modu hartu ziren barnean, hala nola nahi gabe eduki sexualetan sartzea, *grooming*a, sextortsioa, adostasunik gabeko *sexting*a, adimen artifizialarekin irudiak sortu eta zabaltzea, sexu-esplotazioa. Datu hauetan ez dira sartzen adingabeen artean ados jarrita eta *sexting*aren lotuta izan jakabideak.

2. Haurren eta nerabeen sexu-esplotazioa ingurune digitaletan

Haurren eta nerabeen lineako sexu-esplotazioa da sexu-indarkeria digitalaren esparruko indarkeria modu larrienetako bat. Hala ere, esplotazio modu horren definizioa nahiko lausoa da oraindik, bai maila juridikoan eta bai akademikoan, eta, askotan, zaila izaten da beste indarkeria modu batzuetatik bereiztea, sexu-abusuetatik batez ere.

Kontzeptuen definizioen mugak

Gaur egun, ez dago definizio argi, bateratu edo finkaturik haur eta nerabeen sexu-esplotazio digitalaz ari garenean zer ulertzen dugun argi eta garbi zehazteko, ez arauen mailan eta ez maila akademikoan. Testuinguru askotan, baita legegintzan eta arlo akademikoan ere, “haurren aurkako sexu-abusu” eta “haurren sexu-esplotazio” terminoak trukagarriak balira bezala erabiltzen dira, eta, horren ondorioz, bi kontzeptu horien arteko aldeak lausotu egiten dira.

Terminologiaren esparruko nahasmendu horren ondorioz, ez da definitzen zehazki zer jokabide sartzen diren indarkeria modu bakoitzean, eta adierazpide ugari eta askotarikoak sartzen dira haurren aurkako sexu-abusuari edo sexu-esplotazioari buruzko erreferentzien barnean, hala nola *groominga*, sextortsioa, sexu-abusuen zuzeneko transmisioa edota haurren aurkako sexu-abusuen inguruko materialen (CSAM) kontsumoa edo trukea; hala, ez da bereizketarik egiten esplotazioa liratekeen kasuen, abusua liratekeen edota abusu edo esplotazioen kategoria penaletan sartu gabe halakoak erraztu ditzaketen artean.

Gainera, zehaztasun falta hori ez da gauza neutro bat: halako distortsio bat eragiten du indarreko esparru juridikoaren eta eztabaida sozial eta akademikoan erabilitako terminoen artean, eta, horrez gain, datuak biltzea eta politika publiko zehatzen garapena eragotz dezake. Horren ondorioz, zaila da haurren sexu-esplotazio digitalak egiaz zer dimentsio hartzen dituen zehaztea, eta erakundeen erantzuna eta haurrak modu eraginkor batean babesteko gaitasuna ahultzen ditu horrek.

Haurren sexu-esplotazioaren eta haurren aurkako gainerako sexu-indarkeria moduen arteko bereizgarri nagusietako bat hauxe da: badago halako truke edo onura bat, eta, horren eraginez, salerosketarako objektu bihurtzen dira haurrak eta nerabeak. Irabazi ekonomikoa ekar dezake onura horrek, eta, hain zuzen ere, horixe izaten da zigor-araudi

askoren arreta-gunea; baina hartu ditzake beste forma batzuk ere, emozionalagoak, sinbolikoagoak, afektiboagoak, sozialagoak edo harremanekin lotuago daudenak; aski da horretarako zuzenean edo zeharka haurra instrumentalizatzea, bide horretatik erasotzaileak sari bat lortzeko. Ikuspegi horretatik, zuzeneko sexu-erasoa du ardatz sexu-abusuak (biktimaren osotasun sexualaren aurkako erasotzat hartuta, maila fisikoan zein digitalean), eta, aldiz, esplotazioak instrumentalizazio, onura edo irabazian datzan osagai hori ere barnean hartzen du, non biktima ez baita bere horretan helburu soila, onura bat lortzeko bitarteko ere bihurtzen denez; onura hori ekonomikoa izan daiteke, izen onarekin lotuta egon daiteke, sinbolikoa izan daiteke, edo sexuala.

Ildo horretatik, txosten honen esparruan, ingurune digitaletan gertatzen den haur eta nerabeen sexu-esplotazioa ingurune horretako sexu-indarkeria modu bat da, ezaugarri hauek dituen: truke, onura edo sari bat dago tartean, hirugarren batentzat edo haur edo nerabe horrentzat berarentzat. Gainera, indarkeria mota horren faseren batean, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzen dira, bai bidea errazteko eta bai horiek gertatzen diren testuinguru gisa. Askotariko jokabideak hartzen ditu barnean, hasi esparru digitalean biktima erakartzetik eta sortutako materiala zabaltzeraino, eta haren barnean sartzen dira, halaber, esplotazioa dokumentatu eta ingurune digitalean zabaltzen duten kasuak, alde batera utzita abusua eskusiboki linean edo *offline* gertatu den.

“Haur edo nerabearen gorputzaren aurkako ekintzatzat jotzen da abusua/erasoa (offline edo online), eta esplotazioa, berriz, negozioarekin eta abusuaren inguruko materiala sortzearekin nahiz material hori zabaltzearekin dago lotuta”

—justiziaren esparruko profesionala

Definizio hori bat dator nolabait Haur eta Nerabeen Sexu Esplotazioari buruzko Erakunde arteko Lantaldearen honako lan honetan ematen diren jarraibideekin: Haur eta nerabeak sexu-esplotazio eta -abusuen aurka babesteko orientabide terminologikoak (“Luxenburgoko gidalerroak” izenez ezagutzen dira);³ orientabide horien arabera, sexu-esplotazio digitalaren barnean dago esplotazio hori dokumentatzen duten irudi edo materiala sortzeko, edukitzeko edo zabaltzeko teknologiak erabiltzea ere.

“Irudiak ekoiztea, erabiltzea eta zabaltzea da esplotazioa. Groominga edo sextortsioa, edota streaminga ere, horrelako irudiak lortzeko jarduerak lirateke. Baina hori guzti hori onlineko esplotazioaren parte da” —sexu-esplotazioan aditua

3 Haur eta Nerabeen Sexu Esplotazioari buruzko Erakunde arteko Lantaldea. (2025). Haur eta nerabeak sexu-esplotazio eta -abusuen aurka babesteko orientabide metodologikoak (2. ed. berrik.). ECPAT International. (Lehen edizioa 2016an argitaratu zen).

3. Haurren eta nerabeen sexu-esplotazio digitaleko modalitateak

Honako atal honetan, haur eta nerabeen sexu-esplotazio digital modutzat jotzen diren zenbait modalitate lantzen dira, horretarako abiapuntutzat proposatutako definizioa eta zenbait adituren ekarpenak hartuta. Horien barnean sartzen dira haurren sexu-abusuen esparruko materialen banaketa eta kontsumoa, bai eta prostituzioarekin edo ikuskizun pornografikoekin lotutako testuingurueta haur eta nerabeen sexu-esplotazio materialena ere. Adingabeek beren burua erakustearekin lotutako zenbait jardura esplotazio modu gisa jo baditugu ere, aparteko azterlan batean azalduko dira horiek zehatz-mehatz.

Ondoren aztertzen diren esplotazio moduak ez dira bakartuta sortutako fenomenoak, eta garrantzitsua iruditu zaigu hori azpimarratzea: askotan, lotuta daude elkarrekin, prozesu beraren parte dira, edota aldi berean gertatzen dira. Horregatik, praktikan, ez da beti erraza jokabide batzuk eta besteak bereizten dituen lerro argi bat zehaztea.

3.1. Ikusizko materiala eta irudikapen digitalak

Ingurune digitaletako haur eta nerabeen sexu-esplotazio modu askotan, irudiek funtsezko tokiabetetzen dute. Sortzen den edukia behin eta berriro erabil daiteke, eta biktimizazioak luzaroan irautea eragin dezake horrek, jatorriko abusua gertatu eta hainbat urtera arte askotan.

- **Haurren aurkako sexu-abusuetako materialak**

Indarkeria modu honen adierazpide hedatuenetako bat da haur eta nerabeen sexu-abusua edo -esplotazioa irudikatzen duen materiala (*CSAM Child Sexual Abuse Material* izenez ere ezagutzen da) ekoiztea, edukitzea, banatzea edo kontsumitzea. Honela definitzen da material mota hori baliabide arau-emaile ugaritan: haur eta nerabeen aurkako sexu-erasoen ekintzak erakusten dituztenak dira, edota haien genitalen esplotazioan ardazten direnak, helburu sexualak lortzeko.

Ingurune fisikoetan gertatu diren abusuetatik abiatuta sortu daitezke irudiak edo bideoak, adingabeak hertsatuz edo manipulatu, edo zuzenean ingurune digitalean ere sortu daitezke, manipulazio, engainu, mehatxu edo estortsioaren bidez, eta biktima adingabea eduki sexuala duten irudiak ekoiztera behartuz. Bestalde, haurrek eurek ere ekoitz dezakete material hori, esplizituki inork horretara hertsatu gabe, nerabeen artean normalizatuta dauden *sexting* eta antzeko jokabideen bidez, esaterako, eta gero zabaltu daiteke material hori.

Esplotazio modu gisa hartzen den material horrekin lotuta, honako hau nabarmendu dute Luxenburgoko gidalerroek: askotan, “trukearen” ideia ikusten da haur eta nerabeen aurkako sexu-abusuetako materialen esparruan (...), material hori (argazkiak, bideoak,

etab.) sexu-abusuetako beste material batzuekin trukatzeko baita, edo onura ekonomiko bat lortzeko erabiltzen; beraz, haur eta nerabeen sexu-esplotazioaren baliokidea da.

CSAM

CSAM siglak tradizioz “haur-pornografia” izenez (bide okerretik) ezagutu izan denari egiten dio erreferentzia. Adierazpide hori ez erabiltzeko gomendioa egiten ari da Save the Children,⁴ beste erakunde eta aditu batzuekin batera, pornografiaren ideia hurrekin lotzen baitu eta, hala, ekintza horien larritasuna minimizatzen baitu. Gainera, hura normalizatzen edo legitimatzen laguntzen du, baimenarekin lotuta dagoen hizkera bat erabiliz: haur eta nerabeek ekintza horiek beren borondatez egiten dituztela ulertzeko arriskua dago horrela, kontuan hartu gabe egiaz sexu-delituen biktima direla. Beraz, “pornografia” terminoa batez ere adostutako ekintza batzuetan parte hartzen duten pertsona helduen arteko sexu-errepresentazioetarako erabiltzen da, eta, aldiz, adingabeak tartean sartzen direnean, ekintza horiek sexu-abusu dira. Horregatik, “haur-pornografiaz” hitz egiteak ikusezin bihurtzen du errealitate hori. Egia esan behar bada, araudi eta gidalerro ugari gaingaitu dute termino hori, bai nazioartean eta bai Europan.

Horrelako materiala hautematea agintarientzat oraindik desafio handia bada ere, zenbait zifra global ikusita, argi ikus daiteke arazo honek zer neurri hartzen dituen: 2024an, Haur Desagertu eta Esplotatuentzako Zentro Nazionaleko CyberTipline zerbitzuak (NCMEC - National Center for Missing and Exploited Children erakundea Estatu Batuetan sortu zen, eta haurren esplotazioa saihesteko, desagertutako haurrak aurkitzeko eta haurren sexu-abusuarekin lotutako materialen zirkulazioa murrizteko xedez mundu osoan egiten diren ahaleginak zuzentzen ditu)⁵ horrelako material motekin lotutako 19,8 milioi salaketa baino gehiago erregistratu zituen, eta 62,9 milioi fitxategi zegozkien osotara. Ia eduki guztiak kanal irekietan eta publiko orokorrarentzat eskuragarri zeuden guneetan aurkitu ziren, eta ez *dark web* deritzon ezkutatuta. Bestalde, haur-esplotazioko irudi eta bideoetan espezializatutako Interpoolen Nazioarteko Datu Baseak (ICSE)⁶ 4,9 milioi artxibo erregistratu zituen 2024ko uztailera bitartean; 42.000 biktima baino gehiago identifikatu ziren horietan, eta aitortutako 18.000 delitugile baino gehiago izan ziren. Gainera, material horren zati handi bat Europako herrialdeetan sortzen dela ere dokumentatu da: 2022an,

4 Save the Children (2019): Indarkeria birala: ingurune digitalean hurrek eta nerabeek sufritzen duten indarkeriaren azterketa.

5 National Center for Missing & Exploited Children (NCMEC). (s.f.). CyberTipline Data.

6 INTERPOL. Haurren Sexu Esplotazioari buruzko Nazioarteko Datu Basea.

zerbitzu elektronikoen hornitzaileek CyberTipline zerbitzuaren bidez aurkeztutako salaketan %68, zehazki, egoitza Europar Batasunean zuten mezularitza-zerbitzu, txat edo mezu elektronikoetatik zetozen. Horrez gain, Internet Watch Foundation (IWF) fundazioak jakinarazi zuen urte horretan identifikatutako CSAM guztiaren %66 Europako herrialde batean sortua zela.⁷

- **Haurren sexu-esplotazioko materiala**

CSEM materiala (*Child Sexual Exploitation Material*) ere esaten zaio, eta CSAMek baino espektro zabalagoa hartzen du, haurren errepresentazio sexualizatuak, besteak beste, eta jarrera iradokitzaileetan edo erabat edo zati batean biluzik ageri ohi diren irudiak ere sartzen dira; izan ere, berariaz sexu-harremanik ez erakutsi arren, haurrak ikuspegi sexualizatu batetik aurkezten dituzte. Beste izen batzuk ere eman izan zaizkio material mota horri, hala nola “muturrekoa ez den abusu-materiala”, “haur-erotika” edo “gune griseko” errepresentazioak; material horren larritasuna arindu egiten dute, neurri batean, termino horiek, eta ez dute jatorriz esplotazioan oinarritzen direla aitortzen; egia esan, ordea, errepresentazio sexualizatuak hutsaltzen eta haurrak gauzatzat hartzen laguntzen dute, esplotazio-dinamikek hauspotuta.

Eztabaidak sortu ohi dituzte material horiek, gerta baitaiteke zenbait jurisdikziotan ez iristea CSAMtzat hartzeko legezko atalaseetara; baina kezka handia pizten dute, haurren sexualizazioa eta esplotazioa normalizatu edo arinkiaz hartzea eragin baitezakete. Kitzikatzeko, bestea erakartzeko edo *grooming*erako material gisa ere erabil ditzakete erasotzaileek. Askotan, asmo sexualik gabe ohiko bizimoduan ateratako argazkiak izan daitezke, edota hondartzako argazkiak, edo kirol-jardueretakoak, eta manipulatu edo beste testuinguru batean kokatzen ditu helduak, sexu-esplotaziorako edo sexu-haborokin bat lortzeko.

Material mota hori desafio garrantzitsua da agintarientzat, CSEMen presentziak ez baitu bermatzen abusurik izan ez dela, eta haurren aurkako sexu-abusuetako material esplizituagoarekin batera ager daiteke. Europako Save the Childrenen arabera,⁸ haurrak modelo gisa ageri ziren orrialde ugaritatik hartutako irudi askok CSAM edukiak zituzten, eta identifikatutako biktima batzuek sexu-abusuak jasan zituzten aurrez. Gainera, legez kanpoko irudi multzo horietako askok beren baitan zuten CSEM gisa sailkatutako materiala ere. Orri horiek (askotan orri “artistiko” edo “profesional” gisa aurkezten dira) jarrera iradokitzaileak dituzten haurren argazkiak argitaratzen dituzte, edo euren adinerako oso egokia ez den arropekin, eta CSAM edukiak banatzeko eta kontsumitzeko estalgarri bihurtzen dira maiz.

7 Internet Watch Foundation (IWF). (2022). Geographical hosting of URLs. Annual report 2022.

8 Save the Children International. (2005). Position paper regarding online images of sexual abuse and other Internet-related sexual exploitation of children.

- **Digitalki sortutako materialak**

CSAM eta CSEM material horiek digitalki ere sortu daitezke. Tresna digitalen bidez sortutako errepresentazioekin daude osatuta material horiek, eta haurrak eta nerabeak testuinguru sexualetan edo sexualizatueta irudikatzen dituzte. Katetoria horren barrenean sartzen dira, besteak beste, ordenagailuz sortutako irudiak, irudi errealetatik abiatuta sortutako *deepfake*ak edo ultrafalsifikazioak, bai eta marrazki eta animazio hiperrealistak ere, eta modu masiboan eta oso-oso azkar heda daitezke horiek denak.

Eduki mota horien barruan, lehendik dauden sexu-abusuen materialak hartzen dira askotan, material berriak sortzeko, edo sare sozialetan argitaratutako irudiak ere eralda daitezke adimen artifizialaren bidez. Horrelako materialak sortzeak ez du esan nahi zuzenean benetako haur bat erabili denik horretarako, edo aurrez sexu-abusuak izan direnik, baina, hala ere, eduki horiek indarkeria modu bat dira beren baitan, eragiten dieten haurren duintasun, ongizate eta segurtasunari egin dieten kalteagatik. Gainera, horrelako edukiek haurren sexualizazioa normalizatzen dute, eta delitu horien larritasuna arintasun handiagoz hautematea dakar horrek berak; horrez gain, abusuei buruzko edukien eskaria elikatzen du, eta etorkizunean erasoak izateko arriskua areagotzen.⁹

Bestalde, irudi horietako asko “ezin dira bereizi ikusmenaz” haurren aurkako sexu-abusuen irudi errealetatik, ezin dituzte bereizi askotan analista espezializatuek ere, eta izugarrizko erronkak planteatzen dituzte horrelako delituak hautemateko, ikertzeko eta zapaltzeko orduan, erreala zer den eta zer den manipulatu bereiztea zailtzen baitute, bai eta biktimak eta erasotzaileak identifikatzea ere.


Hazten ari den fenomeno da: 2024an, NCMEC erakundearen CyberTipline zerbitzuak 67.000 salaketa jaso zituen adimen artifizialaren bidez sortutako CSAM edukiekin lotuta, eta, aurreko urtean izan zirenak hartuta (4.700 salaketa), % 1.325eko hazkundera adierazten du horrek.

Azterlan honetan parte hartu duten neska-mutilei galdetu ondoren, %20k adierazi zuen norbaitek beste batzuekin partekatu izan zituela adingabea zenean eta baimenik gabe AA bidez sortutako irudiak, non biluzik agertzen zen, eta gutxi gorabehera beste horrenbestek esan zuten horrelako zerbait gertatu zitzaion norbait ezagutzen zutela beren inguruan. Biktimizazio modu hori pairatu zutenen artean, gehiago ziren neskak mutilak baino: neskak %21 inguru, eta mutilak % 18 inguru.

Datu horiek argi erakusten dute lehendik haur eta nerabeei eragiten zieten sexu-indarkeriako dinamiketan zuzen-zuzenean ari dela sartzen adimen artifiziala. Horren aurrean, deigarria iruditu zaigu gazteen %70 inguruk ez jasotzea beren haurtzaroko arriskuen artean adimen artifizialaren bidez argazkiak edo bideoak manipulatzeta, eta, beraz, arrisku horretaz eta dituen ondorioez kontzientziatzen jarraitu beharra dagoela adieraz dezake horrek. Bestalde, nerabeekin egindako lantegietan ingurune digitalak dituen arriskuak eta kezkak lantzerakoan, adimen artifizialaren bidez beren irudia sexualizatuta ikusteak kezka handiagoa eragiten zien neskei, baita jatorrizko edukia sexuala ez zenean ere.

9 Internet Watch Foundation (2023). How AI is being abused to create child sexual abuse imagery.

2. irudia. **AA bidez irudiak sortzea eta zabaltzea.**



“AA erabilia, nire aurpegia edozertarako erabil dezakete”

—neska nerabea

Sharentingaren arriskua

Gero eta familia gehiagok partekatzen dituzte beren seme-alaben irudiak sare sozialetan, seme-alabak oso txikiak direnetik, eta askotan, ez dira jabetzen zer arrisku ekar diezazkieketen horrek. *Sharenting* izenez ezagutzen den jarduera horrek ez dakarrela inolako kalterik pentsa daiteke hasiera batean, baina haurrak esparru digitalean erakusgai jartzea esan nahi du, eta gure kontrolpetik ihes egiten digu horrek ezinbestean. Irudiek konnotazio sexualik batere ez dutenean eta asmo txarrik gabe partekatzen direnean ere, berdin-berdin deskargatu edo manipula ditzakete beste batzuek, gure baimenik gabe (eta guk jakin gabe), legez kanpo erabiltzeko. Kasurik larrienenetan, digitalki CSAM edukiak sortzeko erabil daitezke, abiapuntutzat ohiko argazki errealak hartuta.

INCIBE erakundearen arabera, haurtxoen %81 Interneten agertzen dira sei hilabete inguru dituztenerako.¹⁰ Beraz, behar-beharrezkoa da arrisku hori ikusaraztea eta jendea arazoaz kontzientziaztea, ingurune digitalean kontzientzia handiagoz eta seguruago jardun dezakegun guztiok, baita familiek ere, eta, horrela, haur eta nerabeen pribatutasuna, segurtasuna eta ongizatea zaindu ditzagun.

10 Zibersegurtasunerako Estatuko Institutua (INCIBE). (s.f.). *Sharenting: cuando los padres ponen en riesgo la imagen de sus hijos*. INCIBE.

“Arrisku handia du sarera igotzen dugunak eta ikusleei garrantzirik ez emateak” —neska nerabea

- **Norberak sortutako materialak**

Haurrek eta nerabeek eurek ere ekoitz ditzakete irudiak eta bideoak, beren burua jarrera iradokitzaile edo sexualizatueta erakutsiz, edo jokabide esplizituagoak hartuta, beren borondatez edo norbaitek horretara hertsatuta; askotariko testuingurueta egin ditzakete halakoak, intimitatean, jakin-min sexualak bultzatuta, presio sozialaren eraginez edota hirugarrenek manipulatu eta esplotatuta, esaterako.

Horrelako edukiak sortzeko moduetako bat *sextinga* da, teknologien bidez sexualki esplizitua den materiala trukatzeta, alegia, eta izaera sexuala duten irudiak, bideoak eta testuak sartzen dira jardura horren barruan. Praktika hori nahiko finkatuta dago nerabeen artean,¹¹ eta horixe erakusten dute laginketako datuek ere: mutilen eta nesken % 27,1ek mezu, argazki edo bideo intimoak bidali zituen bere borondatez haur edo nerabe zela, eta % 40,2k esan zuen halakoak egin zituen norbait ezagutzen zuela.

Haurren eskubideen ikuspegitik, funtsezkoa da norberak sortutako eduki horiei kontu handiz heltzeta, eta argi aitortzeta botere-dinamikek, gizartearen presioak eta informazio faltak arriskuan jar ditzaketela neska-mutilen baimena eta datuen babesa. Jokabide horiek beren borondatezkoak direla jotzen badugu ere, arriskuak planteatzen dituzte; izan ere, ingurune digitalean beti gertatzen den bezala, eduki bat partekatzen denean hura sortu duenaren kontrolpetik atera egiten da, eta biktimizazio modu ugariri irekitzen zaio atea horrela. Ekoitzitako material horiek baimenik gabe zabaldu daitezke, pertsona helduek erabil ditzakete sexuarekin lotutako helburuetarako, sextortsiorako erabil daitezke, edo zenbait ingurunetan zabaldu daitezke, non sexu-erasotzaileekin egin dezaketen topo, eta sexu-abusurako eta -esplotaziorako gai bihurtu. Gure inkestan, honako datu hau ere nabarmendu da: sexu-esplotazioaren biktima izan ziren haur eta nerabeen % 100ek argi esan zuten bazekitela zer zen *sextinga*, eta biktima izan ez zirenetatik, berriz, % 60k zekiten.

“Uste dut irudi mota hori gizartean onarpena lortzeko egarriarekin eta arriskuak hartzeko joerarekin dagoela lotuta, adin horretan berezkoa eta arauzkoa baita hori. Horri jakin-min eta esnatze sexuala eta nork bere burua kontrolatzeko gaitasun mugatua gehitzen badizkiozu, horra hor agertoki perfektua erasotzaileek eduki horiek Interneten erabiltzeko”

—psikologiaren eta kriminologiaren arloetako profesionala

11 Gámez Guadix, M., de Santisteban, P., & Resett, S. A. (2017). Sexting among Spanish adolescents: Prevalence and personality profiles. *Psicothema*, 29(1), 29.34.

Kezkagarria da, gainera, material horiek sarean sexu-abusu eta -esplotazioarekin lotutako edukietan gero eta indar handiagoz sartzea, baita eduki horiek hasiera batean pribatuak diren testuinguruetan, borondatez eta deliturik egin gabe sortzen direnean ere. Gai horrekin lotuta, IWF fundazioak abisu eman du: 2023an aztertutako CSAM edukiekiko 275.652 webgunetatik, %92k norberak sortutako irudiak zituen, eta horietatik %70ean, berriz, 7 urtetik 10era bitarteko haurrak ageri ziren.¹² Datu horiek oso ondo erakusten dute zeinen adi txikietan hasten diren horrelako edukiak sortzen eta zeinen zaurgarriak diren sortzen dituztenak, askotan helduek ezer gutxi gainbegiratuta sortzen baitituzte, edota onarpen bila, edota gabezia afektiboen eraginez.

Hala ere, harrigarria iruditzen zaigu neska-mutil gehien-gehienek ez hartzea arriskutsutzat horrelako materiala bidaltzea baimena izanda. Egia esateko, halako jokabideak arriskutsutzat jotzen dituztenak are gutxiago dira, edukiak pertsona heldu bati bidaltzen badizkiote. Kezkagarria iruditzen zaigu, halaber, edukietan ageri den adingabearen baimenik gabe irudiak bidaltzea edo birbidaltzea ez jotzea arriskutsutzat %65ek.

1. taula. **Eduki intimoak bidaltzearekin lotuta, ingurune digitalean hautematen diren arriskuak.**¹³

	%
Beste nerabe batzuei argazki edo bideo intimoak bidaltzea baimenarekin	%41,3
Pertsona helduei argazki eta bideo intimoak bidaltzea baimenarekin	%32,9
Argazki edo bideo intimoak bidaltzea edo birbidaltzea adingabearen baimenik gabe	%34,7

“Nirea ez den beste sare sozial batean eta nire baimenik gabe eduki delikatuak erakusteko arriskua, nire irudia edozein moduz sexualizatzeko erabiltzekoa, eta hor zehar zabaltzekoa”

—nerabea

Lantegietan, sumatu ziren alde batzuk nesken eta mutilen artean irudi intimoak zabaltzeko arriskuaren pertzepzioan: nesken iritziz, ondorioak larriagoak dira eurentzat, uste baitute mutilek halako balidazio sozial bat jaso dezaketela halako irudiak partekatuta, eta, gainera, mutilek hirugarrenen eduki gehiago partekatzen dituzte, ekintza horren ondorioetan pentsatu gabe. Bestalde, mutilek uste dute neskek arrisku handiagoa dutela horrelakoetarako.

12 Internet Watch Foundation (IWF). **Annual Report 2023. ‘Self-generated’ child sexual abuse.**

13 Horrelakoak zuri gertatu zaizkizun edo ez aparte utzita, zure ustez zer arrisku izan zenituzten aurrez aurre ingurune digitalean zuk eta zure lagunek 18 urte bete aurretik?

Adingabe bat bere buruaren irudi edo bideo intimo edo sexualak partekatzera zer arrazoik bultzatu dezaketen galdetuta, hauek izan ziren gehienek eman zituzten arrazoiak: jokabide hori arriskutsua izan daitekeela ez jakitea (%48); zerbait normala dela edo ondorio negatiborik ez duela uste izatea (%46,3); besteen arreta, afektua edo balioespena bilatu nahi izatea (%42,5), edo trukean irabaziren bat lortzeko itxaropena (%40,4). Azken arrazoi horrek lotura estuagoa du esplotazio- edo autoesplotazio-dinamikekin, trukearekin lotutako logika bat adierazten duelako.

2. taula. **Adingabeek Interneten eduki sexualak trukatzeko arrazoiak.**

	%
Arriskutsua izan daitekeela ez jakitea	%48,0
Norbaiten presioa (xantaia, manipulazioa edo engainua)	%38,4
Dirua, opariak edo mesedeak jasotzeko itxaropena	%40,4
Zerbait normala dela edo ondoriorik ez duela uste izatea	%46,3
Beste norbaiten arreta, afektua edo balioespena bilatu nahi izatea	%42,5
Lagunak harrituta utzi nahi izatea edo lagunaren parean egon nahi izatea	%39,5
Bikote-harreman batean, maitasun edo konfiantzaren erakusgarri gisa	%37,9
Sare sozialen edo famatuen eragina	%32,1
Jakin-minagatik edo nortasunaren esplorazio gisa	%25,1

“Norberak sortutako edo sextingarekin lotutako online material ugari ari gara ikusten, eta hori ez da biktimizazio modu bat; baina material hori, azkenean, sarean zabaltzen da, estortsiorako edo haur eta nerabeak horrelako materialak egitera bultzatzeko erabiltzen da, edota baita sexu-harreman fisiko bat izateko ere ” —sexu-esplotazioan aditua

Sexu-abusuen arloko materialen ekoizpenarekin eta kontsumoarekin lotutako jokabideei dagozkien zigorraren tipifikazioa

Haurren aurkako sexu-abusuen irudiak (CSAM) Europako legedian nahiz Espainiakoan tipifikatuta dauden delitu larriak dira. Zigor Kodearen 189. artikulua hainbat sexu-esplotazio modu jasotzen ditu ikuskizun pornografikoekin eta material pornografikoak egitearekin lotuta, neurri handi batean Ziberdelinkuentziari buruzko Europako Zuzentarauan eta Europako Kontseiluaren Hitzarmenean jasotzen diren irizpideei jarraituz; dena den, ez zaio berariazko aipamenik egiten material grisari edo CSEM materialari.

Artikulu honek ez ditu zigortzen praktika horiek egiten dituztenak edo hortik irabazia lortzen dutenak soilik; praktika horiek kontsumitzen, onartzen edo ahalbidetzen dituztenak ere zigortzen ditu. Ildo horretatik, ikuskizun exhibizionisten eta CSAMen esparruan,¹⁴ berariaz “bezeroari” zuzentzen zaizkion zigorrak ere sartzen dira, hura publiko hartzaileztat hartuta, bai plano fisikoan eta bai digitalean. Neurri horietan, onartu egiten da, beraz, horrelako edukiak eskatzea, bere horretan, esplotazio-dinamikak elikatzeke modu bat dela, eta, horrela, neurri horien bidez, biktima jakin bat ez ezik haurrak eta nerabeak babestu nahi dira, kolektibo gisa.

Zigor Kodeak CSAM arloan sartzen ditu, baita ere, adingabeak sexu-harremanetan ageri dituzten errepresentazio errealistak, bai eta haien sexu-organoen errepresentazio errealistak ere, helburu sexualetarako erabiltzen direnean. Gainera, ingurune digitalean adingabeak babesteko Lege Organikoaren proiektuak (izapidetzen ari dira gaur egun) zabaldu egin du babes-eremu hori, eta beste tipo penal bat sartu du barnean (173 bis art.), ultrafalsifikazioak zigortzen dituenak, horrelako jokabideen aurrean adingabeen babesa indartzeko.

Azkenik, *sextingak* ere izan ditzake ondorio juridikoak, baita adingabeen artean eta borondatez gauzatzen denean ere, batik bat irudiak baimenik gabe partekatzen badira. Kasu horietan, sekretuak agerraraztean datzan delitutzat hartu daiteke (Zigor Kodeko 197. art.), eta astungarriak ere izan ditzake, baldin eta eragin zaion pertsona adingabea bada. Halakoak zabaltzea haur-pornografiako delitu gisa ere tipifika daiteke (189.aren barnean), baita eduki hori partekatu duen pertsona adingabea denean ere. Zehazki, badago materialen kategoria bat, oso konplexua dena lekeen ikuspegitik: haurrak irudikatzen dituzten eta adingabeek sortuak diren materialak; izan ere, CSAM materialtzat hartu daitezke. Nerabeak delituen egile gisa judizializatzeko benetako arriskua dakar horrek, baita nerabe horiek derrigortuta jardun dutenean edo manipulazio nahiz engainuen biktima izan direnean ere. Neska-mutil askok ez dakite ezer legezko inplikazio horiez.

14 Delitu hauei dagokienez, Zigor Kodeak “haur-pornografia” terminoa erabiltzen du oraindik.

3.2. Zuzeneko transmisioen bidez esplotatzea

Haurren aurkako sexu-abusuen *live streaminga* haurren aurka egiten diren sexu-abusuzko ekintzen zuzeneko emanaldia da, *streaming* plataformen bidez egiten dena, eta munduko edozein bazterretatik konektatutako ikusleak izaten dituzte halakoek.

Ingurune digitaletan haurren aurka gauzatzen diren sexu-esplotazioen fenomeno larrienetakoa eta konplexuenetakoa da praktika hori, aztertu berri ditugun material eta errepresentazio digitaletan ez bezala, aldiberekotasuna baitu osagai nagusietako bat *live streamingak*: denbora errealean gertatzen da abusua. Horregatik, askotan ikusleak ez dira begira egotera mugatzen, eta interakzioan aritzen dira gertatzen ari den abusu horretan. Zuzeneko txaten bidez, jarraibideak eman ditzakete; eskaera espezifikoak egin ditzakete, edo zenbait ekintza egiteko ordaindu dezakete, eta, hala, abusuen egilekide bihurtu, denbora errealean parte hartuz horietan, haurrarekin harreman fisikorik ez izan arren.¹⁵

“Jendea eduki horretan sartzen da, baina edukia ez da zabaltzen. Edukia inora ez badoa, ez da hautematen. Halakoetan, askoz ere zailagoa da ikerketa”

—justiziaren esparruko profesionala

Modus operandi edo taktika kriminala bitartekari edo bideratzaileen parte-hartzean oinarritzen da, zeinak, askotan, haurraren familiako kideak edo ingurukoak izaten diren eta abusu-saioak antolatzen dituzten: *streamingaren* data, ordua eta iraupena adosten dituzte bezeroekin; prezioak zehazten dituzte (aldatu egiten dira haurren adinarenean, parte hartzen duten haur kopuruaren edo eskatzen diren ekintzen arabera), eta emanaldi horretarako tokia jartzen dute.

Legearen ikuspegitik, sexu-indarkeria modu asko bildu ditzake barnean modalitate honek, hala nola prostituzioaren bidezko haur-esplotazioa, sexu-harremanak izatera derrigortzea kontaktu fisikoa izanda edo gabe, edota CSAM edukiak ekoiztea. Hala ere, aldiberekotasunaren osagaiak erronka esanguratsua adierazten du halakoak hauteman eta ikertzeko orduan; izan ere, emanaldia grabatzen ez bada, ez da ebidentzia fisikorik gelditzen gailuan. CSAM edukiak sortzeko grabatzen denean ere, edukia enkriptatuta igotzen da hodeian dauden zerbitzarietara, eta ezkutuan ematen dira horietarako loturak. Horrek guztiak zaildu egiten du halakoen trazabilitatea zehaztea, bai eta delitua dagokienei leporatzea ere. Ordainketak, gainera, banku-sistemen, kriptodiruarien edo bestelako transakzio modu digitalen bidez egiten dira, eta horien jarraipena egitea zailtzen du horrek ere.

Autoesposizioarekin edo gainesposizioarekin zerikusia duten jokabideekin lotuta egon daiteke, gainera, *live streaminga*, baina hurrengo txosten batean aztertuko dira horiek; adingabeek, halakoetan, aktiboki parte hartzen dute sarean emango diren sexu-

¹⁵ Nazioartean, *live streaming* deritzona modu hauetara ere kontzeptualizatu da: “enkarguzko haur-abusua”, “webcam bidezko haur-prostituzioa”, “urrutiko haur-abusua”.

jokabideetan, askotariko arrazoiengatik: balioespen bila dabiltzalako, presio sozialagatik, xantaia emozionalagatik edo sari sinbolikoengatik; eta, askotan, ez dira jabetzen zer ondorio izan ditzaketen egiaz ekintza horiek.

Turismo sexual digitalizatua

*Live streaming*ak sexu-esplotazioko modu tradizionalak aldatzeko aukera eman du, erasotzaileak fisikoki lekuz aldatu beharrik ez izatea ekarri baitu. Sexu-esplotazio modu horietako bat dugu, esaterako, haurren aurkako turismo sexuala. Modalitate honen barnean, gizonak, Mendebaldeko herrialdeetakoek batik bat, pobrezia, desorekak edo erregulazio urria zuten inguruetara jotzen zuten bidaian —Asiako hego-ekialdera, Latinoamerikara edo Afrikara bereziki— sexualki hurrez abusatzeko. Gaur egun, teknologia digitalak erabiltzen dira horrelako abusuak urrutitik planifikatu, koordinatu, ikusi eta are bideratzeko, zuzeneko emanaldiak baliatuz horretarako.

Gero eta indar handiagoa du gaur egun praktika horrek, Mendebaldeko erabiltzaileek eduki “pertsonalizatuak” gero eta gehiago eskatzen baitituzte; horien bidez, abusuen emanaldi horietan sar daitezke denbora errealean. Askotan, sare kriminalek esku hartzen dute horrelakoetan, pobrezian diren familien edo komunitateen eta azken erabiltzaileen arteko bitartekari gisa, zuzeneko emanaldietan sexu-jarduera espezifikoetarako haurrak “aukeran” eskainiz beren zerbitzuen bidez.¹⁶

Kontrolatutako guneetan antolatzen dira erasoak, alokatutako etxebizitza eta logeetan, esaterako. Biktimak grabatu egiten dituzte, eurak jakitun izanda edo izan gabe, eta, gero, CSAM edukiak banatzeko nazioarteko sareetan zabaltzen dituzte grabazioak. Etenik gabeko biktimizazio-ziklo bat sortzen da horrela.

Horrelako kasuak ikertzeko eta hautemateko konplexutasun teknologikoari delituak duen osagai transnazionala gehitu behar zaio; nazioarteko lankidetzaz sendo eta eraginkorra eskatzen du horrek, ordainketen, IP helbideen eta emankizunaren jatorrizko inguruneen jarraipena egin ahal izateko,¹⁷ eta erronka izugarria da biktimak identifikatzea eta babestea, kontuan hartuta askotan zaurgarritasun eta muturreko pobrezia handiko testuinguruetan gertatzen direla.

16 Diaconía. (2024). Guía para profesionales del ámbito educativo. Trata en el mundo digital: protegiendo a los menores. Madrid: Diaconía.

17 Europol. (2019). Internet Organised Crime Threat Assessment (IOCTA) 2019. The Hague: Europol.

“Harrapari hutsak dira, Mendebaldeko herrialdeetakoak, eta Asiako hego-ekialdeko sareekin harremanetan jartzen dira, horien bidez bideoak lortzeko; hau da, adingabeak lortzen dizkiete, zuzeneko streaminga egiteko, adingabeak aukeran jarrita” —segurtasun-indar eta -kidegoak

2011/93/EB Zuzentaraua

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011/93/EB Zuzentaraua, 2011ko abenduaren 13koa, sexu-abusuen, adingabeen sexu-esplotazioaren eta haur-pornografiaren aurkako borrokari buruzkoa, Europar Batasunaren funtsezko tresna juridikoa da, bai sexu-indarkeriaren esparruko harmonizazio penalerako eta bai sexu-indarkeriaren aurrean haur eta nerabeei erabateko babesa emateko, biktimarengan, prebentzioan eta nazioz gairik esparruan oinarritutako ikuspegi bat indartuz. Tresna horrek esplizituki eta zeharkako izaeraz barnean hartzen du ingurune digitala, delitua egiteko gunetzat, esplotaziorako bitartekotzat eta prebentziozko erregulaziorako xedetzat hartuta.

Barnean hartzen ditu sexu-abusua (3. artikulua), sexu-esplotazioa (4. artikulua), haur-pornografia¹⁸ (5. artikulua) eta groominga (6. artikulua). Eta honako jokabide hauek sartzen dira sexu-esplotazioan:

- » **Haurren prostituzioa**, honela definitua: haur edo nerabe bat sexu-jardueretarako erabiltzea, jarduera horietan parte hartzeagatik dirua emanez edo aginduz, edo beste ordainketa modu edo kontraprestazioren bat, alde batera utzita ordainketa, agindua edo kontraprestazioa adingabeari edo hirugarren bati egiten zaion.
- » **Ikuskizun pornografikoak**, honela ulertuta: «publikoari zuzenean erakustea, IKTen bidez ere bai, honako hauek: i) haur edo nerabe bat, jokabide sexual erreal edo simulatu batean esplizituki parte hartuz, edo ii) haur edo nerabe baten sexu-organoak, helburu sexualetarako batik bat» (2.e art.).

Haur-pornografia, sexu-esplotazioarekin lotutako arau-hausteetatik bereizita, honela definitzen da:

18 Zuzentarauak erabiltzen duen terminoa, proposamen berrian eguneratua.

- » Haur edo nerabe bat sexu-jokabide esplizitu batean, erreal edo simulatu batean, parte hartuz ikusteko moduan irudikatzen duen material oro, eta adingabe baten sexu-organoen errepresentazio oro, sexu-helburuetarako batik bat.
- » Haur edo nerabe baten itxurako pertsona bat sexu-jokabide esplizitu batean, erreal edo simulatu batean, parte hartuz ikusteko moduan irudikatzen duen material oro, eta adingabe baten itxurako pertsona baten sexu-organoen errepresentazio oro, sexu-helburuetarako batik bat. Dena den, zuzentarau horrek berak diskrezionalitate-klausula bat ere aurreikusten du, eta, horren bidez, halako kasuetan zigorrak aplikatu ala ez erabaki dezakete estatuek.
- » Haur edo nerabe baten irudi errealistak, sexu-jokabide esplizituetan, edo haur edo nerabe baten sexu-organoen irudi errealistak, sexu-helburuetarako batik bat. Kasu honetan ere, zigorrei dagokienez, diskrezionalitatea onartzen da, baldin eta materiala erabilerapribaturako sortu eta gorde bada, zabaltzeko arriskurik gabe, eta haurren benetako irudiak ez baditu.

Zuzentarau hori berrikusten ari dira Europako erakundeak, aldaketa teknologikoei eta ingurune digitaletan haur eta nerabeen aurka gertatzen ari diren sexu-delituen gorakadari erantzuteko. 2022an egin zen ebaluazio-jardueraren emaitzetan oinarritu da berrikuspen hori. Izan ere, ebaluazio-jarduerahorretan, ikusizengarrantzi handikomugak zeudela hura aplikatzeko, batez ere prebentzioaren, mugaz gaindiko lankidetzaren, ikerketa digitalaren eta biktimei zuzendutako arretaren alorretan. Hona hemen erreforma horretarako oinarritzkoak diren zenbait alderdi:

- » Hizkuntza eguneratu beharra dago, nazioarteko erakundeek emandako gomendioekin bat etorrira “haur-pornografia” terminoaren ordez “haurren aurkako sexu-abusuetako materiala” (CSAM) erabiliz.
- » EB osoan haurren aurkako sexu-abusuetako delituen definizioa hedatu beharra dago, eta, horrez gain, zigor handiagoak ezarri behar dira egileentzat. Barnean hartu beharreko delitu berrien artean daude haur eta nerabeen sexu-abusuen zuzeneko transmisioa, “gida pedofilo” izenez ezagutzen diren eskuliburuak edukitzea edo trukitzea, eta AA bidez sortutako CSAM materiala.

4. Sexu-esplotazio digitalerako haurrak eta nerabeak erakartzeko dinamikak

Bai aukera teknologikoek, bai ingurune digitaleko harreman-dinamiketan izan den aldaketak berak (zer da pertsona ezezagun bat sare sozialetan?) aldatu egin dituzte haurrak eta nerabeak sexu-esplotaziorako xedez erakartzeko dinamikak, eta askotariko metodoak erabili dira, hala nola zuzeneko estrategiak eta estrategia oldarkorrak nahiz pixkanaka engainatu eta manipulatzeko prozesuak; gero eta sofistikatuagoak dira, eta askotariko helburuak izan ditzakete, gainera. Gaur egun, estrategiarik ohikoenak *online groominga* eta sextortsioa dira, eta indarkeria mota bat dira bere horretan horiek ere.

Groominga. Aurreko azterlanetan aztertu izan dugun indarkeria modu hau,¹⁹ testuinguru honetan, haurrak eta nerabeak sexu-esplotaziora erakartzeko oso modu ohiko eta konplexua da. Manipulazioa, engainua eta hertsapena erabilita, eduki sexuala duten material digitalak lortzea du xede (erabilera pertsonalerako nahiz salmentarako), edo sexurako topagune fisiko nahiz digitalak osatzea, edota biktima den haurra edo nerabea esplotazio-sareetan sarraraztea. Irudien trukea euren borondatez hasten da itxuraz, baina ohikoa da hertsapenaz baliatzea azkenerako.

2023an, *groomingarekin* lotutako 525 salaketa erregistratu zituen Barne Ministerioak, eta aurreko urtekoekiko (408) izugarrizko gorakada izan zela adierazten du datu horrek. Dena den, izozmendiaren tontorra baino ez da hori, beste indarkeria mota askotan gertatzen den bezala: gure inkestan parte hartu duten gazteen %33,5ek harremana izan zuten ingurune digitalean pertsona heldu batekin xede sexualetarako, eta halako kontaktuak izan zituztenen artean gehiago izan ziren neskak (%35,6) mutilak baino (%26,5). Helburu sexualetarako kontaktu horiekin lotutako jokabideei dagokienez, arrisku handiagoa izan zuten neskek eskatu gabe argazki edo iruzkin sexualak jasotzeko eta pertsona heldu bat helburu sexualekin eurekin harremanetan jartzeko. Gainera, lantegian parte hartu zuten neska nerabeek onartzen zuten Interneten era guztietako pertsonak dituztela aurrean eta ez dela beti erraza profil faltsuak edo asmo gaiztoak dituztenak identifikatzea.

“Denbora asko pasatu bada, edota zenbait egun, konfiantza izan daiteke, baina bestea zuzenean ezagutzen ez duzunean ere”


—mutil nerabea

19 Ikusi: Konexiorik gabeko eskubideak (2024); *Online groominga* (2023); eta Indarkeria birala (2019).

3. taula. **Groomingari lotutako arriskuak.**²⁰

Egoera	Norberak	Ezagun batek
Heldu batekiko kontaktua helburu sexualetarako	% 33,5	% 35,9
Argazki sexualak jasotzea eskatu gabe	% 38,9	% 47,9
Iruzkin sexualak jasotzea eskatu gabe	% 38,0	% 45,9
Behin eta berriz mezuak jasotzea harreman sexualak izateko	% 27,0	% 34,2

3. irudia. **Groomingarekin lotutako jokabideak, generoaren arabera.**



Teknologiai esker, taktika hauek erabiltzen dituzten erasotzaileentzat (groomerrak), biktimarekiko kontaktua berehalakoa, masiboa eta etengabea izan daiteke, eta haur eta nerabeek normalean erabiltzen dituzten gune guztietan gerta daiteke: sare sozialetan, bideojokoen plataformetan, *streaming* kanaletan, mezularitzako aplikazioetan etab. Biktimaren profilaren arabera, egokitu egiten dituzte erasotzaileek beren estrategiak. Esate baterako, generoaren arabera, *online* bideojokoak erabiltzen dituzte batez ere mutilengana iristeko, eta, aldiz, gehiago erabiltzen dira beste sare batzuk neskekin harremanetan jartzeko, Instagram, TikTok edo YouTube, adibidez. Bi kasuetan, lehen aldiz

²⁰ Esperientzia hauetatik, zein gertatu zitzaizkizun zuri edo zuk ezagutzen duzun norbaiti? Seinalatu beharrezkoak iruditzen zaizkizun aukera guztiak.

harremanetan jarri ondoren, mezularitzako aplikazioetara egiten dute jauzi (WhatsApp, Telegram edo Discord), horietan intimitate eta pribatutasun-maila handiagoa baitago, eta arrisku handiagoa ere bai.

“Sare irekietan haurrak eta nerabeak erakartzeko eta horiekin harremanetan jartzeko, imajinatu daitezkeen bide guztiak erabiltzen dituzte: bideojokoen foroak, sarreraren salmentarako foroak, haurren munduko famatuen jarraitzaileen klubak, haurrak erakartzen dituzten kirol-klubak edo jarraitzaileen klubak...” —justiziaren esparruko profesionala

Esplotatzaileek harremanetan jartzeko erabiltzen dituzten bideak askotarikoak direla berretsi du inkestak, eta sare sozialen bidezko kontaktuak nabarmentzen dira batik bat, hala nola Instagram (%68) edo X/Twitter (%44), mezularitzako aplikazioak, WhatsApp (%48), esaterako, edota harremanetarako aplikazioak, Tinder (%44) eta Grindr (%48), adibidez. Kontuan hartzekoak dira, halaber, *online* jokoen eta *streamingaren* bidezko harremanak ere (%44).

4. taula. **Esplotatzaileek harremanetarako erabiltzen dituzten plataformak.**

Instagram	% 68
TikTok	% 40
WhatsApp	% 48
Youtube	% 28
Telegram	% 40
X/Twitter	% 44
Discord	% 32
Twitch	% 36
Snapchat	% 28
Only Fans	% 24
Tinder	% 44
Grindr	% 48
Sugar daddies webguneak eta antzekoak	% 36
Online jokoak eta online streaminga	% 44

Harremanetarako eta hitzorduak egiteko aplikazioak

Harremanetarako eta jendearekin hitzorduak egiteko aplikazioak, hala nola Tinder, Bumble, Badoo edo Grindr, 18 urte beteta dituzten pertsonentzat dira soilik, eta halaxe adierazten dute deskargen guneei. Hala ere, ez daukate adina egiaztatze inolako sistemarik, eta, beraz, ez dute erabiltzaileen adin-nagusitasuna egiaztatze modu fidagarrik: erregistratzeko, aski da jaioteguna idaztea, eta erabiltzaileak berak baimendutakoa baino adin txikiagoa duela adierazten duenean soilik eskatzen da nortasun-agiria.

Hala, ez zaie eragozpenik jartzen praktikan neska-mutilei aplikazio horietara jo dezaten: inkestan, zehazki, argi ikusi dugu parte-hartzaile batzuek 18 urte bete aurretik erabiltzen zituztela horrelako aplikazioak, batez beste 15-16 urte zituztenean. Gune horietan adingabeak daudenez, horiek harremanetan jar daitezke pertsona helduekin, helburu sexualetarako, eta kontuan hartu behar dira horrek dakartzan arriskuak, besteak beste, *grooming*a, sexu-esplotazioarako haur eta nerabeak erakartzea, eta beste indarkeria modu batzuk, pertsona helduekin irudi eta sexu-eskariak trukatzeko horrelako ondorioak ekar baititzake.

Beraz, aplikazio horiek ez dute mugatu behar 18 urtetik gorakoentzat direla egokiak adieraztera soilik; horrez gain, erabiltzaileen adina eraginkortasunez egiaztatze sistemak ezarri behar dituzte, adingabeak horrelakoetan sartzea eragozteko.

Askotan, erasotzaileak haurren informazio intimoa izaten du, edota xantaia edo estortsio bidez eduki gehiago eskatzeko erabiltzen duen materialen bat. Beraz, badirudi erasotzaileentzat garrantzi handikoa dela profilen jendaurreko esposizio-maila: zenbat lagun edo jarraitzaile dituzten, zenbat informazio, irudi edo bideo partekatzen dituzten...²¹ Ondorio honekin bat dator egindako azterketa: sexu-esplotazio digitalaren biktima guztiek informazio pertsonal edo intimoa partekatu zuten Interneten haurtzaroan edo nerabezaroan; ehuneko hori, ordea, %33,8ra murrizten zen biktima izan ez zirenen taldean.

*Grooming*a deskribatzen denean, pixkanakako prozesu bat dela esaten da, non erasotzaileak, bidea ondo planifikatu ostean, biktima den haurrarekin lotura emozional bat sortzen duen, poliki-poliki eduki sexuala duten elementuak sartu aurretik. Hala ere, sumatzen dira gaur egun aldaketa batzuek *grooming* “tradizionalarekiko”:

- » Gero eta kasu gehiagotan, erasoak ingurune digitalean “soilik” gertatzen dira, ez dira ingurune fisikora pasatzen.

21 Europol. (2019). Internet Organised Crime Threat Assessment (IOCTA) 2019.

“Groomerrek sare sozialak erabiltzen dituzte adingabeak erakartzeko bide gisa, eta lagun asko dituzten begiratzen dute, edota online jokoan bidez jotzen dute haiengana, materiala trukatzuz, eta, gero, app enkriptatuetara eramaten dira berehala, non edukiak maila bat gorago egiten duten eta esplizituago diren” —sexu-esplotazioan aditua

- » **Aldi bereko kontaktuak eta kontaktu masiboak.** Nahiz eta gehienak biktima bakarrarekin komunikatu, %12,5ek elkarriketa paraleloak zituzten beste neska-mutil askorekin. Ekinaldi masibo horretarako gaitasunari manipulazio-estrategien sofistikazioa erantsi behar zaio, kezka handia eragiten duen joera bat baita: eraso planifikatuak gero eta gehiago hautematen dira, non erasotzaileek, edo antolatutako sareek, informazioa biltzen duten aurrez biktimez, horien barnean hartuta zaurgarritasun emozionalak, familiako gatazkak, jazarpenak, aldarteak edo ohiko errutinak.
- » **Gero eta azkarrago egiten dira sexu-eskaerak.** Gero eta ohikoagoa da erasotzaileek lotura emozionala sortzeko fasea “albora” uztea eta sexu-eskariak gero eta azkarrago egitea. Eskari horien aurrean, gero eta maizago gertatzen da, baita ere, adingabeek berehala erantzutea, eskaria onartuz. Prozesua bizkortze horren arrazoiak ingurune digitaleko hipersexualizazioa eta eduki intimoen trukea normalizatzea izan daitezke, eta kontuan izan behar da sexuaren esplorazioa funtsezkoa dela etapa honetan. Pertsona helduengandik datozen eskariak direla jakinda ere halakoak onartzera eramaten ditu horrek, aurrez konfiantza sortzeko prozesua egin beharrik gabe.

Alde horretatik, harrigarriak iruditu zaizkigu ingurune digitaleko arriskuen pertzepzioaz jaso ditugun datuak: neska-mutilen erdiek baino gehiagok (%50,3) uste zuten ingurune digitaleko arrisku nagusietako bat asmo onik gabe zetozen pertsona ezezagunekiko harremanak zirela, baina %32,9k baino ez zuten aipatu arriskutsutzat irudi intimoak bidaltzea pertsona helduei, euren baimena izanda; ikusi dugunez, arrisku hori beste nerabe batzuei argazkiak eta bideoak euren baimenarekin bidaltzea baino txikiagotzat hauteman zuten, gainera. Nabarmentzekoa da *Grooming*ari buruzko ezer gutxi jakitea ere: parte-hartzaileen %23,6k soilik esan zuen bazekiela zer zen, eta, gainera, ezagutza hori proban jarri zenean, ikusi zen ehuneko horren zati batek fenomeno horren ezagutza partziala zuela; %17,3k soilik identifikatu zituen *grooming*ak barnean hartzen dituen jokabide guztiak.

“Gero eta kasu gehiagotan, kontaktua grooming bidez izaten da, eta sexu-erasoa sarean bertan gertatzen da. (...) Auzitegi Gorenak jada adierazi du ez dela beharrezkoa offline izatea, online ere izan daitekeela, garrantzitsuena haurren sexu-askatasunari egiten zaion kaltea baita. Garrantzi handiko ikuspegi-aldaketa da hori” —fiskaltza espezializatua

Manipulazio-estrategietan AAK betetzen duen funtzioa

Erasotzaileen estrategien sofistikazioan, gero eta funtzio handiagoa betetzen du adimen artifizialak. Teknologia horri esker, heldu batek bere hizkuntza-trebetasunak ezkuta ditzake adingabe baten roletik ari denean, errealismo handiz imitatzen baitu haur baten adierazteko modua; horrek, noski, engainua eta manipulazioa errazten ditu. Gainera, teknologia horri esker, aldi berean elkarrizketa errealistak izan ditzakete biktima ugarirekin, eta irudi faltsuak sortu ditzake, horien bidez bere burua haur edo nerabe gisa aurkezteko.

Teknika oldarkorrak edo hertsatzaileak. *Groomingean*, borondatez, itxura batean, materiala trukutzen da; baina, zenbait kasutan, erasotzaileek hasieratik teknika oldarkorragoak erabiltzen dituzte irudiak lortzeko, gailuetan baimenik gabe sartuz edo hackeatuz, esaterako, edo malwarearen bidez; azken honen bidez, kamerak aktiba daitezke, edo artxiboak lapurtu daitezke, erabiltzailea horren jakitun izan gabe. Denbora errealeko komunikazioetarako gune digitalean gertatu ohi da ondorengo xantaia, hala nola Discord zerbitzuan, bideojokoen txatetan edo mezularitzako talde pribatuetan.

“Nik ez dut telefono mugikorra bainugelara eramaten dutxatzera noanean; ez dakizu inork adabakirik jarri ote dizun webguneren edo jokoren batetik, edo beste zerbait egin dute agian” —mutil nerabea

Horrez gain, lanerako eskaintza faltsuen bidez nerabeak erakarri izan dituzten kasuen berri ere jaso dugu, batez ere, modeloen eta marken irudiaren sektorean, aurrez irudiak bidaltzeko eskatzen baitzaie askotan, eta, ondoren, xantaia sexualerako edo ekonomikorako erabiltzen baitira irudi horiek.

“Erasotzaileek manipulatu egiten dituzte haurrak eta nerabeak, interesatzen zaien zerbait eskainiz, hala nola itxuraz inolako kalterik ez dakarten loturak edo pluginak; baina, egiaz, software gaiztoa dute, haurrak edo nerabeak zelatatzeke edo estortsioa egiteko” —zibersegurtasuneko aditua

Inkestari erantzun dioten gazte askok erantzun dute beren haurtzaroan edo nerabezaroan hertsapen edo sextortsio moduekin lot daitezkeen egoerak bizi izan zituztela ingurune digitalean: %26k adierazi zuen adingabea zenean presioa jasan zuela eduki intimo edo sexualak bidaltzeko; %20k mehatxuak edo xantaiak jasan zituen, eduki erotiko edo sexuala erakusteko; eta ia beste horrenbestek mehatxuak eta xantaiak jasan zituen, eurak ageri ziren eduki sexualeko materialak zabalduko zituztela esanez. Horrelako edukiak bidaltzeko presioak maizago jasan izan zituzten neskek: %28,5ek zehazki, eta mutilak, aldiz, %18,4 ziren; 10 puntuko aldea dago, beraz, ehunekotan. Gainera, horrelako egoeraren bat bizi izan zuen norbait ezagutzen ote zuten galdetuta, baiezkoa esan zuten gazteen ehunekoa are handiagoa izan zen.


4. irudia. **Eduki intimoak edo sexualak bidaltzeko mehatxuak eta xantaiak.**



Illo horretatik, adingabeak zirenean zuzenean Interneten eduki sexualeko materialak zergatik trukatu zituzten galdetu zaienean, %38,4k beste norbaitengandik jasandako presioarekin, xantaiarekin, manipulazioarekin edo iruzurrarekin lotu zuen jokabide hori.

Dena den, ingurune digitalean haur eta nerabeak erakartzeko moduez zer uste duten edo zer pertzepzio dituzten galdetu zaienean, manipulazioarekin eta iruzurrarekin, profil faltsuekin edo interes komunak dituzten itxurak egitearekin lotutako metodoak aipatu dituzte gehienbat, xantaiak edo mehatxuak baino gehiago. %23k baino ez zituen aipatu edukien foroak edo taldeak. Erantzunetan, aipamen txikiagoa izan dute lagunek eta bikote-harremanek, eta nabarmentzekoa iruditu zaigu hori; lotura afektiboen barruan arriskuaren pertzepzio txikiagoa dutelako izan daiteke hori.

5. irudia. **Ingurune digitalean biktimak erakartzeko eta horiengana iristeko metodoak.**



CSAM edukiak ekoizteko inguru hurbilean jasan dezaketen abusua. Haur eta nerabeak erakartzeko orain arte aztertutako moduak ingurune digitalaren bidez harremanetan jartzearekin lotuta bazeuden ere, badaude oso larriak diren beste dinamika batzuk, haurren inguru hurbilean hasten direnak; horietan, aurrez aurreko sexu-indarkeriari teknologien erabilera gehitzen zaio, materialak ekoizteko, abusua erregistratzeko eta zabaltzeko, hain zuzen.

Adibidez, CSAM horretan kontaktu fisikoa ere sartzen denean, hura ekoizteko, nahitaez, haur edo nerabe baten aurkako sexu-eraso fisikoa dago; ikus-entzunezko baten bidez erregistratzen da, ingurune digitalean ikusteko, zabaltzeko edo trukatzeko. Zenbaitetan, biktimak erakartzeko eta biktimaz abusatzeko prozesu horren aurretik, *grooming* fase bat edo ezagutzen ez dituzten pertsonen eragindako hertsatze-dinamikak ere izan daitezke. Hala ere, eskura ditugun datuetatik eta funtsezkoak diren eragileek egindako oharretatik abiatuta, ohikoena erasoak biktima den haur horren ingurutik etortzea da: familiartekoak izan daitezke, edo zaintzaileak, edo ohiko eta konfiantzazko inguruneen erreferentziazko beste norbaitzuk, zeinak gertutasun eta botere-posizio hori baliatzen duten haurra biktimizatze edo kontrolpean edukitzeko. Teknologia digitalak, hala nola etxeko kamerak, mugikorrak edo mezularitzako aplikazioak, abusu-edukiak ekoizteko eta banatzeko tresna bihurtzen dira.

Badu fenomeno honek bereziki kezagarria den ezaugarri bat: oso adin txikiko biktimak identifikatu dira behin eta berriz, bularreko haurrak eta 3 urtez azpiko haurrak ere bai, CSAMen esparruan.²² Zaurgarritasun goreneko adin-tartea da hori, eta larritasuna ere ezin handiagoa da, bai indarkeria-mailari dagokionez eta bai eragindako kalteari dagokionez. Halakoetan, erasotzailea familia-inguruneko gertuko heldu bat izaten da, eta horrek adierazten du denbora batean iraun duten sexu-abusuko egoerak izan daitezkeela.

“Batez ere, haurren inguruneko pertsonak dira, horrelako sexu-bulkadak dituztenak, eta, gainera, balorazio handiko material berria eskain dezakete. Ekoitzi eta zabaldu egiten dute, besteen onspena izanez euren egoa indartzen baitu horrek”

—segurtasun-indar eta -kidegoak

Haur eta nerabeak esplotaziorako atzitzea nazioz gairik gabeko testuinguruetan. Esplotaziorako eredu hori tokiko mailan bitartekari gisa jarduten duten antolatutako sareen bidez gauzatzen da; desoreka eta ahulezia instituzional handiko eskualdeetan aritzen dira batez ere, zaurgarritasun handiko egoeretan (pobrezia, gurasoen babes falta, hezkuntzatik kanpo egotea) dauden haur eta nerabeak erakarriz; askotariko abusuak jasanarazten dizkiete, haien familiei edo zaintzaileei emango zaizkien konpentsazioen truke.

Aurrez aurre erakar ditzakete halakoak, bitartekari gisa aritzen diren sare komunitarioen, auzokoen edo familiartekoen bidez, eta zuzeneko kontaktu digitalaren bidez ere erakar ditzakete. Bigarren kasu horretan, gerta daiteke familiak hainbat agintzarirekin konbentzitu izana, aukerak, opariak edo dirua emango zaizkiela esanez; edo gerta daiteke familiak engainatuta egotea ere, seme-alabek legezko jardueretan (modelo gisa, aisialdian...) parte hartuko dutela sinetsaraziz.

22 Interpol. Haurren Sexu Esplotazioari buruzko Nazioarteko Datu Basea.

5. Groomerren eta esplotatzaileen profila

Ingurune digitaleko groomerren eta haurren esplotatzaileen profilaren azterketak argi erakusten du ez dagoela profil bakarra; hala ere, zenbait eredu komun identifikatu dira. Nabarmen ikusi da, gainera, batzuek eta besteek prozesuaren fase desberdinetan parte hartzen dutela, eta, hala, haurren sexu-esplotazioan kate moduko bat osatzen dute, izen horixe eman baitiote aditu batzuek jokamolde horri.



“Haurren sexu-esplotazioa kate bat da, eta hainbat maila ditu kate horrek. Horietako bat horrelako materiala lortzen edo ekoizten duena litzateke, groomer hipersexualizatu bat izan daitekeena; ziurrenik, beste batzuekin harremanetan jarriko da pertsona hori materiala trukatzeko, etab.”

—psikologiaren eta kriminologiaren arloetako profesionala

Gizonak dira gehienak. 2023an, Espainian *grooming* delituengatik atxilotu eta ikertu zituzten pertsona guztien %93,4 gizonak izan ziren, Barne Ministerioak emandako datuen arabera.²³ Espainiako testuinguruan, gizonezkoak direla nagusi adierazten dute beste hainbat azterlanek ere.

Pertsona gazteak dira. Adin-tarte ohikoena 18 urtetik 25era bitartekoena da, polizia-atestatuetan identifikatutako erasotzaileen batez besteko adina 28 urte ingurukoa den arren;²⁴ nabarmenduda, gainera, %13,2 adingabeazela. Azterlan horietan, identifikatutako profilik ohikoena hauxe da: espainiar nazionalitatea duen 35 urteko gizonezkoa.²⁵

Ingurune digitalean soilik jardun dezake. Estatuan egin diren azterketa ofizialen arabera, erasotzaileen %66 ingurune digitalean soilik aritzen da; %34k aurrez aurre elkartu nahi zuen adingabearekin.²⁶ Ildo horretatik, erasotzaileak beren helburuen arabera sailkatu ditugu: neska-mutilei sexu-erasoak egiteko harreman fisikoen bila dabiltzan groomerrak; berariaz interakzio digitalek bultzatuta aritzen direnak, hala nola CSAM materialak lortzeko edo zibersexurako; edo mistoak edo dualak, bi helburuak bateratzen dituztenak, aukeraren eta testuinguruaren arabera.

Askotan, ez dute beren identitatea ezkututzen. Gutxi gorabehera erasotzaileen erdiek ez dute ezkututzen nor diren, eta horrek konfiantzazko edo segurtasunezko sentipen faltsu bat eragin dezake biktimarengan.

Ez dira beti ezezagunak. Kasuen %35ean, haurren edo nerabearen inguru hurbilekoa da.²⁷ Era berean, inkestako emaitzek hauxe erakutsi digute: nahiz eta sexu-esplotazioan hautemandako kasuetan heldu ezezagunak izan nagusi, beste egoera askotan erasotzailea biktimak ezagutzen zuen pertsona bat zen, batez ere erasoak egin zuena adingabea zenean.

Motibazioa ez da beti sexuala. Badaude helburu ekonomikoa duten *grooming* eta estortsio-kasuak ere, edota, beste batzuetan, biak daude, motibazio sexuala eta ekonomikoa; erasotzaileen profil esplotatzaile handiagoa uzten du agerian horrek. Ikuspegi horretatik, NCMEC erakundeak abisu eman zuen: ekarpen sexualean ardaztu beharrean onura ekonomikoan ardaztutako hertsapena edota estortsioa gora eta gora ari den joera bat da, sexu-esplotazio digitalarekin lotuta. Espainian ere, gorabidean da jokabide hori.

23 Ziberkriminalitateari buruzko Atari Estatistikoa; Barne Ministerioa (2025).

24 Barne Ministerioa (2025). *Investigaciones policiales por delitos de online child sexual grooming en España*.

25 Riberas-Gutiérrez et al. (2023).


26 Barne Ministerioa (2025).

27 Riberas-Gutiérrez et al. (2023).

“Espainian, orain arte ez zen hauteman horrelako delitu-jardueren atzean krimen antolatua zegoenik, baina bai truke ekonomikoa. Bilakatzen ari da, gero eta gehiago ari da hazten, eta, ziurrenik, sartu egingo dira erakunde kriminalak ere, pastel zati bat eramateko eurek ere” —segurtasun-indar eta -kidegoak

Horietako datu batzuk ez datoz bat, inola ere, ingurune digitaleko erasotzaileei buruz neska-mutil askok dituzten usteekin. Profil horien inguruan zer pertzepzio dituzten galdetu genienean, erdiek baino gehiagok pentsatzen zuten benetan nolakoak ziren ez zutela esaten, gezurra esaten zutela (%53,5); profil faltsuen atzean ezkutatzen direla zioten (%53,5), edo Interneteko anonimotasuna erabiltzen dutela iruzkinak eta mehatxuak egiteko (%48,5). Aldiz, %26,2k uste zuen esplotatzaileak gizonak zirela beti. Erantzun horiek argi erakusten dute zer-nolako garrantzia duen profilen aniztasunaz kontzientziatzeko egin behar den lanak, neskak eta mutilak adi egon daitezen beren ingurune hurbilean gerta daitezkeen egoeren aurrean.

6. irudia. **Ingurune digitaleko biktimagileen irudia.**



5.1. CSAM edukien kontsumitzaileen profila

Bereiz lantzeko gaia da haurren aurkako sexu-abusuetako materialen kontsumoa eta material horien ikustea. CSAM edukien kontsumoa delitu larria eta haurren aurkako indarkeria mota bat izateaz gain, sexu-eraso fisikoak egiteko arrisku-faktoreen artean

identifikatu da. Ikuspegi horretatik, Finlandiako *Protect Children*²⁸ taldearen txostenak (*dark web* deritzon argitaratutako galdeketen bidez hainbat herrialdetan material ilegala ikusten zuten 4.549 arau-hasle anonimoren datuak bildu zituen) argi utzi zuen CSAM edukiak ikusten zituzten inkestako parte-hartzaileen %44k material mota hori ikusi ondoren neska edo mutiko batekin harremanetan jartzea pentsatu zuela, eta %37k halaxe egin zuen.

Profilen aniztasuna.- Eskura ditugun azterketek argi uzten dute material horien kontsumitzaileen profilak askotarikoak direla, eta desberdintasun handiak daude haur eta nerabeekin zuzeneko harremana izan eta CSAM materialak ekoizten eta zabaltzen dituztenen eta, erasorik egin gabe edo materialik ekoitzi gabe, material mota horiek ikusi baino egiten ez dituztenen artean. Bigarren talde horretako pertsonak prestutasun handiagoa ageri ohi dute tratamendua jasotzeko, eta zenbait programa esperimentalek kontsumoa nahiz ikusitako materialaren larritasuna murriztea lortu dute. Era berean, aldea nabari da legez kanpoko materiala nahita bilatzen eta ikusten dutenen eta adin txikikoak direla jakin gabe neska gazte edota infantilizatuak (teen deritzenak) dagozkien edukiak bilatzen dituztenen artean.

Halakoak ikusteko motibazioak.- *Protect Children*en proiektuan, inkestatuen herenak onartu zuen adingabeekiko interes sexuala zela CSAM materiala bilatzeko arrazoi nagusia; baina %50ek esan zuen ez zela ari halako materiala bilatzen lehen aldiz azaldu zitzaionean (nahiz eta gerora nahita bilatu zituzten halako edukiak), eta nabarmentzekoa da hori. “Ustekabeko esposizio” horrek oso kezka handia eragiten digu, are gehiago kontuan hartuta inkestatuen bi herenek baino gehiagok onartu zutela CSAM edukiak lehen aldiz artean adingabeak zirela ikusi zituztela; %40k, gainera, 13 urte baino gutxiago zituzten. Oso adin goiztiarretan CSAM materialak bilatzeko beste arrazoi bat norberaren biktimizazio-egoerekin dago lotuta: halako materiala bilatzen du biktimak, jasandako abusua edo esplotazio-egoera hobeto ulertzeko antzeko bizipenak irudikatzen dituen materiala ikusiz.

Adingabeak.- Oso-oso larria da adingabeek horrelako edukiekiko duten esposizioa. Ildo horretan, Erresuma Batuko agintariek ohartarazi dute sexu-abusu digitalengatik atxilotutako adina gero eta txikiagoa dela, eta gero eta gehiago direla CSAM kontsumoaren barnean identifikatzen diren nerabeak edo aurrenerabeak.²⁹

CSAM materialen ekoizpenari dagokionez ere, funtsezko zenbait eragile oso kezkatuta daude gero eta gehiagotan dokumentatzen den kasu honen aurrean: beste adingabe batzuek, baita senide eta gertuko lagunek ere, modu aktiboan parte hartzen dute askotan horrelako materialaren ekoizpenean. Askotariko bitartekoak erabil ditzakete horrelako irudiak edo bideoak ekoizteko, hala nola hertsapena, mehatxuak edo presioak; horrez gain, aurrez partekatutako irudiak zabaltzeko, baimenik gabe (baimenik gabeko *sextinga*). Zenbait kasutan, gainera, parekoen arteko sexu-harremanak grabatzen eta partekatzen dira, baimenik gabe, edota zuzeneko sexu-erasoak ere bai, eta ikus-

28 Insoll, T., Ovaska, A., & Vaaranen-Valkonen, N. (2021). *ReDirection Survey Report: CSAM users in the Dark Web – Protecting children through prevention*. Protect Children.

29 Grant, H. (2025, 5 de abril). “I didn’t start out wanting to see kids”: Are porn algorithms feeding a generation of paedophiles – or creating one? The Guardian.

entzunezko formatuan erregistratzen dira gero. Maiz, indarkeria, esposizio digitala eta eragindako kaltearen neurriaren kontzientzia falta batzen dira dinamika horietan.

“Guru buruan, beti pertsona heldu bat irudikatzen dugu, edo haur edo nerabe baten lekua hartzen duen norbait. Baina ez da beti hala izaten; adingabeak izan daitezke. Kasu batzuetan, senide batzuek beren senide gazteagoak erabiltzen dituzte horrelako eduki eta materialak sortzeko” —sexu-esplotazioan aditua

Agerian jartzen du fenomeno horrek premiazkoa dela hezkuntzan eta berreziketan oinarritutako prebentzio-politikak eta esku-hartzeak diseinatzea, gure ikuspegia haurrengan jarrita, betiere.

“Izugarri hazi da arazoa, esponentzialki. Gora eta gora ari da. Duela urte batzuk, batez besteko adina 17 urtekoa zen, eta orain 14, 13 edota 12 urtekoak ari dira horretan”

—haurren eta nerabeen eskubide digitaletan aditua

Izan al dezake eraginik pornografiaren kontsumoak?

Eztabaidak sortzen ditu oraindik ere pornografiaren eta sexu-abusu eta -esplotazio moduen arteko erlazioak. Dena den, zenbait ikerketak eta funtsezko eragilek diotenez, pornografiaren kontsumoa aintzat hartzekoa da CSAM materialen ikustea aztertzerakoan, batez ere kontsumo goiztiarrari edota indarkeriazko edukien kontsumoari dagokienez. The Guardian egunkarian argitaratutako artikuluak dio CSAM materiala eduki edo ikusteagatik atxilotutako gizon batzuek, beren ibilbidearen berri ematerakoan, “legezko” pornografiaren gehiegizko kontsumoaren bidez iritsi zirela horra azaldu zutela, eta gero eta eduki larriagoetara jo zutela pixkana, webgune pornografikoetako gomendio eta algoritmoek jarraiki.

Zenbait lanek ebidentziak ere eman dituzte: helduen pornografiarekiko esposizio goiztiarrak pixkana sentsibilizazioa galtzea ekar dezake, eta gero eta muturrekoagoak diren edo are legez kanpokoak diren edukietara jotzen lagundu dezake. Ildo horretatik, *Protect Children* proiektuan, pornografiaren erabilera trinkoa “faktore bideratzaile” gisa deskribatzen da: argi erakutsi zen adin goiztiarretan helduentzako legezko pornografia ikusten hasi zirela horietako batzuk, eta, denboraren joanean, gero eta muturrekoagoa zen materiala kontsumitzen hasi zirela, eduki horrekiko sentsibilizazioa galdu ahala. Bestalde, agerian geratu da CSAM materiala eskuratzen dutenek maizago ikusten dutela helduen pornografia eta, horrez gain, horrelakoak ikusten ez dituztenek baino maizago kontsumitzen dituztela indarkeria handiagoko edukiak, muturrekoagoak edo legez kanpokoak.³⁰

Haurrak babesten lan egiten duten adituek ohartarazi dutenez, indarkeriazko pornografia modu masiboan eskuragarri egoteak kontsumitzaileek sentsibilizazioa galtzea eragin dezake, bai eta esparru horretan horiek gora egitea ere, eta aintzat hartu behar da indarkeria modu hori gero eta tabu sozial gehiago hausten ari dela, eta haurrak babesten zituztela tabu horiek, hain zuzen. Aurretik egindako txosten batean,³¹ ikusi genuen jada pornografiaren kontsumoak eragina duela nerabeen sexu-desiraren eraikuntzan eta sexu-praktiketan, eta onartzen zuten eragin hori neska-mutilek eurek ere; horrez gain, kontsumo horrek sexu-harremanetan izan daitezkeen indarkeriaren, desoreken eta jarduera arriskutsuen pertzepzioan eragin zezakeela ikusi genuen.

“Material horren kontsumoak mendekotasuna eragin dezake, bai eta gero eta eduki gogorragoak bilatu nahi izatea ere”

—psikologiaren eta kriminologiaren arloetako profesionala

30 Salter, M., Zajdow, R., & Salter, R. (2024). *Understanding the relationship between adult pornography consumption and child sexual abuse material (CSAM) offending: A review of emerging evidence*. *Child Abuse & Neglect*, 150, 106472.

31 Save the Children (2020). Sexu-(des)informazioa: pornografia eta nerabezaroa.

6. Arrisku-faktoreak

Ingurunedigitalekoerasotzaileiburuzneska-mutilekdituzteniritziakaztertugenuenean, ikusi genuen nola erdiak baino zerbait gutxiagok (%44,9) horiek “zaugarrienei” soilik egiten zietela eraso uste zuela. Baina nola zehazten da zaugarritasun hori? Atal honetan, haurren sexu-esplotazio digitala askotariko desorekez eta faktore indibidual, sozial eta kultural ez elikatzen dela ikusiko dugu, eta ezin dela biktimaren profil bakarra identifikatu ondorioztatuko dugu.

6.1. Teknologien erabilerarekin lotutako faktoreak

Teknologien erabilera intentsiboa. Interneten zenbat eta denbora gehiago pasatu, esposizio handiagoa eta, beraz, biktimizazio-arrisku handiagoa, are gehiago ez baditugu babes-tresna egokiak. Gai horri lotuta, Interpolek emandako datuek argi erakutsi zuten COVID-19aren pandemian ugaritu egin zirela Internet bidez haurren aurkako sexu-abusu eta -esplotazioarekin lotutako jarduerak.³²

Hezkuntza digital urria eta ondoan inor ez izatea laguntzeko. Zibersegurtasunean, pribatutasunean eta arrisku-egoeren ezagutza behar besteko prestakuntza ez izateak halako segurtasun-sentipen faltsu bat indartzen du, eta horrek ohiko gizarte-oztopoak murriztu ditzake, gehiegizko konfiantza susta dezake, eta alerta-mekanismoak desaktiba ditzake hainbat arriskuren aurrean, ezezagunekiko harreman edo eskaeren kasuan, esaterako. Bai horrek eta bai hezkuntza afektibo eta sexuarekin prestakuntza txikia izateak gure burua babesteko gaitasuna mugatzen du, bai eta abusuarekin lotutako jokabideak ezagutzeko edota gure burua biktima gisa identifikatzeko gaitasuna ere. Inkestan, sexu-esplotazio digitala zertan datzan galdetuta, gutxiago zekiten horri buruz biktimen taldean (%36) biktima ez zirenen taldean baino (%74,5), eta, beraz, horrek erakusten digu informazio falta arrisku-faktore izan daitekeela horrelako egoeretan. Gainera, sexu-esplotazioko egoera bati aurre egin ziotenetatik %48 gurasoek gainbegiratu gabe aritu ziren beren jarduera digitalean, eta, aldiz, horrelako egoeren biktima izan ez zirenen artean, gurasoek gainbegiratu gabe jardun zutenak %33,7 izan ziren.

“Zenbat eta txikiagoak izan, arrisku handiagoa, are gehiago tresnak egoki erabiltzeko gurasoen edo beste norbaiten laguntza ez badute” —sexu-esplotazioan aditua

Telefono mugikorra erabiltzen hasi zirenean zaintzaileen begiradapean edo lagunduta aritzen ziren ere galdetu zitzairen: lagineko hiru gaztetatik batek esan zuen gurasoek edo zaintzaileek ez zutela interes handirik jarri horretan, edo ez zutela haren jarduera digitala

32 INTERPOL. (2020). Riesgos y tendencias en relación con el abuso y la explotación sexual de menores: repercusiones de la COVID-19.

gainbegiratu. Zehazki, sexu-esplotazioaren biktimen taldean gailuen erabilerari eta helduen begiradapean aritzeari buruz eman zituzten datuak aztertzean, hauxe ikusten da: sexu-esplotazioko egoerei aurre egin behar izan zieten artean, %48 ez ziren aritu gurasoen begiradapean edota ez zieten interesik erakutsi beren jarduera digitalean, eta biktima ez zirenen artean, aldiz, %33,7 izan ziren gurasoen interesik gabe aritu zirenak.

Pribatutasun negoziagarria eta kontrolaren pertzepzio faltsua. Aldi berean identitate fisiko bat eta identitate digital bat garatuz hazten dira haurrak aro digitalean, eta oso lausoa da publikoa denaren eta pribatua denaren arteko lerroa; pribatutasuna ulertzeko eta esposizio digitala kudeatzeko modu desberdina ekarri du horrek. Alde batetik, sare sozialak esposizioan, kanpoko balioespenaren bilaketan eta beste batzuen bizitza pribatuan sartzean oinarritzen dira. Bestalde, “truke-txanpo” gisa ulertzen da pribatutasuna lagunartean edo bikote-harremanetan, eta pasahitzak edo argazki intimoak partekatzea konfiantza-seinaletzat, konpromisotzat edo maitasunaren adierazletzat hartzen da. Informazioa partekatu ondoren kontrolatzea zaila dela jabetzen badira ere, ez dute beti arriskutsutzat jotzen hori, are gutxiago euren ustez konfiantzazkoak diren testuinguruetan. Jokabide horiek zer ondorio izan ditzaketen ez jakiteak zaildu egiten du hurrek arrisku-egoerak edo abusu-egoerak identifikatzea, eta horrelako egoerak hautematen dituztenean ere, beren burua arriskuan jarri dutelako izan dezaketen lotsa-sentimenduak, erruak edo epaituak izateko beldurrak eragotzi egiten diete laguntza eskatzea edo gertatutakoa kontatzea. Familiari huts egiteko beldurrak edo ingurukoen iseken beldurrak zaildu egiten dute, baita ere, laguntza bilatzea, are gehiago mutilen kasuan.

“Ezin duzu irudia kontrolatu, ez da ezer segurua” —neska nerabea

Inkestaren azterketak argi erakutsi du zer arrisku duen informazio pertsonala partekatzeak: galderei erantzun zieten gazteen %35ek onartu zuen Interneten informazio pertsonala partekatu zuela adingabea zenean, baina datu hau nabarmendu da: sexu-esplotazio digitalaren biktima guztiek partekatu zuten informazio pertsonala edo intimoa Interneten haurrak edo nerabeak zirela, baina kopuru hori %33,8ra murriztu zen biktima izan ez zirenen taldean.

“Nerabeek ez dute ikusten pribatutasuna urratu ezin den zerbait bezala, negoziatzen daitekeen zerbait bezala baizik”

—sexu-indarkeria digitalean espezializatutako legelaria

5. taula. **Interneten partekatutako informazio pertsonala.**

	%
Nire izen osoa	% 25,5
Nire helbidea	% 14,6
Telefono-zenbakiak	% 20,0
Pasahitzak	% 14,4
Argazki pertsonalak	% 24,0
Bideo pertsonalak	% 22,5
Familiari edo lagunei buruzko informazioa	% 18,0
Denbora errealeko kokapena edo nire ohiko tokiak	% 19,0
Nire eskolari edo ikastetxeari buruzko datuak	% 18,5
Nire gustuak, zaletasunak edo eguneroko ohiturak	% 24,3
Informazio finantzarioa (txartelei edo kontuei buruzko datuak)	% 13,3
Elkarriketa pribatuak (mezuak, txatak)	% 18,3

Ildo horretatik, funtsezkoa da aro digital honetan zenbait kontzeptu nola lantzen diren birpentsatzea, adostasuna, pribatutasuna edo askatasuna, esaterako. Ezin dira aldatu esfera fisikotik digitalera, bestelako ñabardurarik eman gabe, eta ezin dira logika helduzentrista batetik aplikatu, ezta ere.

“Internetekin jaio dira belaunaldi berriak, baina, bitxia bada ere, behin eta berriro erortzen dira tranpan. Biktima errazak dira, ez baitituzte hartzen horrelako jarduerak saihesteko beharrezkoak diren neurriak. Kontzientziatu egin behar da, eta hezi” —segurtasun-indar eta -kidegoak

Ingurune digitaleko desinhibizioa

Ingurune digitalak ez ditu errepikatzen mundu fisikoko jokabideak soilik; horrez gain, aldatu egiten ditu pertsonen eta batez ere haur eta nerabeek jokatzeko, adierazteko eta harremanak izateko dituzten moduak; aurrez aurrekoan nekez hartuko genituzkeen jokabideak ere sustatzen ditu. Horixe berretsi du “Internet eta sare sozialen erabileraren onurak eta arriskuak”³³ txostenak, agiri horretako datuek diotenez, 25 urtetik beherakoen arteko %60k onartzen baitu bizitza errealean ez bezala jokatzeko duela linean. Desinhibizio horrek dimentsio positibo bat ere izan dezake, nork bere burua adierazteko duen gaitasuna sustatuz, esaterako; baina izan dezake alde negatiborik ere, jokabide arriskutsuak edo oldarkorrak izatea errazten baitu.

Desinhibizioarekin lotutako ingurune digitaleko zenbait elementuren artean, hauek ditugu: anonimatua, zigorgabetasun-sentipena indartu dezakeena; distantzia fisikoa eta emozionala, enpatia eta erantzukizun-sentimendua murrizten dituenak; despersonalizazioa edo gizatasuna galtzea, beste erabiltzaileak benetako pertsonak direla ez jabetzearekin lotuta; eta ingurune digitala ez dela “bizitza erreala” pentsatzea, eta, beraz, arauak ez hartzea horren garrantzitsutzat. Oldarkortasuna erantsi behar zaio horri, komunikazioa berehalakoa izateak sustatuta, gogoeta zailtzen duen neurrian; bai eta sare sozialetan arreta erakarri nahi izatea eta besteen balioespena bilatzea ere.

“Institutu batera joaten naizenean, neskato bati zera galdetzen diot, ea duela 5 minutu ezagutu duen pertsona heldu batek une horretan argazki iradokitzaile bat eskatuko balio, zer egingo lukeen, eta den-denek ez lioketela emango esaten dute; beraz, hauxe esaten diet: zergatik da desberdina kontua Internetez egiten dutenean? Horietako askok ez dakite zer erantzun”

—segurtasun-indarrak eta -kidegoak

33 Teknologiaren eta Gizartearen Estatuko Behatokia (ONTSI). (2022). Beneficios y riesgos del uso de Internet y redes sociales. ONTSI.

6.2. Banakako faktoreak

Zaugarritasun-faktorea	Faktore eta dinamika espezifikoak	Arriskua	Kontuan hartzekoak
Ezaugarri pertsonalak	Itxura zaurgarriagoko profilak: arreta eta afektuaren beharra, autoestimu txikia, gizarteratzeko zailtasunak, babes-sare ahula, buru-osasunarekin lotutako arazoak, gizarte- edo familia-ingurune zaurgarriak edo gatazkatsuak. Profil sozial eta kanporakoiak: konfiantza, segurtasuna eta jarrera irekia erakusten dute sare sozialetan, eta kontaktu eta jarraitzaile ugari dituzte.	Ezezagunekin harremanetan jartzea, irudi intimoak trukatzeko, aurrez aurre bestearekin elkartzea onartzea. Gehiegizko esposizioa sare sozialetan, arriskuaren pertzepzio txikia.	Kasu batean zein bestean, ohikoagoa izan daiteke zenbait jokabide hartzea, hala nola ezezagunekin interakzioan aritzea, informazio edo argazki intimoak argitaratu edo bidaltzea, sexuaz hitz egitea arrotzekin, edo soilik esparru digitalean ezagutzen duten norbaitekin aurrez aurre topo egitea onartzea.
Adina	Adin goiztiarrak. Nerabezaroa eta nerabezaroaurrea onartua izateko eta zerbaiten parte izateko behar handiko etapak dira, eragin handia du parekoei taldeak, sexualitatearen esnaera da, identitatea eraikiz doa, eta arriskuaren pertzepzioa txikiagoa da.	Inguru hurbilean CSAM materiala ekoiztea: senitarteko edo konfiantzazko pertsonen sare pedofiloetan "argitaratu gabeak" direlako balio handia duten irudiak eta bideoak sortzea eta zabaltzea. Zenbait jokabide agertzen dira, ezezagunekin harremanetan jartzea, irudi intimoak trukatzeko edo sare sozialetan euren burua gehiegi erakustea, esaterako. Etapa horretan, nahi ez dituzten eskaera sexualak jasotzeko arriskua ere handiagoa da.	CSAM irudi eta bideoen ausazko lagin batetik abiatuta Interpolek 2018an egindako azterlan batek³⁴ azaldu zuenez, identifikatu gabeko biktimen % 60 pubertaro aurreko etapako haurrak ziren. Biktimaren adina zenbat eta txikiagoa, abusuaren larritasuna are handiagoa dela ondorioztatu zuen azterlanak. Inkestan lortu diren datuetan nahiko argi islatzen da ezaugarri horiek lotuta daudela Interneten sexu-edukiak trukatzera eramango dituzten motibazioekin: % 42,5ek azaldu zuen arreta edo afektua edota besteen balioespina bilatu nahi izatea zela arrazoi nagusia; % 39,5ek lagunak harrituta uztea edo lagunen begiramena lortzea eman zuen horretarako arrazoi nagusi gisa; eta % 25ek jakin-mina edo identitatearen esplorazioa azpimarratu zituzten.

34 ECPAT International & INTERPOL (2018). Summary – Towards a global indicator on unidentified victims in child sexual exploitation material. ECPAT International.

Zaugarritasun-faktorea	Faktore eta dinamika espezifikoak	Arriskua	Kontuan hartzekoak
Sexu-orientazioa eta genero-identitatea	LGTBIQ+ haur eta nerabeek arrisku espezifikoak dituzte aurrez aurre jasan ditzaketen egoerengatik, diskriminazioagatik, bakartuta egoteagatik, erreferenteak falta dituztelako, inguruneak baztertzen dituelako edo gizartean edo familian ez dituztelako onartzen. Sexu- edo genero-aniztasunari buruzko informazio egokia ez izatea. Ulertuak izateko, lagunak bilatzeko edo esplorazio sexualerako guneak bilatzea.	Arrisku- eta manipulazio-dinamikekiko esposizioa; harremanak egitea ezezagunekin. Talde batekiko kide izateko eta ulertuak izateko aukeren bilaketa tresna gisa erabil dezake helduak, bere burua aliatu edo aholkulari gisa aurkeztuz, eta adingabeak erakartzeko, abusurako eta esplotaziorako dinamikak erraztu ditzake horrek.	LGTBIQ+ nerabeek beren parekoek baino bi aldiz irudi intimo gehiago partekatzen dituzte,³⁵ beren identitatea esploratzeko edo onartuak izateko bide gisa, neurri batean; baina presio, xantaia edo manipulazio-dinamiken ondorio ere izan daiteke hori. Haurren sexu-esplotazio digitalari aurre egiteko eta horiek babesteko estrategietan ikuspegi intersektionala txertatu beharra dagoela erakusten du, argi eta garbi, errealitate horrek.
	Haur zisgenero homosexualak.	Arrisku handieneko azpitaldeetako bat dira, erasotzaileen artean nagusi direlako gizon helduak eta, horrez gain, gay haurrak hipersexualizatu egiten direlako, ingurune digitaletan batik bat.	Zis mutil ez heterosexualek azpitaldea arrisku-esperientzia ugariko azpitaldea da, eta joera handiagoa dute arrisku-egoerak bakarka kudeatzeko; horien esposizioa areagotzen du horrek, eta esku hartzeko eta babesteko aukerak murrizten ditu. ³⁶
Gabezia materialak eta afektiboak	Pobrezia- edo prekaritate-egoeretan bizi diren haurrak.	Ase gabe dituzten beharrez (janaria, arropa, etxea, hezkuntza-baliabideetarako sarbidea) baliatzen dira erasotzaileak, eta haborokin ekonomikoak eskaintzen dizkiete eduki sexualizatuen truke.	Gabezia materialek halako eragin espezifiko batzuk izan ditzakete sareko "autoesposizioarekin" lotutako hainbat dinamikan, hala nola OnlyFans sarean, edo <i>sugardating</i> webguneetan (hurrengo batean helduko diogu fenomeno horri).
	Emozioen eta gizartearen ikuspegitik zerbaiten parte izateko beharra.	Babes afektibo eskasak edota baztertuak izateak eta lehenbailehen onartuak sentitzeko larritasunak arrisku-egoeretan jar ditzakete.	

35 Thorn (2022). Self-Generated Child Sexual Abuse Material: Youth Attitudes and Experiences in 2021.

36 Ibid.

“Oso adin goiztiarretako haurrak, 3 hilabeteko haurtxoetatik 3 urtera bitartekoak, ageri dituzten eduki asko daude, oso larriak, bihotza urratzen dizutenak. Baita 3 urtetik nerabezaroaurrera bitarteko haurrenak ere, ez dituztelako nahi izaten gorputza erabat osatua dutenak; eta, gero, jada gorputza garatua duten nerabeak” —segurtasun-indar eta -kidegoak

“Zerbaiten parte izateko zenbat eta behar handiagoa eta zenbat eta behar ekonomiko handiagoa, zaurgarriagoa zara horrelako esplotazioekiko” —sexu-indarkeria digitaletan espezializatutako legelaria

Generoaren eragina

Sexu-esplotazioan, arriskuak eta dinamikak baldintzatzen ditu generoak. Sexu-indarkeria modu guztietan, oso ordezkartza handia dute neskek, gehiegizkoa, baina garrantzitsua da argi esatea mutilak ere badirela biktima, batez ere ingurune digitalean.

Egin den inkestan, ez da aurkitu estatistikoki alde esanguratsurik sexu-esplotazioaren biktimen generoari dagokionez: nesken %2,1 inguru, eta mutilen %2,6. Espainian, Barne Ministerioak *grooming*aren esparruan erregistratu zituen 525 biktimetatik %65,5 neskatoak eta neska nerabeak ziren, baina, 2022. urteko datuekin alderatuta, mutikoen eta mutil nerabeen gorakada nabarmendu zuen, orduko hartan %75 baitziren neskak. CSAM materialen esparruan, Interpolen azterketak³⁷ ondorioztatu zuen erakutsitako biktimen %65 neskatoak zirela, %31 mutikoak, eta %4tan biak ageri ziren; horrez gain, mutikoak erakusten zirenean, abusua larriagoa zen normalean.

Aurreko ataletan azaldu dugunez, haur eta nerabeengana hurbiltzeko eta horiek erakartzeko moduak ere aldatu egiten dira biktimaren generoaren arabera. Oro har, joera handiagoa dago mutikoen artean aurrez aurre topo egiteko, jakin-minak edo esperimentatzeko gogoak bultzatuta askotan, eta ingurune digitaletik kanpo sexu-erasoak jasateko arrisku handiagoa dakarkie horrek. Aldiz, neskatoek harremanetan jartzeko eskaera gehiago jaso ohi dituzte, eta eduki intimo edo sexualak bidaltzeko edo trukatzeko prestasun handiagoa ageri ohi dute, horrek fisikoki harremanetan jarri beharrik ekarri gabe.

37 ECPAT International & INTERPOL. (2018).

Garrantzitsua da, gainera, argi ulertzea sozializazio maskulino tradizionalak oztopo handiak jartzen dituela haur eta nerabe mutilek sexu-indarkeriako egoerak ezagut ditzaten edota adieraz ditzaten. Oso txikitatik, beren emozioei eusten ikasten dute, beren burua zaurgarri ez agertzen eta laguntzarik ez eskatzen; eta hauspoa ematen dio uste faltsu bati: sexu-biktimizazioa ez da bateragarria maskulinitasunarekin. Sexu-esplotazioko egoera jakin batzuk normalizatzen dituzten neskek, erlazio afektibo baten zati direla sinetsita; bada, modu bertsuan, mutilak bizitakoa ukatu edo minimizatzea irits daitezke, eta eragozpen bihurtu daiteke hori beren burua biktima gisa ikusteko edota laguntza eta erreparazioa jasotzeko.³⁸ Ikuspegi horretatik, kalte sexualaren larritasuna erlatibizatu zuten lantegiko mutilek, eurei halakorik gertatuz gero zer egingo zuketean galdetu zitzaientean, eta kezka handiagoa eragiten zieten ondorio sozialek (burlek edo barregarri geratzeak, esaterako) ondorio emozional edo sexuak baino.

“Osagai sexualak tartean sartzen direnean, neskek presio handiagoa jasaten dute irudi intimoak bidaltzeko, eta, aldi berean, sozialki zigor handiagoak dagozkie hori egiteagatik; historikoki izan diren moral bikoitzeko ereduak errepikatzen dira, beraz, Internetek bultzatuta orain”

—psikologiaren eta kriminologiaren arloko profesionala

“Guri halakorik gertatuz gero, burla eta barre egingo ligukete, eta neska balitz, urdanga deituko liokete” —mutil nerabea

6.3. Genero-aginduak

Sexu-indarkeria eragiten duten pertsona gehien-gehienak gizonetakoak dira, bai ingurune digitalean eta bai hortik kanpo, eta argi erakusten du horrek indarkeria horien egiturazko dimentsioa. Genero-aginduek eta hipersexualizazioak, hezkuntzaren, komunikabideen eta sare sozialen bidez barneratu ditugun agindu horiek, baldintzatu egiten dituzte

38 Pereda, N., Águila-Otero, A., Codina, M., & Cabrera, M. (2022). Guía común de actuación para la detección, notificación y derivación de casos de explotación sexual contra la infancia en centros residenciales, con especial atención a niñas y adolescentes. Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritza.

haurren eta nerabeen harremanak, beren burua ikusteko modua eta Interneten beren burua erakusteko modua. Horregatik, askotan sare sozialetan dituzten interakzioak sozialki eta genero-espektatibak kontuan hartuta euren artean espero dena betetzeko ahaleginaren emaitza dira, eta ez euren desiren emaitza.

“Dinamika horiek areagotu egiten ditu ingurune birtualak, distantziari eta despersonalizazioari esker, berezko hipersexualizazio-testuinguru horretan, eta, horren eraginez, nerabe askok beren benetako nahiari erantzuten ez dioten jokabideak hartzen dituzte, presionatuta”

—sexu-indarkerian espezializatutako legelaria

Horrela, Interneten eta sare sozialetan bereziki, sistema patriarkalaren logikak errepikatzen eta areagotzen dira, eta hierarkiak, ordezkaritza sexistak eta botere-harreman desorekatuak betikotzen ditu horrek; aurreko hainbat azterketatan ere ikusi denez, modu desberdinean eragiten diete horiek mutilei eta neskei.³⁹ Sare sozialen erabileran ere generoaren arabera aldeak daudela diote neskek eta mutilek, irudiei eta gorputzei erreparatuta bereziki: neskek diote gizonezkoen begiradak sexualizatu egin ohi dituela haien irudiak, baita halako asmorik ez duten irudiak badira ere, eta are argiago ikusten da bai botere-desoreka eta bai LGTBI+ pertsonen zaurgarritasuna. Bien bitartean, neskek eduki “iradokitzaileagoak” partekatzen dituztela diote, eta presio handiagoa jasaten dutela; baina ez dute horrenbeste sakondu ez eragin emozionalean eta ez euren ospean.

“Mutilak gai dira argazki xalo bat ikusi eta zerbait sexual bihurtzeko, eta uste dut neska gehienek ez dutela halakorik egiten” —neska nerabea

6.4. Haurren sexualizazioa

Haurrak gero eta sexualizatuago ageri dira gunee digitaletan. Kezka eragiten du fenomeno horrek, eta gero eta normalizatuago dago; gero eta adin goiztiarragoetan, helduen sexualitatearekin lotutako jarrerak, adierazpenak edo balioak hartzen dituzte, eta hainbat modutara agertzen da fenomeno hori: sareetan gorputza erakutsiz, keinu eta estetika sexualizatuak erreproduzitzen, edota pentsatuz norberaren balioa itxura fisikoaren mende dagoela.

39 Save the Children (2024). Desinformazioa eta gorroto-diskurtsoa ingurune digitalean.

“Neskato eta mutikoen gorputzaren kosifikazioa da; esaterako, 6 urterekin ume bat bere burua makillatzen erakusten duten bideoak; edo 12 urterekin, 22ko baten gorputza izan behar duzu. Irudiarekin, gimnasia joatearekin eta horrelakoekin obsesionatuta dauden haurrak ere badira...”

—psikologiaren eta kriminologiaren arloetako profesionala

Jokabide horiek erreferente digitalak imitatuz ikasten dira askotan, edo profiletan gorputza gehien erakusten dutenak saritzen dituzten plataformetako algoritmoek bultzatuak dira. Arrisku-egoerak eragin ditzakete askotan, norbaitek atzitzea, esaterako; izan ere, lehen ere ikusi dugunez, norberak sortutako irudien gehiegizko esposizio horretaz baliatzen dira erasotzaileak askotan haur eta nerabeengana hurbiltzeko, xantaia egiteko edo horiek hertsatzeko. Haurren sexualizazioa normalizatzearen ondorioz, gainera, jokabide horietako asko espero izatekoak diren jokabide gisa edo naturalizat hartzen dira, eta halakoak zalantzan jartzea edo arrisku-faktore direla ohartzea zailtzen dute.

“Haurren garapenean eta bilakaeran funtsezkoa den zerbaiti eragiten dioten jokabideak ezartzen dizkiegu haurrei, haien bilakaera normalerako gaitasuna errespetatu gabe”

—justiziaren esparruko profesionala

Arrisku-faktoreak eta abusuzko jokabideak

Haurren zaugarritasuna areagotzen duten faktoreek eurek abusuzko jokabideak izatea erraztu dezakete. Interneten horren goiz eta inork gainbegiratu gabe sartzeak eta deskonexio emozionalak, desinhibizio digitalak eta eduki desagokiekiko esposizioak desitxuratu egin dezakete baimenaren eta harreman afektibo eta sexualen ulermena. Horrek guztiak, eta anonimotasunak ematen duen babes-sentipenak, baita ere, indarkeriazko edo delituzko jokaerak hartzea eragin dezakete, egin dezaketen kalteaz jabetu gabe askotan; horrek rolak alderantzikatzea ekar dezake, aldi berean, indarkeriaren edo esposizio sexualaren biktima izan direnek halako jokabideak hartu baititzakete beren parekoekin, pertzepzio faltsu batekin, batzuetan: baimena dutela edo jolasean ari direla pentsatuta.

Ingurune digitalaren gero eta sexualizazio handiagoak, harreman desorekatuen ereduak sustatzeak eta kaltegarriak diren edukietan (pornografian, esaterako) sarbidea izateak fenomeno hori indartzen lagundu dezakete. Gazteen justiziaren esparruan, kezka handia piztu du honako gai honek: asko ugaritu dira erasotzaileak nerabeak diren kasuak, bai eta delitua egiteko bide gisa sare sozialak, mezularitza-taldeak edota lineako bideo-plataformak erabili dituztenak ere. Parekoen arteko indarkeria horrek erronka espezifiko jakin batzuk planteatzen dizkie babes- eta justizia-sistemei, orekari eutsiz erantzun behar baitiote garapen ebolutibo horren konplexutasunari, berrezi beharra eta haurraren oinarritutako ikuspegia ere kontuan hartuta.

7. Sexu-esplotazio digitalaren ondorioak biktima izan diren haurrengan eta nerabeengan

Sexu-esplotazio digitalak indarkeria mota ugari hartzen ditu barnean, eta inpaktu edo eragin sakonak sortzen dituzte biktima izan diren haurren eta nerabeen garapen integralean; are larriagoak dira, gainera, ingurune digitalek edukiak hedatzeko eta luzaro irauteko duten ahalmenaren ondorioz. Ondorio horiek hainbat urtez eta hamarkadaz iraun dezakete, eta helduaroan eragin diezaiekete.

Eragin emozionala	Beldurra, lotsa, errua, antsietatea edo ezintasuna nabarmentzen dira. Gerta daiteke gertatutakoa ez ulertzea eta nahasmena sentitzea, edo normaltzat jotzea, batez ere manipulazioa egon bada.
	Bere burua erruduntzat jotzea, elkartrukea onartzeagatik edo borondatez parte hartzeagatik; aldi berean, lotsa, epaituak izateko beldurra eta ingurukoek gertatutakoa jakiteko beldurra indartzen ditu horrek.
Ondorioak portaeran	Uzkurtasuna, suminkortasuna, bakartze soziala, oldarkortasuna, nork bere burua zauritzeko jokabideak edo ideia suizidak. ⁴⁰ Beste ondorio batzuk errendimendu akademikoa murriztea, eskola-absentismoa eta kontzentratzeko zailtasunak dira.
	Substantzien kontsumoa ager daiteke, ihes-mekanismo gisa edo min emozionala kudeatzeko mekanismo gisa.

40 Medrano, J. L. J., López Rosales, F., & Gámez-Guadix, M. (2018). Assessing the links of sexting, cyber victimization, depression, and suicidal ideation among university students. *Archives of Suicide Research*, 22(1), 153–164.

Eragin psikologikoa	Antsietate orokorra, depresioa, trauma osteko estresaren nahasmendua, loaren nahasmenduak eta elikadura nahasmenduak dira ondorio ohikoenak. Biktima askok gatazkak izaten dituzte beren irudiarekin eta autoestimuekin, batez ere manipulazioa egon denean, eta horrek eragina du haien identitatearen garapenean. Ondorio larrienen artean, disoziazioa eta shock emozionala daude. Sintoma horiek kroniko bihurtzen dira esku-hartze espezializaturik jaso ezean, eta, beraz, epe luzera nortasunaren nahasmenduak gerta daitezke. Zeharkako hainbat azterlanek lotura esanguratsua ezarri dute haurren aurkako sexu-abusuaren eta helduaroako jokabide suiziden artean, behin eta berriz errepikatzen den biktimizazio luzeko testuinguruetan bereziki, sexu-esplotazio digitala gertatzen denean, adibidez. ⁴¹
Ondorio fisikoak	Traumaren ondoriozko estres kronikoa somatizazio moduan ager daiteke, hala nola min iraunkorrak, digestio-nahasmenduak edo gaixotasun autoimmuneak; horrelakoak askotan dokumentatu dira sexu-indarkeriaren biktimetan.
Gizarte-mailako eragina	Sozializatzeko zailtasunak: besteeiko mesfidantza, harremanetarako zailtasunak (mendekotasun emozionala, harreman intimoak saihestea, beldurra edo lotura afektiboak ezartzeko ezintasuna), uzkurtasuna edo isolamendua, harreman afektibo osasuntsu eta iraunkorren garapena oztopatzen dutenak. ⁴² Eduki intimoaren zirkulazioak eragina izan dezake bizitzaren ibilbidean: ingurune berrietan (lanekoak, akademikoak edo pertsonalak) ezagutzeko edo azaleratzeko aukerak beldurra, autozentsura eta aukerak mugatzea eragiten du.
Garapen sexuala	Disfuntzio sexualak ager daitezke: kontaktu fisikoa saihestea edo higuina sentitzea; hiperaktibitate sexuala, erantzun traumatiko gisa; babesik gabeko sexu-harremanak izateko arrisku handiagoa, etab. ⁴³ Beste ondorio kezkagarri bat abusuaren erreproduktzioa da, biktima bihurtuz berriro edo, kasu batzuetan, erasotzaile bihurtuz, erreparazio emozionalik gertatu ez den edo laguntza-baliabiderik izan ez den testuinguruetan.

Abusu eta esplotazio horren hedapen digitalak inpaktu espezifikoa eta larriagoa eragiten du: zaurgarritasun kronikoa eta norberaren intimitatearen gaineko kontrola galtzea, eta horrek hainbat ondorio ditu, hala nola beldurra, antsietatea, disoziazioa edo norberaren identitatea ukatzea. Gainera, abusu-esperientziaren berri ematearen pribatutasuna ezabatzen du, agerian gelditu baita. Materialaren iraupenak eta berriro agertzeko aukerak prozesua emozionalki ixtea eragozten dute, eta horrek etengabeko biktimizazioa dakar.

“irudiak Internet bidez zabaltzeak lotsa sentimendua eragiten du lehenik, eta, ondoren, denboran aurrera egin ahala, zaurgarri sentitzen da etengabe eta behin eta berriz (irudiak gertatutakoen adierazpen nabarmena dira)”

—sexu-esplotazioan aditua

41 Putnam, F. W. (2003). Ten-year research update review: Child sexual abuse. *Journal of the American Academy of Child & Adolescent Psychiatry*, 42(3), 269–278.

42 Hailes, H. P., Yu, R., Danese, A., & Fazel, S. (2019). Long-term outcomes of childhood sexual abuse: An umbrella review. *The Lancet Psychiatry*, 6(10), 830–839.

43 World Health Organization. (2017). Responding to children and adolescents who have been sexually abused: WHO clinical guidelines.

“Ondorio larriagoa du, biktimizazioa ez baita amaitzen, materialak zirkulatu egiten du eta ez dakizu nork duen sarbidea; beraz, ziurgabetasuna elementu bereizgarria da. Edukia nork ikusiko duen edo nork izango duen pentsatzen dute behin eta berriro biktima horiek”

—haurren aurkako sexu-indarkerian espezializatutako auzitegiko psikologoa

7.1. Inpaktuan eragina duten faktoreak

Inpaktu horiek nabarmen aldatu daitezke funtsezko hainbat faktoreren arabera:

- » **Biktimizazio-uneko adina:** eragin erabakigarria du indarkeria ulertzeko eta prozesatzeko garaian. Haur txikienean, gertatutakoa erabat ulertu ez arren, inpaktusakonak jasan ditzakete berengarapen emozionalean eta neurologikoan. Bestalde, nerabeek, identitatea eraikitzen ari direnek eta gizartean onartzeko behar handia dutenek, larritasun, erru eta beldur handia jasan dezakete, batez ere eduki intimoa zabaltzeko aukeraren aurrean.
- » **Esplotazioaren iraupena eta larritasuna:** iraunkorra denean edo materialaren zirkulazio luzea dakarrenean bereziki, trauma areagotzen da eta biktimengan kontrola galtzearen sententzia indartzen da.
- » **Generoa:** haurrek hainbat modutan esperimentatu eta adieraz dezakete mina, genero-estereotipoek eraginda. Sexu-esplotazioaren inpaktu emozionala handiagoa da nesken, ⁴⁴ eta mutilen, berriz, oztopo handiagoei aurre egin behar izaten diete biktimizazioa hitzez adierazteko, maskulinitasunari lotutako gizarte-arauen ondorioz. Desberdintasun horiek faktore soziokulturei eta sexualitatearekiko eta pribatutasunarekiko generoak sozializatzeko moduei egotz dakizkieke.
- » **Ezaugarri pertsonalak:** norberaren erresilientzia, autoestimua, aurretiazko trebetasun emozionalak, aurre egiteko gaitasuna edo aurreko esperientziak.
- » **Faktore sozialak, kulturalak eta instituzionalak:** biktimizazio instituzional errepikakorrek edo familiaren eta eskura dauden baliabideen laguntza egokirik ezak asko zaildu dezake osabide-prozesua. Aitzitik, familiak enpatiaz eta lagunduz erantzuten duenean, haurraren esperientziari balioa emanez eta haren kontakizuna sinetsiz, funtsezko babes-ingurune bat sortzen da, eta funtsezko faktorea da hori epe luzeko osasun mentaleko nahasmenduei aurre egin ahal izateko, osabide egonkorragoa eta positiboagoa errazten baitu. ⁴⁵

44 Fundación Mutua Madrileñaren txostenaren arabera, nesken % 54,5ek eragin handia edo oso handia izan zuen eduki intimoa zabaltzeko xantaiaren aurrean, eta mutilen kasuan, berriz, ehuneko hori % 32,4koa da.

45 Ullman, S. E. (2003). Social reactions to child sexual abuse disclosures: A critical review. *Journal of Child Sexual Abuse*, 12(1), 89–121.

Baliabide espezializatueterako sarbide goiztiarra eta egokia funtsezkoa da gertatutakoa modu seguruan eta laguntza profesionalarekin prozesatu ahal izateko.

“Epaitzen ez duen ingurune ulerkor batek osabidea errazten du, eta estigmatizazioak, berriz, kaltea larriagotzen du”

—haurren aurkako sexu-indarkerian espezializatutako auzitegiko psikologoa

Gizarte-mailan, ordea, oraindik ere indarkeria mota horiek pairatzen dituztenak erantzule egiteko joera dago, batez ere irudiak trukatzeko aktiboki parte hartu dutenean, eta horrek zaildu egiten du kasu horiek sexu-erasotzat hartzea.

Alde horretatik, inkestan galdetu zen ea nor jotzen zuten adingabe batek Interneten eduki intimo edo sexuala saltzearen erantzulezat. Erantzun gehienak arabera, erantzuleak edukia erosten duen pertsona (%65,9), gurasoak (%62,9) edo plataforma digitalak (%60,1) diren arren, adierazgarria da inkestari erantzion dioten pertsonen ia %60k (%59,5) adingabeari berari ere egoztearen erantzukizuna, joera hori agerian utziz.

“Oso zaila da salaketa horiek hartzea, lotsagatik eta baimena eman izanaren sentsazioagatik; adingabeak direnez, ez da onargarria, baina baldintzatu egiten ditu. Askotan gurasoek behartzen dituzte, haur eta nerabeek horretarako gogorik erakutsi ez badute ere” —segurtasun-indar eta -kidegoak

Erantzukizuna zehazteko orduan, neska-mutil nerabeek testuinguruaren eta irudiak bidaltzeko asmoaren arabera bereizten dute. Horrela, edukia konfiantzazko norbaitekin partekatzen denean, konfiantza hori traizionatuz zabaltzen duenari egozten zaio erantzukizun handiena.

“Beste pertsonarengan konfiantza duzu, eta gero liskarrak sortzen badira, pertsona horrek traizio egiten dizu” —mutil nerabea

Manipulazioa edo engainua gertatzen den kasuetan ere, erantzukizun nagusia erasotzaileari egozten zaio, baina haurrari ere esleitzen diote erantzukizunaren zati bat, arriskua bere gain hartu duelako eta bidalketan parte hartu duelako. Irudiak lapurtu badira, adingabearen erantzukizunik eza dakar horrek. Aldiz, onura bat gertatzen dela uste duten kasuetan, erantzukizun handiagoa esleitzen diote material hori partekatu duen haurrari.

“Konfiantzazko norbait denean, traizioa dago, baina saltzen baduzu edo zapatila batzuegatik trukutzen baduzu, erantzulea zara, interesagatik egiten duzulako” —neska nerabea

Bestalde, uste dute haurrak izan dezakeen erantzukizun-maila aldatu egiten dela adinaren arabera: 12 urterekin, erantzukizuna gurasoena da; 16 urterekin, erantzukizun pertsonalaren maila handiagoa dela uste dute.

“Argazki bat bidaltzen baduzu, beti duzu bidali izanaren ardura, nahiz eta arrisku guztiak ez ezagutu, zure barnean badakizu arriskua dagoela” —neska nerabea

Lotura traumatikoa

Haurren sexu-esplotazioarekin lotutako testuinguruetan, lotura traumatiko edo hertsatzailearen dinamika bat ezar daiteke biktimen eta esplotatzaileen artean;⁴⁶ erasotzailearekiko lotura emozional sendoak eta disfuntzionalak eratzean datza hori, batez ere abusua, manipulazio emozionala eta afektu- edo baliozkotze-adierazpenak txandakatzen diren egoeretan. Biktima den haurrak mendekotasun-, leialtasun- edo justifikazio-sentimenduak garatu ditzake erasotzailearekiko; horrek zaildu egiten du esplotazioaren izaera aitortzea eta bere burua biktima gisa identifikatzea, eta oztopo bihurtzen da salatzeke eta laguntza bilatzeko orduan.

Mendekotasun-dinamika hori bereziki konplexua da ingurune digitaletan, non etengabeko kontrola egiten den, eta lotura hori indartu egiten da *grooming*aren, xantaia emozionalaren eta sextortsioko tekniken bitartez. Gainera, sari emozionalak edo afektu-aginduak erabiltzeak indartu egiten du “harreman berezi”, “maitasun-harreman” edo “harreman afektibo” baten pertzepzio distortsionatua.

Lotura traumatikoak, bestalde, erru-, lotsa- eta beldur-sentimenduak elikatu ditzake haurrengan, eta gertatutakoaren erantzukizuna barneratzeko joera izaten dute, harreman horretan parte hartu dutelako, eta epaituak izateko edo errepresaliak jasateko beldurra izaten dute, gertatutakoa kontatzen edo azaleratzen badute. Horrek guztiak biktimek salatzea zailtzen du, eta esplotazio digitala betikotzen, isilarazten eta ikusezin bihurtzen du.

46 Pereda, N., Águila-Otero, A., Codina, M., & Cabrera, M. (2022).

8. Ikerketa, detekzioa eta lanketa: teknologien zeregin bikoitza

Sofistikazio teknologikoa gero eta handiagoa da, eta aldatu egin ditu, batetik, erakartzeko eta esplotatzeko dinamikak, eta, bestetik, agintariek horrelako kasuak detektatzeko eta ikertzeko dituzten aukerak. Teknlogiek, gainera, zeregin bikoitza dute prozesu horretan; izan ere, esplotatzaileek baliatzen dituzten abantailak eskaintzeaz gain, delitu horiek ikertzeko erabil daitezkeen aukerak eta tresnak ere planteatzen ditu, nahiz eta horien erabilerak erronka tekniko eta juridiko garrantzitsuak eskatzen dituen oraindik ere, eta batez ere CSAM edukien detekziora bideratu da.

“Interneteko datuen bolumena izugarria da. Nahiz eta legez kanpoko edukia oso ehuneko txikia izan zifra absolutuetan, ehunka mila artxiboren parekoa da egunero, eta horrek izugarri zailtzen du hura arakatzea (...) Erakundeen, herritarren eta enpresen arteko etengabeko lankidetza funtsezkoa da arazoari aurre egiteko” —segurtasun-indar eta -kidegoak

8.1. Teknologia berriak, detektatzeko eta ikertzeko oztopo

Fenomeno estatikoa izatetik urrun, sexu-esplotazio digitala aurrerapen teknologikoetara egokitzen da, erabiltzaileen pribatutasuna eta datu pertsonalak babestea bilatzen duten teknologiak erabiliz. Teknologia horiek legezko aplikazioak dituzte, baina esplotatzaileek beren helburuetarako baliatu dituzte, eta erronka garrantzitsuak eta etengabeak dira horiek eragile polizial eta judizialentzat.

- » **Enkriptatzea eta muturretik muturrerako zifratzea:** WhatsApp, Telegram, Signal eta antzeko mezularitza-aplikazioek zifratze-mota hori erabiltzen dute komunikazioen pribatutasuna babesteko. Ingurune zifratuetan, ia ezinezkoa da informazioa eskuratzea, baldin eta aldezturik ez badago erabiltzaile jakin batzuen aurkako salaketarik edo ikerketarik abian. Horrela, legez kanpoko edukiek jada ez dute sare irekietan zirkulatzen, non lehen metabilatzaile espezializatuen bidez detekta zitezkeen; orain, espazio pribatuetan ezkutatzen dira, eta sartzeko estekak baino ez dira partekatzen; horrek guztiak izugarri zailtzen du kasuak detektatzea eta frogak lortzea.
- » **Dark webaren eta TOR sarearen erabilera:** bilaketa-motor tradizionalak indexatzen ez duten Interneten zati bat da, egitura deszentralizatua duena, eta nahita diseinatuta dago ohiko bideetatik eskuragarri ez izateko: software espezifiko erabiltzea eskatzen du, TOR (The Onion Router) deritzona esaterako, eta erabiltzailearen nortasuna ezkutatzen du. Horrela, *dark weba* da CSAM edukiak modu ezkutu eta anonimoan ekoizteko eta banatzeko gune

nagusietako bat, eta esplotatzaileek eta pedofiloek elkar komunikatzeko, metodoak partekatzeko eta komunitateak sortzeko erabiltzen dute: material hori banatzeko foroak, marketplaceak eta kanalak daude *dark webean*, bereziki kezkarriak diren nitxoetan, hala nola haurtxoen edo oraindik hitz egiten ez duten haurren aurkako abusuekin lotutakoetan edo muturreko indarkeria eta tortura agertzen dituen edukiarekin lotutakoetan.⁴⁷ Halaber, biktima izan daitezkeenekin harreman anonimoa izatea errazten du, horiek erakartzeko eta zuzeneko abusu-ekintzak (*live streaming* deritzona) koordinatzeko.

“Erraza da dark webean sartzea, baina zaila da materiala partekatzen den foroetara iristea. Ezinezkoa da anonimotasuna kentzea, akatsak egiten dituztenean baino ezin da egin”

—segurtasun-indar eta -kidegoak

Ikerketa penalerako puntuitsuak

Estatuko Fiskaltza Nagusiak⁴⁸ ohartarazi duenez, zifratua gero eta integratuago dagoenez komunikazio digitalaren geruza guztietan (aplikazio mugikorak, hodeiko biltegiatzea, gailu fisikoak), biderkatu egiten dira ekintza penalerako puntuitsuak. Azken aldian egindako ikerketek erakusten dute zifratzea komunikazioaren edukia babesteko nahiz komunikazio horren existentzia bera ezkutatzeke erabiltzen dela.

Duela gutxiko adibide bat Europolek koordinatutako Chemosh Operazioa da. Operazio horren bidez, talde antolatuek haurren aurkako sexu-abusuetako materiala trukatzeko zutela jabetu ziren, enkriptatutako txaten bidez, itxura batean inolako kalterik sortzen ez duten stickerrak edo emojiak erabiliz; baina irudi horiek legeaz kanpoko edukia ezkutatzen zuten barruan. Horrelako praktikek argi erakusten dute zifratzearen erabileraren sofistikazioa gero eta handiagoa dela, eta detekzioa eta miaketa zailtzen duela horrek.⁴⁹

Teknologia horien bidez delituak ikertzeak espezializazio handiko analisi forentse digitaleko teknikak eskatzen ditu. Estatu-mailan, *dark webaren* erabilera intentsiboak ikerketa-teknika erasokorrak hedatzera eramaten ditu agintariak, eta horiek higadura eta arrisku handiagoa dakarte, hala nola foro espezializatuetan agente ezkutuak infiltratzea, frogak biltzeko xedez, betiere kontrol judizial zorrotzaren pean.

47 EUROPOL (2019) Internet Organised Crime Threat Assessment (IOCTA).

48 Estatuko Fiskaltza Nagusia. (2024). Estatuko Fiskaltza Nagusiaren memoria. 2023. urtea.

49 Europol (2019). Operation Chemosh: How encrypted chat groups exchanged emoji ‘stickers’ of child sexual abuse. Europol Newsroom.

“Txat eta zirkulu pribatu jakin batzuetan egiten da ziberzainketa, urte askotako esperientziagatik material-trukea egiten den susmoa dagoenean, eta hortik arakatzen da”

—segurtasun-indar eta -kidegoak

- » **Hodeian biltegitratzea eta esteken bidez banatzea:** “hodeiko konputazioak” aukera ematen die erabiltzaileei fitxategiak biltegitratzeko eta programak urruneko zerbitzarietan exekutatzeko, beraien gailuetan instalatu beharrik gabe;⁵⁰ horrek abantaila esanguratsuak eskaintzen ditu hainbat zerbitzutarako irisgarritasunari dagokionez, hala nola posta elektronikorako edo irudiak biltegitratzeko. Esplotatzaileek abantaila horiek baliatu dituzte CSAM edukia modu seguruan eta anonimoan banatzeko, pasahitzekin babestutako eta, askotan, zifratutako “kutxatila zibernetikoak” erabiliz. Kutxatila horiek kredentzialen trukearen bidez edo abusuzko beste material batzuen edo diruaren truke baino ez dituzte partekatzen. Fitxategiak zuzenean partekatu beharrean estekak trukatzek beren gailuetan material horren arrasto zuzenak uztea saihesten du.

Hodeiko zerbitzuen enpresa hornitzaileek, bestalde, normalean ez dute ezagutzen zer eduki gordetzen den hor, detekziorako sistema proaktiborik abiarazten ez badute, behinik behin. Bestalde, hodeian dabilen informazio-fluxu izugarriak are gehiago zailtzen du legez kanpoko fitxategiak identifikatzea. Horrez gain, zerbitzuen hornitzaileek herrialde askotan jarduten dute, eta horrek erronka legalak eta jurisdikzionalak planteatzen ditu.

“Nazioarteko lege-harmonizaziorik ezak delituaren jazarpena zailtzen du; izan ere, herrialde batean legez kanpokoa dena, beste batean legezkoa izan daiteke” —segurtasun-indar eta -kidegoak

- » **Adimen artifiziala:** AAren hedapena da haurren sexu-esplotazio digitala detektatzeko eta ikertzeko erronka konplexuenetako bat, bereziki CSAM eduki berria sortzeko erraztasunagatik. Horretarako, biktimaren irudien bolumen handia behar da, hainbat angelutatik begiratuta ateratakoak, baina irudi horiek erraz lortu daitezke sare sozialetatik, eta, beraz, edozein haur biktima potentzial izateko arriskua handitu egiten du horrek.⁵¹

AAko plataforma batzuetan eduki sexualizatua detektatzeko eta jakinarazteko protokolo eraginkorrik ez egoteak arazo hori larriagotzen du, eta nazioartean arau-esparrua uniformearen ez izatea ere beste oztopo bat da. Espainian, delitutzat hartzen da CSAM digitala edo sintetikoa sortzea eta edukitzea, baina herrialde

50 ECPAT International. (2020). Summary paper on online child sexual exploitation. ECPAT International.

51 NetClean. (2018). NetClean Report 2018.

askok oraindik ez dute material horri buruzko legerik eman, eta, horri esker, delitugileek babesleku gisa erabiltzen dituzten jurisdikzio laxoagoetatik jardun dezakete.

Material hori izateak zaildu egiten du benetako biktimak identifikatzea; izan ere, benetako abusuen irudiak digitalki sortutako edukiarekin nahasten dituzte, eta, askotan, bereizten zailak izaten dira. Horren ondorioz, ikertzaileek denbora eta baliabideak behar izaten dituzte benetako erasorik jasan ez duten haurrak eta nerabeak identifikatzeko, eta benetako biktimen erreskateari eragiten dioten ahaleginak desbideratu egiten dira horrela. Material horren hazkunde esponontzialak erronka operatibo horiek areagotzen ditu.

“Benetako biktimak eta artifizialki sortutako edukia bereizteko zailtasun handiak sortzen dira, eta biktimen identifikazio- eta erreskate-prozesuari eragiten dio” —segurtasun-indar eta -kidegoak

- » **Live streaming:** zailtasun teknologiko nagusietako bat da ez duela egindako delituaren arrasto digitalik uzten; ez da edukia grabatzen, ezta biltegitratzen ere, eta horrek eragotzi egiten du abusuaren froga forentseak lortzea, diru-transferentziako erregistroetatik edo konexio denboretatik harago.⁵² Horrek eragotzi egiten du CSAM materiala edukitzeagatik karguak formulatzea, legez ez baitago hori babesten duen artxiborik.

Gainera, igorpenak muturretik muturrerako zifratze bidez babestutako plataformen bidez egiten dira, kriptodirutan edo nazioarteko sortetan oinarritutako ordainketa-sistema anonimoen bidez, eta horrek eragotzi egiten du edukia denbora errealean zaintzea eta agintariek berehala esku hartu ahal izatea.⁵³

Live streaming-aren legezko tratamendua

Live streamingaren arautzeak hutsuneak ditu, nazioko eta nazioarteko esparru juridiko askotan ez baitago delitu autonomo gisa tipifikatuta, eta inputazio penalak lotuta dauden delituen mende daude, hala nola CSAMen ekoizpena edo haurren prostituzioa.⁵⁴

52 Christensen, L. S., & Woods, J. (2024). “It’s Like POOF and It’s Gone”: The Live-Streaming of Child Sexual Abuse. *Sexuality & Culture*, 28(1), 1467–1481.

53 Napier, S., Teunissen, C., & Boxall, H. (2021). Live streaming of child sexual abuse: An analysis of offender chat logs. *Trends & Issues in Crime and Criminal Justice*, 639. Australian Institute of Criminology.

54 ECPAT International. (2020). Summary paper on online child sexual exploitation.

Espanian ere ez da berariaz jasotzen Zigor Kodean, baina hainbat artikuluren bidez zigortu daiteke. Adibidez, emankizuna ikusteak 188.1 artikulua pean prostituzio eta haur-esplotazio gisa tipifika daitekeen egitate bat ekar lezake, edo ikuskizun pornografikotzat har liteke, eta 189. artikulua pean jokabide hori zigortu. Gainera, grabatu egingo balitz, 189.5 artikuluan tipifikatutako CSAM materiala edukitzearen ondoriozko delitu bat izango litzateke, eta ikusten duenak, gainera, parte hartzen badu edo elkarreragiten badu, adibidez, aginduak edo jarraibideak emanez, sexu-erasoa egotzi ahal izango litzaioke. Bestalde, 188.1 eta 189.1 artikuluetan oinarrituta, emankizun horiek erraztuko lituzketen pertsonak jazarri ahal izango lirateke.

- » **Deleterrak eta materiala azkar ezabatzea:** CSAM edukia bistaratu ondoren gailuetan biltegitatu gabe berehala ezabatzeari horrela esaten zaio. Kasu askotan, portaera hori berdinen arteko truke-sareekin lotuta dago (P2P edo peer-to-peer), non erasotzaileek artxiiboak eta horretarako erabilitako plataformak deskargatzen, kontsumitzen eta ezabatzen dituzten.

“Behin bakarrik ikustea ahalbidetzen duten aplikazioak erabiltzen dituzte, Snapchat estilokoak, edota WhatsAppen ere, horrelakoak detektatzea zailtzen dutenak”

—segurtasun-indar eta -kidegoak

Horrek zailtasun tekniko eta legal ugari dakartza: frogak detektatzeko eta lortzeko, gailuek piztuta egon behar dute eta artxiiboak memoria hegakorrean eskuragarri egon behar dute. Bestela, ebidentzia desagertu egin daiteke poliziaren edozein esku-hartzeren aurretik.

Fenomeno horri aurre egiteko, ikerketa-estrategiek erantzun teknologiko arinagoak eta esku-hartze azkarrak ahalbidetuko dituzten mekanismo judizialak izan behar dituzte. Auzitegiko informatika aurreratua, ziberzaintza bidezko detekzio proaktiboa eta deskargatzeko eta ezabatzeko patroiak identifikatzeko adimen artifizialaren erabilera ere funtsezko tresnak dira.

- » **Konputazio deszentralizatua:** sare mota horretan ez dago dena kontrolatzen duen agintaritza zentralik, eta, beraz, prozesamendua eta komunikazioa elkarren artean konektatutako ordenagailu edo gailu askoren artean banatzen dira, eta modu autonomoan funtzionatzen dute, normalean peer-to-peer bidez. Eredu horiek gero eta gehiago erabiltzen dira hainbat zerbitzutan, hala nola sare sozialetan, informazioa biltegitatzean, kriptodirua trukatzeko edo ikaskuntza automatikoko sistemetan, eta ez daude zerbitzari bakar

baten mende. Plataforma horiek kontrolatzen dituen agintaritza zentralik ez dagoenez, horietako batzuk legez kanpoko edukia partekatzen den espazio bihurtu daitezke. Kasu batzuetan barne-arauak dauden arren edo Europako Erkidegoak arautzen duen arren, oso mekanismo irregularrak dira, ez dira oso sendoak, eta, oro har, pertsona boluntarioen esku egoten dira, eta eragin emozional handia jasan dezakete horrelako edukiei aurre egitean.⁵⁵

Legez kanpoko edukia modu azkarrean ezabatzea ia ezinezkoa da sare horietan: talde batek hura ezabatzen badu ere, neurriak hartzen ez diren edo azkartasun berarekin hartzen ez diren beste espazio batzuetan eskuragarri jarrai dezake edukiak.

- » **Gomendio-sistema algoritmikoak:** plataforma digitalek AAn oinarritutako gomendio-sistemak erabiltzen dituzte erabiltzaile bakoitzari erakusten zaion edukia pertsonalizatzeko, eta haur eta nerabeentzako arriskuak sor ditzakete: adibidez, frogatu da arrisku-egoerekiko esposizioa handitu dezaketela, hala nola *grooming* edo eduki sexual edo bortitzekiko esposizioa.⁵⁶ Era berean, hainbat ikerketak⁵⁷ ohartarazi dute Instagram edo TikTok plataformek pedofiloen eta biktima izan daitezkeen arteko kontaktua erraztu dezaketela, erasotzaile potentzialentzat erakargarriak diren kontuak, *hashtag*ak edo edukiak gomendatzeko mekanismoen bidez.

Fenomeno horri *grooming* algoritmiko esaten zaio. Sistema horien funtzionamenduari buruzko gardentasun faltak zaildu egiten du kanpoko audiotretza eta esplotazio-dinamikak adieraziko dituzten alborapenak identifikatzea.

- » **Errealitate hedatua:** errealitate hedatuko teknologiek (XR), errealitate birtuala (VR), errealitate areagotua (AR) eta errealitate mistoa (MR) barnean hartzen dituztenek, mundu fisikoa eta digitala uztartzen dituzte, barru-barruraino sartzen diren inguruneak sortuz. Plataforma digital tradizionaletan ez bezala (bi dimentsiokoak), non irudi, bideo edo testueterako iragazkiak eta moderazio-sistemak aplika daitezkeen, XR inguruneek elkarreragin iragankorrak ahalbidetzen dituzte, hala nola ahots-elkarrizketak edo gorputz-keinuak denbora errealean, eta horiek ez dira beti erregistratuta geratzen. Trazabilitate tekniko falta horrek zaildu egiten du segurtasun-neurriak aplikatzea, eta arazoak sortzen ditu gerta daitezkeen abusuak detektatzeko.

55 Spence, R., et al. (2023). The psychological impacts of content moderation on content moderators: A qualitative study. *Cyberpsychology: Journal of Psychosocial Research on Cyberspace*, 17(4), Article 8.

56 Ikusi: Stray et al. (2024) eta Ofcom. (2024), azterlan honen bibliografian.

57 Adibidez, lan hauetan: Horowitz, J. et al. (2023ko ekainak 7) eta Thiel, D. et al. (2023).

8.2. Detektatzeko eta ikertzeko aukera teknologikoak

- » **Material ezaguna detektatzea:** CSAM ezaguna (hau da, aldeztu aurretik detektatu eta CSAM gisa identifikatu den materiala) detektatzeko tresna teknologiko sendoenetako bat *hashing* sistema da. Teknika honen bidez, irudiak edo bideoak «aztarna digital» bakar (*hash*) bihurtzen dira, aldeztu aurretik identifikatutako CSAM edukien datu-baseekin alderatu ahal izateko, legez kanpoko edukia berriro bistaratu beharrik gabe.

Fidagarria izan arren, teknologia horrek mugak ditu oraindik: edukian egindako gutxieneko aldaketek *hasha* aldatu dezakete eta detektatzea zaildu dezakete, eta horrek negatibo faltsuak (detektatu gabeko edukia) zein positibo faltsuak (legez kanpokotzat identifikatutako edukia, baina legezkoa dena) eragin ditzake.

- » **Material ezezaguna detektatzea:** ezagutzen ez den CSAM detektatzeak (material berria edo argitaratu gabea, aurrez identifikatu edo detektatu ez delako) aurrez identifikatutako materiala detektatzea baino askoz erronka handiagoak planteatzen ditu. Kasu horietan, ez dago irudiak alderatzeko «aztarna digitalik», eta, beraz, beharrezkoa da adimen artifizialean eta ikaskuntza automatikoan (*machine learning*) oinarritutako tresna konplexuagoetara jotzea, abusuarekin lotutako eredu bisualak edo testualak identifikatu baititzakete.⁵⁸

Horrela, **sailkatzaile automatikoak** irudiak aztertzen dituzten algoritmoak dira, eta aldeztu aurretik ikasitako patroien edo ereduaren arabera taldekatzen dituzte. Eduki susmagarria identifikatu dezakete, hainbat elementuri erreparatuta: biluztasuna, larruazalaren tonua, gorputzaren proportzioak edo haur eta nerabeen presentzia. Tresna horietako batzuk oso zehatzak dira irudi bat legez kanpokotzat identifikatzen dutenean (zehaztasuna), baina horrek ez du esan nahi legez kanpoko irudi guztiak (estaldura) aurkitzea lortzen dutenik. Datu-bolumen handiak aztertzen direnean, zehaztasunaren eta estalduraren arteko desorekek zailtasun handiak sortzen dituzte.⁵⁹

Bestalde, **AA prediktiboan** egindako aurrerapenak aukera berriak ireki dituzte abusuak edukia proaktiboki detektatzeko eta biktimak identifikatzeko: polizia-erregistroetan aurkitutako irudiak automatikoki berrikustea dira erabilera erabilgarrienetako batzuk, bai eta argazkietan agertzen diren lekuak kasu irekien datu-baseekin alderatzea eta erabiltzaileen arteko konexio susmagarriak aurkitzea ere.

58 Thorn & WeProtect Global Alliance. (2024). Evolving Technologies. Horizon Scan. A review of technologies carrying notable risk and opportunity in the fight against technology-facilitated child sexual exploitation.

59 Adibidez, egunero mila milioi mezu dituen plataforma bati aplikatutako %0,1eko positibo faltsuen tasa batek egunero milioi bat alerta oker eragingo lituzke, eta ehunka pertsona beharko lirateke kasuak eskuz egiaztatzeko; CRIN praktikaren arabera, karga hori bideraezina da (2022). "Explaining the technology for detecting child sexual abuse online".

“Aaren tresnek materiala adinaren, hizkuntzaren edo eskualdearen arabera antolatzen laguntzen digute, eta biktimak identifikatzeko lagungarria da hori” —segurtasun-indar eta kidegoak

Groominga detektatzea

Groominga detektatzeko teknologien garapena are erronka handiagoa da, fenomeno horri lotutako portaerak asko aldatzen baitira testuinguruen eta kulturen arabera, eta horrek zaildu egiten du orokortzea. Erasotzaileek erabiltzen duten hizkuntza anbigua izan daiteke edo kaltegabea den itxura eman dezake, eta, horren ondorioz, litekeena da sistemek huts egitea, bai ez dituztelako kasu errealak identifikatzen, bai legezko elkarreraginak adierazten dituztelako bide okerretik. Horregatik, plataforma asko sistema hibridoen alde egiten ari dira: AAK lehen detekzio automatikoa egiten du, eta eduki susmagarriak giza langile espezializatuak berrikusten dituzte gero.

- » **Portaera-patroiak eta arrisku-seinaleak detektatzea:** sailkatzaileak eta AA prediktiboa portaeraren analisisan aplikatzea eta ezohiko patroiak identifikatzea da *online*ko sexu-esplotaziozko egoerei aurrea hartzeko etorkizun handieneko eremuetakobat. Eduki esplizituabilatu beharrean, pertsonen krola elkarreragiten duten aztertzen du, *groominga*, hertsadura edo atzitzeko ahaleginak adieraz ditzaketen seinaleak detektatzeko. Alerta-seinaleen adibide batzuk honako hauek dira: aldezturik loturarik izan gabe adingabeekin elkarreragin handia duten helduak; sexu-hizkuntzaren edo hizkuntza manipulatzailaren erabilera goiztiarra; elkarriketa espazio pribatuagoetara edo zifratuagoetara eramateko saiakerak; edo presio emozionala, isolamendua edo kontrola erakusten duten erantzunak. Berrerorleak detektatzeko ere erabiltzen da, plataformetara beste kontu edo identitate batzuekin itzultzen saiatzen direnak. Horretarako, erabiltzaile bakoitzaren “aztarna digitala” sortzen duten teknologiak erabiltzen dira, eta haien erabilera-ereduak aztertzen dira, kointzidentziak identifikatzeko. Sistema horiek gai dira mezuen testua zein beste datu batzuk aztertzeke (erantzuteko denbora, kokapena edo elkarreraginen historia), eta, horri esker, alerta goiztiarrak sor daitezke, giza moderatzaileek berrikus ditzaketenak.⁶⁰
- » **Adimen artifizial sortzailea:** funtsezko zereginak automatizatzeko eta optimizatzeko aukera ematen du, hala nola identifikatu beharreko materiala sailkatzea, analistek abusuzko edukiekiko duten esposizio zuzena murriztuz;

60 Thorn. (2024). Youth perspectives on online safety, 2023.

manipulazio digitalak detektatzea, CSAM sintetikoa edo digitala identifikatzeko baliagarria dena; edo testuinguruko informazioa ateratzea, hala nola irudietan eta bideoetan dauden elementu bisualak, objektuak edo agertokiak, biktimak eta erasotzaileak identifikatzea eta aurkitzea erraztu dezaketenak.

Hala ere, teknologia hori erabiltzeko, berariazko babesak behar dira, beste arrisku batzuk saihesteko. Horrekin lotuta, hainbat erakundek funtsezko printzipio batzuk adierazi dituzte, hala nola eredu horiek entrenatzeko CSAM edukiaren erabilera debekatzea, baita artifizialki sortutako, eraldatutako edo anonimo bihurtutako materiala denean ere; auditoria teknikoak eta etikoak aldizka egitea; trazabilitate-mekanismoak txertatzea, hala nola ur-markak edo metadatuen etiketak, eduki bat AAK noiz sortu duen identifikatzen laguntzeko; eta giza gainbegiratze eraginkorra.

- » **Diseinu segurua eta adina egiaztatzea:** funtsezkoa da adina egiaztatzeko mekanismo eraginkorrak ezartzea eta plataforma digitalak hasieratik modu seguruan diseinatzea (*safety by design*), haurren nabigazio segurua bermatzeko. Horrela, eduki kaltegarrietarako sarbidea eragozteaz gain, adina egiaztatzeak esperientzia pertsonalizatuak eta seguruak eskaintzeko balio dezake, adibidez, pertsona ezezagunekin harremanetan jartzeko funtzionalitateak mugatuz edo erabiltzailearen adinaren arabera pribatutasun-konfigurazio lehenetsiak ezarriz.

- » **Edukien moderazioa ingurune zifratuetan eta errealtate hedatukoetan:** edukiak moderatzeko gero eta ingurune konplexuagoak ugaritzera eraman du teknologia digitalen hedapenak, hala nola muturretik muturrerako zifratzea duten plataformak edo errealtate birtual eta areagotuan oinarritutako murgiltze-espazioak. Erronka horren aurrean, hainbat teknologia proposatu dira, hala nola bezeroaren aldea eskaneatzea (*client-side scanning*), edukiak zifratu eta bidali aurretik aztertzen dituenak. Hala ere, konponbide horrek eztabaida sortu du, oinarritzko eskubideak urratzeko eta zaintza masiboko praktikei atea irekitzeko arriskua dagoelako.

Hedatzen ari den beste estrategia bat portaera-seinaleetan oinarritutako moderazioa da (*content-oblivious moderation*), edukira zuzenean sartu gabe eredu susmagarriak detektatzeko aukera ematen duena, hala nola bidalketen maiztasuna edo kontaktuen aldaketak, eta hori bereziki baliagarria da sistema zifratuetan.

Era berean, errealtate hedatuko testuinguruetara egokitutako sistemak garatzen ari dira, besteak beste: abatarren arteko portaera inbaditzaileak identifikatzeko algoritmoak; hitzezko hizkuntzaren azterketa denbora errealean, hizkuntza naturala prozesatuz; edo abusuarekin lotutako keinu edo mugimendu fisikoen detekzioa. Plataforma batzuk, halaber, grabazio eta analisi forentseko funtzioak sartzen ari dira alertapean, hainbat informazio gordetzen dutenak, hala nola kokapen birtuala edo saioaren iraupena, salaketa- eta ikerketa-prozesuetan erabilgarriak baitira.⁶¹

61 Murgiltze-sistemei eta tresna horiei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi: NSPCC (2023), Davidson et al. (2024).

Pribatutasunaren eta babesaren arteko orekaren beharra

Haurren sexu-esplotazio digitalaren esparru juridikoko eztabaida konplexuenetako batek aurrez aurre jartzen ditu haurrak eta nerabeak babesteko oinarritzko eskubidea eta pribatutasunerako eskubidea, bereziki ingurune zifratuetan detekzio-teknologiak erabiltzeari dagokionez. Mezularitzako plataforma ezagunenek erabiltzen duten muturretik muturrerako zifratzea funtsezkoa da komunikazioen konfidentzialtasuna bermatzeko, baina, aldi berean, oztopo bat da esplotazio moduak detektatzeko. Arazo horren aurrean, edukien detekzioa errazteko proposatutako irtenbide tekniko batzuek eztabaida handiak eragin dituzte, uste baita atea ireki diezaieketela zaintza masiboko moduei, eta hori ez da bateragarria Zuzenbide Estatuarekin.

Dilema horren jakitun, proposatutako soluzio teknologiko asko proportzionaltasunean, minimizazioan eta giza gainbegiratzean oinarritutako printzipioak integratzen saiatu dira beren diseinutik. Hala, bada, “segurtasun-edo pribatutasun-logikaren” alde egin beharrean, ekimen aurreratuenek bi eskubide horien arteko oreka bilatzen duten eredu hibridoak planteatzen dituzte, eta onartzen dute haurren eta nerabeen babesa zein ingurune digitaleko pribatutasuna funtsezko zutabeak direla edozein demokraziatan. Europako legegintza-proposamen berrienetan ere jaso da ikuspegi hori. Proposamen horien arabera, CSAM edukia detektatzeko erabili beharreko teknologiek ahalik eta intrusio gutxien eragin behar dituzte, eta denboran mugatuta eta kontrol judizialaren mende egon behar dute. Hala ere, komunikazioen enkriptatzea eta CSAM edukia detektatzeko xedez komunikazioak desencriptatzeko aukerak oraindik ere eztabaidatzen ari dira Europar Batasunean. Datuak Babesteko Europako Gainbegiraleak eta Datuak Babesteko Europako Batzordeak kritikatu egin zuten haur eta nerabeen aurkako sexu-abusuei aurrea hartzeari eta horren aurka borrokatzeari buruzko erregelamendu bat emateko batzordeak egindako proposamena, uste baitzuten babesik gabe uzten zuela komunikazioen sekreturako eskubidea,⁶² eta, beraz, proposamen hori eztabaidatzen jarraitzen dute Europar Batasuneko Kontseiluan.⁶³

62 EDPB-EDPS Joint Opinion 4/2022 on the Proposal for a Regulation of the European Parliament and of the Council laying down rules to prevent and combat child sexual abuse adopted on 28 July 2022.

63 Ikusi Eranskina.

9. Gomendioak

9.1. Haurren eta nerabeen sexu-esplotazio digitalari buruzko ezagutza, datuak eta ikerketa sendotzea

Haurren eta nerabeen sexu-esplotazioa ingurune digitaletan haurtzaroarekiko indarkeriaren fenomeno konplexua da, elkarri lotutako indarkeria-dinamika eta modu ugari biltzen dituen, eta ez da beti erraza jokabide horietako batzuk bereiztea edo esplotazio modu gisa identifikatzea. Haur eta nerabeen sexu-esplotazio digitalaren testuinguru osoa kontuan hartzen duen azterlanik ez egoteak zaildu egiten du fenomeno horri eraginkortasunez heltzea. Hala, beharrezkoa da:

- **Haurren eta nerabeen sexu-esplotazio digitalari buruzko aldizkako eta berariazko ikerketen ekoizpena bultzatzea Espainian**, genero-ikuspegia kontuan hartuta, horien prebalentzia ezagutzeko, joera eta dinamika berriak identifikatzeko, politika publikoen eragina ebaluatzen eta prebentzioko, justiziako eta biktimei arreta emateko esku-hartzeak doitzeko. Horretarako, haurren eta nerabeen aurkako indarkeria desagerrarazteko estrategia sustatzeaz arduratzen den organoak egin behar duen urteko ebaluazio-txostena erabil daiteke, LOPIVIn 21.2 artikulua araber.
- **Haurren aurkako Indarkeriaren Erregistro Bateratua (LOPIVIn jaso) abian jartzea**, haurren eta nerabeen aurkako sexu-indarkeria digitalari buruzko datu bereiziak eta eskuragarriak jasotzeko.
- **Sexu-esplotazioari buruzko berariazko azterlanak bultzatzea, ikuspegi intersektorialetik**, haurren *online*ko sexu-esplotazioaren aurrean ahulenak diren haurren prebentzio- eta babes-estrategiak doitzeko.
- **Ingurune digitaletako erasotzaileei buruzko ikerketa sustatzea, batez ere esplotazio-profilei buruzkoa**, prebentzio-estrategiak eta detekzio-mekanismoak diseinatzen lagunduko duten ezaugarriak eta arrisku-faktoreak identifikatzeko.

“Sexu-indarkeria digitala ulertzeko bidean egiten den aurrerapena motela da, eta kontzientziazioa hobetu den arren, hutsune handiak dituen eremua da oraindik ere. Arlo fisikoan, aurrerapausoak egin dira, baina eremu digitaletan, berriz, zenbait kontzeptuk hainbat hamarkada atzera egin dutela dirudi” —sexu-indarkeria digitaletan espezializatutako legelaria

9.2. Prebentzio neurriak: hezkuntza-eremua

Teknologia digitalekiko esposizio goiztiarrak, teknologia horiek modu seguru eta arduratsuan erabiltzeko hezkuntza egokirik gabe eta gainbegiratzailerik gabe, nabarmen areagotzen du haurren eta nerabeen zaurgarritasuna. Aro digitalean jaio arren, arrakala dago trebetasun teknologikoen eta haien inplikazioen ulermenaren artean, eta kontrol-sentsazio faltsu bat eragiten du horrek. Beharrezkoa da natibo digitalen artean prestakuntza falta hori aitortzea eta erabilera digital arduratsua sustatzen duten hezkuntza-programetan inbertitzea. Hauek dira funtsezko neurri batzuk:

- **Hezkuntzako curriculumean zeharkatxertatzeateknologienerabilera seguru eta arduratsua egiteko hezkuntza digitala, hezkuntza afektibo-sexual integralarekin batera (arautua, txikitatik, eta hezkuntza-fase bakoitzera egokitua),** haur eta nerabeen sozializazioaren eta ingurune digitalaren berezitasunak kontuan hartuta, eta etapa bakoitzera egokituta funtsezko alderdiak jorratzea, hala nola baimena, pribatutasuna, *sextinga*, pornografiarako sarbidea, identitate digitalaren kudeaketa, eremu horretan egindako presioak eta ingurune digitaletan muga osasungarriak ezartzeko tresnak. Hala aurreikusita dago LOGILSen 7.2 artikuluan, LOPIVIn 45. artikuluan eta Haurren Eskubideen Batzordearen 25. ohar orokorrean.⁶⁴

Neska-mutil nerabeek berek eskatu zuten lantegietan Interneten erabilera egokia eta portaera jakin batzuen arriskuen eta ondorioen ezagutza sustatzea, bai eta prestakuntza hori gurasoei eta inguruko beste pertsona batzuei zabaltzea ere, sexu-hezkuntza digitaleko edukiak barne.

- **Funtsezkoa da hezkuntza-sektoreko profesionalak prestatzea,** sexu-esplotazioa errazten duten dinamikekin lotutako berariazko elementuak txertatuz. Prestakuntzek, halaber, indarkeria mota horien susmorik izanez gero, horien berri emateko betebeharra azpimarratu behar dute.
- **Ongizatearen koordinazioaren figura** (LOPIVI legean jasoa) **ikastetxe guztietan modu eraginkorrean abiaraztea.** Figura horren prestakuntzak ingurune digitaletako sexu-indarkeriak hartu behar ditu barnean nahitaez.

⁶⁴ Haurren Eskubideen Batzordea: 25. ohar orokorra (2021), haurrek ingurune digitalari dagokionez dituzten eskubideei buruzkoa, CRC/C/GC/25.

Prebentzioa nerabearen ikuspegitik

Haur eta nerabeekin egiten den edozein jardueran, hezkuntza-erakundearen diseinua barne, haurren parte-hartzearen ikuspegitik landu behar da, eta ulertu behar da esparru digitala erabat lotuta dagoela nerabeek sozializatzeko eta beren sexualitatea ezagutzeko eta esploratzeko duten moduarekin. Hala, bada, prebentziorako estrategiek ez dute ikuspegi moralizatzaile eta helduzentrista izan behar, eta erabilera arduratsuan, ingurune digitalaren arriskueta, pribatutasunaren babesean eta baimen informatuan hezten lagundu behar dute. Nerabeek beren sexualitatea bizitzeko eta harremanak ezartzeko duten modua kontuan hartu behar da prebentziorako, sentsibilizaziorako eta laguntzeko erantzunak prestatzeko.

9.3. Kontzientziatzeko eta sentsibilizatzeko neurriak

Fenomeno larria bada ere, berorren ezagutza eta ulermena gizartean mugatua da oraindik. Oro har, indarkeria digitalak izan ditzakeen inplikazioak gutxiesteko joera dago, eta oraindik ere biktimak diren haurrak erruduntzat jotzen dira batzuetan, arriskuan jarri izanaren erantzule direla uste denean, edo baimena eman dutela uste denean ere. Horregatik, sentsibilizatzeko eta kontzientziatzeko kanpainak eta ekintzak egin behar dira ingurune digitaletan gertatzen den haurren eta nerabeen sexu-esplotazioaren aurka borrokatzeko:

- **Haurrei eta nerabeei zuzendutako kanpainak**, ingurune digitalean egiten den esplotazioak dakartzan arriskuei buruz kontzientziatzeko eta jokabide arriskutsu jakin batzuen normalizazioari aurre egiteko, hala nola pertsona ezezagunekiko kontaktua, *sextinga* edo ingurune digitalean pribatutasuna babestearen garrantzia. Horiekin batera, **haurrei eta nerabeei ingurune digitaletan babesteko tresna zehatzak emango dizkieten materialak eta gida espezifikoak.**
- **Familiei eta zaintzaileei zuzendutako kanpainak**, haurrek zein familiek Internetera irudiak igotzean beren gain hartzen dituzten benetako arriskuei buruz kontzientziatzeko, eta hirugarren pertsonak nahi ez dituzten helburuetarako nola erabil ditzaketen jabetzeko.
- **Gizarte osoari zuzendutako kanpainak**: haurren eta nerabeen sexualizazioaren eta sexu-esplotazio digitalaren arriskuez kontzientziatzeko eta horiei heltzeko. Oro har, beharrezkoa da oraindik ere inguru digitaletan indarkeriek haur eta nerabeengan duten eraginari buruz kontzientziatzea.

9.4. Arretarako, laguntzarako eta erreparaziorako neurriak

Prebentzioak huts egiten duenean, erantzun integrala eta eraginkorra ziurtatu behar da, biktima diren haur eta nerabeen osabideari lehentasuna emanez. Honako hauek egin behar dira:

- **Biktima diren haur eta nerabeei arreta emateko zerbitzu integralak eta espezializatuak bermatzea**, besteak beste, salaketa konfidentzialeko kanalak edo laguntza psikologikoa eta juridikoa. Haurrak eta nerabeak babesteko sistema publikoetan integratuta egon behar dute baliabide horiek, lurralde osora iritsi behar dute eta haurren eskubideen ikuspegia izan behar dute.
- **Ezinbestekoa da erantzun horiek sexu-indarkeria digitalaren berezitasunak kontuan hartzea**. Horretarako, honako hauek beharrezkoak dira: arreta psikologiko, sozial, hezitzaile eta sanitarioko zerbitzuen berariazko prestakuntza; adinaren eta generoaren arabera egokitutako jarduketa-protokoloak; epe ertain eta luzera laguntzeko neurriak; eta biktimarengan oinarritutako jarduketa-esparruak garatzea, proiektu pilotuak abiaraziz eta inpaktuaren ebaluazioa eta esku-hartzeen etengabeko berrikuspena eginez.

“Haurren aurkako sexu-indarkeriaren biktimei laguntzeko baliabideek oinarri sendoa dute esku-hartzeei dagokienez, baina ez dute ziberespazioari eta horrek osasun mentalean eta haur eta nerabeen garapen neurologikoan duen eraginari buruzko ezagutzarik” —psikologiaren eta kriminologiaren arloetako profesionala

Indarkeria digitalera egokitutako erantzunak

Sexu-esplotazio digitalaren inpaktuan eta zaurgarritasunean eragiten duten askotariko faktoreak kontuan hartuta, beharrezkoa da testuinguru partikular horretan gertatzen den indarkeria kontuan hartuko duten berariazko esku-hartzeak diseinatzea eta inplementatzea. Esku-hartze horiek ez dute zertan bat etorri sexu-indarkeria tradizionalako kasuetan erabilitakoekin; izan ere, behar asko berdinak diren arren, ezinbestekoa da elementu bereizgarriak ezagutzea: kaltearen iraupena, irudiaren kontrola galtzea, eta osagai teknologikoa erasorako bitarteko gisa erabiltzea.

- **Sexu-esplotazio digitalarekin lotutako jokabideak garatzen dituzten haur eta nerabeentzako arreta- eta laguntza-eredu espezializatuak diseinatzea eta ezartzea**, honako hauek barne:

- » beste adingabe batzuk derrigortzeko edo manipulatzeko dinamikak
- » CSAM edukia sortzea
- » irudiak baimenik gabe bidaltzea

Jarduera horiek haur eta nerabeengan oinarritutako ikuspegia izan behar dute, eta heziketaren eta errestaurazioaren alderdietatik landu behar dira, eragindako kaltearen erantzukizunari berreziketako eta laguntza terapeutikoko prozesuen bidez erantzunez. Dauden programen ebidentziek erakusten dute ikuspegi indibidualizatuak familiekin eta ingurunearekin egindako lanarekin bateratu behar direla, bai eta talde-lanarekin ere, eta terapiak identifikatutako adinaren, garapenaren eta jokabide motaren arabera egokitu behar direla.

Landu beharreko elementuen artean, honako hauek nabarmentzen dira: enpatia, eragindako kaltea ulertzea, autokontrolerako eta emozioen kudeaketarako trebetasunak garatzea, portaera alternatiboetarako estrategiak, eta ingurune digitaletako arriskuen kudeaketa.

- **Nerabezaroan CSAM edukiak ikustearekin lotuta, gai hori lantzeko berariazko jarduerak diseinatu behar dira**, erasoetan aktiboki parte hartu ez badute ere; jarduera horiek Interneten dauden programek sortutako ebidentzian oinarritu behar dira, eta ikuspegi berritzaileak kontuan hartu behar dituzte, hala nola modu telematikoan egindako terapia anonimoak, doakoak eta konfidentzialak (txat interaktiboak), frogatu baita eraginkorrak direla arrisku txikiko profil horiekin lan egiteko. Funtsezkoa da baita ere lanketa konbinatua egitea, haurtzaroaren, osasun mentalaren, hezkuntza afektibo-sexualaren, banakako lanaren eta laguntza terapeutikoaren ikuspegitik.

Gainera, jokabide horiei **aurrea hartuz jokatzeko beharra** nabarmentzen da, eta ez soilik modu erreaktiboan, indarkeria edo jokabide arriskutsua detektatu denean. Horretarako, ezinbestekoa da **dinamika horien azpian dauden faktoreak identifikatu eta ulertzeko ikerketak sustatzea**, ebidentziak eta, bereziki, pornografiaren kontsumo oldarkorrenarekin duten lotura ikusteko.

CSAM kontsumitzaileentzako esku-hartze programak

Sexu-erasorik egin ez duten baina CSAM edukia kontsumitzen dutenei zuzendutako jarduera eta arreta zuzeneko programa aitzindariak daude, eta emaitza positiboak ematen ari dira. Adibidez, Europako Batzordeak finantzaturako STOP-CSAM⁶⁵ proiektu europarrak terapia anonimoa eskaintzen die CSAM edukia *online* kontsumitzen dutenei, haurren eta nerabeen aurkako sexu-indarkeriari aurrea hartzeko. 2023tik 2024ra bitartean, 2.000 pertsona baino gehiago ebaluatu ziren, eta 400 inguruk hartu zuten parte baliabide digitalen bidezko saio terapeutikoetan. Emaitzak itxaropentsuak dira: parte-hartzaileen %80k kontsumoa edo ikusitako edukiaren larritasuna murriztu zuen, eta %50ek baino gehiagok kontsumitzeari utzi zion erabat. Gehienak 18 urtetik 30 urtera bitarteko gizon gazteak ziren, goi-mailako ikasketak zituztenak. Proiektu aitzindari horretan inplikaturako taldeak adierazi du arreta terapeutiko anonimoko baliabide batera sartzeari elementu motibatzailea dela ordura arte detektatu gabe egon arren laguntza bilatzen ari diren kontsumitzaileentzat.

Estatu-mailan, Fuera de la Red (Saretik Kanpo) programa gauzatzen da.⁶⁶ Programa horren bidez, tratamendu terapeutiko espezifiko eskaintzen zaie, ordeztu zigorraren eta neurrien esparruan, ingurune digitalean CSAM materiala eduki edo hedatzeko delituengatik kondenatutako pertsonen, eta delitu hori berriro egiteko arriskua murriztea du helburu.

Kasu horien konplexutasuna dela eta, adituak bat datoz esatean haur eta nerabeentzako esku-hartzeak argi eta garbi bereizi behar direla helduentzako esku-hartzeetatik. Prebentzio-estrategiek haurrentzat izan behar dute berariaz, eta ebidentzian oinarrituta egon behar dute. Askotariko profilak eta ibilbideak daudela onartzea lagungarria izan daiteke haurrei kalte handiagoa egitea saihesteko berariazko jarduketara-estrategiak diseinatzeko.

9.5. Neurri judizialak

Sistema judizialak erronka handiak ditu oraindik sexu-indarkeria digitalak eragindako kaltea ulertzeko eta baloratzeko garaian, bereziki haurtzaroan eta nerabezaroan. Premiazkoa da:

65 www.europapress.es/comunicados/sociedad-00909/noticia-comunicado-mas-50-participantes-proyecto-stop-csam-deja-consumir-material-abuso-sexual-infantil-20250320132230.html

66 Fuera de la Red programa: [sarean adingabeen aurkako delinkuentzia sexualaren aurrean esku hartzeko programa](#). Barne Ministerioa. Idazkaritza Nagusi Teknikoa.

- **Haurren eta nerabeen aurkako sexu-indarkeria digitalaren berezitasunetara egokitutako erantzun judizial espezializatua bermatzea**, eta haurren eta nerabeen aurkako indarkerian espezializatutako atalak sortzea (Justizia Zerbitzu Publikoaren eraginkortasunaren arloko neurriei buruzko 1/2025 Lege Organikoa) lurralde osoan. Atal horiek ondo ezagutu behar dituzte haurrei eta nerabeei eragiten dieten sexu-esplotazio digitaleko kasuak, eta haur eta nerabeengan oinarritutako ikuspegitik eta prozesu bakoitzaren erdigunean interes gorena jarritz artatu behar dira.
- Epaile eta magistratuei zuzendutako prestakuntzek berariaz jaso behar dituzte haurrei eta nerabeei eragiten dieten indarkeria digitaleko moduak, bai eta horien ondorioak eta efektuak ere.
- **Barnahus eredua zabaltzea eta sendotzea**, justiziaren eredu espezializatuan integratuta, ingurune digitaleko sexu-indarkeria kasuak ere barnean hartzen dituela ziurtatuz, ingurune horretan biktima izan diren haurren eta nerabeen beharretara egokitutako jarduera koordinatua, espezializatua eta egokitua bermatzeko, biktimizazio sekundarioa murriztuz.
- Aldi berean, beharrezkoa da ikerketa-talde espezializatuak eta gizarte-zerbitzu komunitario eta espezializatuak taldeak **sendotzea, baliabidez hornituz**, prebentzioa, jakinarazpena, detekzioa, ikerketa eta jarduera hobetzeko.

Haurren eta nerabeen aurkako indarkeriaren atalak

2025eko ekainaren 3an, Ministro Kontseiluak 422/2025 Errege Dekretua onartu zuen, instantziako auzitegi berrietan haurren aurkako indarkeriaren atalak sortu dituenak. Dekretu horrek justizia espezializatua garatuko zela agintzen zuen, duela lau urte LOPIVIn ezarritako aginduaren arabera, bai eta Justizia Zerbitzu Publikoaren eraginkortasun-neurriei buruzko urtarilaren 2ko 1/2025 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera ere. Hala ere, testuak estatu osorako hiru atal espezializatu sortzea baino ez du aurreikusten, Madrilén, Bartzelonan eta Malagan, eta horietako bakoitzak plaza judizial bakarra izango du eta ez da fiskaltza espezializaturik sortuko.

Atal horien ezarpenak progresioa izan behar badu ere, hiru atal horietatik abiatzea ez da nahikoa: erabaki horrek erantzun espezializatutik kanpo uzten ditu haur eta nerabe gehienak, eta instrukzio-atalen mende jarraituko dute, haur eta nerabeengan oinarritutako ikuspegiak gabe. Egia da Errege Dekretuak aurreikusten duela atal horien lan-kargak berrikustea 2026ko abenduaren 31tik aurrera, baina epe hori luzeegia da. Beharrezkoa da, beraz, atal eta plaza judizialen kopurua handitzea hasieratik, LOPIVIn pean hartutako konpromisoak betetzeko, hala, haur eta nerabe guztiek eskuratu ahal izango duten eta benetan haien beharren arabera egokituko den justizia baten oinarriak ezartzeko.

9.6. Legegintzako neurriak

Nahiz eta legeetan aurrerapenak egin diren (Europar, Zerbitzu Digitalen Legearekin, haurren aurkako sexu-abusuari aurrea hartzeari eta haren aurka borrokatzeari buruzko Erregelamenduaren proposamenarekin eta haurren aurkako sexu-abusuei buruzko Zuzentarauaren erreformarekin; eta Estatuan, LOPIVren bidez eta, orain, adingabeak ingurune digitaletan babesteko Lege Organikoaren Proiektuaren tramitazioaren bidez), zigor-arloko esparru horiek ez diote oraindik erantzuten haurren sexu-esplotazio digitalari bere osotasunean. Beraz, beharrezkoa da legeen esparrua sendotzea. Bestalde, funtsezkoa da lege-xedapenak eta politika publikoak modu eraginkorrean gauzatzea. Horretarako, honako hau gomendatzen dugu:

Estatuko eta Europako araudi- eta politika publikoko esparrua indartzea, helburu hauekin:

- Esplizituki eta koherentziaz txertatzea haurren eta nerabeen sexu-esplotazio digitaleko modalitateak esparru estrategikoetan eta estatuko eta Europako politika publikoko esparruetan.
- Haurren eta nerabeen aurkako sexu-indarkeria digitalaren arloko lege-esparrua etengabe eguneratzen dela eta inplementatzeko baliabide egokiak dituela bermatzea, ikuspegi teknologiko neutroarekin, honako hauek ahalbidetzeko: arintasunez egokitzea delitu horiek egiteko erabiltzen diren ingurune digitalen, tresna teknologikoen eta teknika kriminalen bilakaera azkarrera; plataforma, formatu edo praktika berriak agertzearen ondoriozko lege-hutsuneak saihestea, erregulazio malgurik gabe babes juridikoaren irismenetik kanpo gera baitaitezke; eta prebentzioa lehenetsiko duen ikuspegia bultzatzea.
- Sexu-esplotazio digitalaren definizio juridiko argia eta harmonizatua jasotzea Europako tresna araugile lotesleetan, bereziki 2011/93/EB Zuzentaruaren eta haur eta nerabeen aurkako sexu-abusuei aurrea hartzeari eta horren aurka borrokatzeari buruzko Erregelamendu berriaren berrikuspenean.
- Estatu-mailan, Europako etorkizuneko araudia (Zuzentaru eta Erregelamendua) Espainiako ordenamendu juridikora zorrotz eta koherentziaz egokitzen dela zaintzea. Horren barruan, Zigor Kodearen eguneratzea eta lege-hizkuntza nazioarteko estandarren arabera egokitze beste arau garrantzitsu batzuk sartu beharko dira (adibidez, “haur-pornografia” terminoaren ordez “haurren aurkako sexu-abusuetako materiala” erabiliz). Transposizioarekin batera, arau-, gizarte- eta aurrekontu-eraginari buruzko azterlanak egin behar dira, bai eta ezarpen-mekanismo eraginkorrak ere (erakundeen arteko koordinazioa, baliabideen hornidura, prestakuntza espezializatua eta jarraipen independentea).

Haurren ahotsa ingurune digitalaren esparru arautzailearen diseinuan

Haurren parte-hartzea Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak aitortutako eskubidea da, eta esan nahi du haurrek beraiei eragiten dieten gaiei buruzko iritziak emateko aukera izan behar dutela, eta iritzi horiek kontuan hartu behar direla erabakiak hartzerakoan. Horrela, esparru arautzaileen diseinuan haien ikuspegia txertatuz soilik bermatu ahal izango da ingurune digital benetan segurua, inklusiboa, haien beharretara egokitua eta haien eskubide guztiak errespetatzen dituen.

9.7. Garapen teknologikoa eta enpresa teknologikoen erantzukizuna

Berrikuntza teknologikoari dagokionez:

- Berrikuntza teknologikoa bultzatzea, CSAM edukia detektatzeaz gain, prebentziora, detekziora, frogak lortzera eta sexu-esplotazioa egiteko era guztietako biktimak identifikatzera bideratuko dena.
- Teknologien erabilerak berme sendoak dituela ziurtatzea: giza ikuskapena, kontuak ematea eta plataformen, polizia-kidegoen eta gizarte-zerbitzuen arteko protokolo argiak. Funtsezkoa da oinarritzko eskubideak aplikatzen direla bermatzea, eta babesaren eta pribatutasunaren arteko orekari arreta berezia eskaintzea nahiz ikuspegi etikoa eta ebidentzietan oinarritua sustatzea.

Plataforma digitalek funtsezko zeregina betetzen dute haurren eta nerabeen sexu-esplotazioan, bai kontaktuen, manipulazioen eta edukien hedapenaren zati handi bat gertatzen den espazioa delako, bai indarkeria mota horri aurrea hartzeko, detektatzeko eta aurre egiteko gaitasun tekniko eta operatiboa dutelako.

Horregatik, **enpresa eta plataforma teknologikoek** konpromiso etiko irmoa hartu behar dute, eta haurrak eta nerabeak babesteko enpresa-kultura garatu behar dute, honako hauek bidez:

- **Adina egiaztatzeko mekanismo eraginkorrak** ezartzea, haurrentzat eta nerabeentzat kaltegarriak diren orrialdeak eta edukiak eskuratzea eragozteko eta plataformen funtzionaltasunak eta diseinua adinaren arabera egokitzea ahalbidetzeko. Mekanismo horiek minimizaziorako, proportzionaltasunerako eta datuak babesteko printzipioak errespetatu behar dituzte.

- **Moderazio-sistema eraginkorrak, gardenak eta auditagarriak** ezartzea, haurrak sexualizatzen dituzten edo esplotazio moduekin lotutako arriskuak ekar ditzaketen edukiak hautemateko.
- **Algoritmoen eta gomendio-sistemen gardentasuna** ziurtatzea, *grooming* algoritmikoaren fenomenoari berariaz helduz.
- **Abusuko eta sexu-esplotazioko materiala detektatzeko teknologiak** aplikatzea beren plataformetan, etikoak eta eraginkorrak direla eta pribatutasunaren eta babesaren arteko oreka ahalbidetzen dutela ziurtatuz.
- **Mekanismo eraginkorrak eta bizkorak ziurtatzea legez kanpoko edukien berri emateko eta eduki horiek ezabatzeko**, eta ikerketetan agintariekin lankidetzan aritzea.
- **AA garatzen duten enpresek** beren tresnen erabilera desegokiaren prebentzio-neurriak integratu behar dituzte.

Bestalde, **administrazio publikoek** aurrera egin behar dute ingurune digitala gehiago arautzeko eta sektore pribatuak *onlineko* sexu-esplotazioaren aurrean duen erantzukizuna areagotzeko, helburu hauekin:

- **Legezko betebeharrak espezifikak ezartzea plataforma digitalentzat eta onlineko zerbitzuen hornitzaileentzat**, honako hauek barnean hartuta: legez kontrako edukiak detektatzea eta jakinaraztea, adinaren egiaztapen eraginkorra, edukiak partekatzen edo saltzen dituzten pertsonen identitatea baliozkotzea (batez ere edukiak trukatzeko plataformetan), edukien moderazio proaktiboa eta ingurune digitalen diseinu segurua (*safety by design*), bereziki haur eta nerabeei zuzendutakoen edo eskuragarriak direnen kasuan.
- **Jokabide-kode eta estandar tekniko bateratuak** sustatzea, tamaina desberdineko plataformen gaitasunetara egokituta, guztiek haurren eta nerabeen babes digitalerako gutxieneko irizpideen arabera jardungo dutela bermatzeko. Aldi berean, gehieneko estandarren txertaketa sustatzea eta aitortzea, haurren ikuspegia balio erantsi gisa hartuta teknologia eta plataformetan.
- Sektore pribatuaren **kanpoko auditoretza eta kontuak emateko mekanismoak** sustatzea.

Hala, bada, ezinbestekoa da **plataforma teknologikoekiko erantzukidetasuna ekarriko duen legeriarantz** aurrera egitea, gainbegiratzeko, zigortzeko eta kontuak emateko mekanismo eraginkorrak bermatuz enpresentzat. Adingabeak ingurune digitaletan babesteko Lege Organikoen Proiektua izapidetzeak aukera ematen du Estatuko lege-esparrua tresna zehatzekin egokitzeko eta indartzeko, benetan inplementatzen dela ziurtatuz.

Plataforma digitalekin lankidetzan aritzea beharrezkoa da, sexu-esplotazio digitala detektatzeko, ikertzeko eta horri aurre egiteko

Haurren esplotazio digitalaren aurkako borroka ezin da eraginkorra izan estatuen eta enpresa teknologikoen arteko lankidetzaren egituraturik ez badago eta legez kanpoko edukiak mugaz gaindi detektatzeko eta jakinarazteko mekanismo partekatuak antolatzen ez badira, eSafety Commissioner-ek adierazi duenaren ildotik. Lankidetzak barnean hartu behar du tresna teknologiko aurreratuak erabiltzea delituzko edukiak detektatzeko, bai eta agintariei informazioa arin ematea, edukiak kentzea eta ikerketei laguntzea ere. Hala ere, lankidetzaren hori desorekatua da: plataforma handi batzuek neurri proaktibo garrantzitsuak ezarri dituzte material ezagunaren detekzio automatizatua eta edukien moderazio indartua egiteko edo nazioarteko erakunde espezializatuekiko lankidetzaren aurrera eramateko, baina plataforma askok hainbat aitzakia erabiltzen dituzte oraindik ere erantzukizun zehatzak beren gain hartzea saihesteko, hala nola neutraltasun teknologikoa, komunikazioen pribatutasuna edo intentzionalitate eza. Funtsezko zenbait eragilek ohartarazi dute, halaber, plataformak, kasu batzuetan, erantzule penaltzat har daitezkeela ezagutza eta onura ekonomiko zuzena frogatzen badira, eta behar besteko arduraren printzipioan oinarritutako legezko betebeharrak ere aurrera egitea eskatzen dute, eta ez soilik borondatezko neurrietan edo jokabide-kodeetan.

Arazoa ez da soilik teknikoa, egiturazkoa eta politikoa ere bada. Egungo sistemaren ahuleziaren zati bat kontu-emate eraginkorra exijitzeko gaitasuna duen agintaritzaren ikuskatzailerik ez izatearen ondorio da. Hala, ikusi da autorregulazioa ez dela nahikoa: esparru juridiko argia, zorrotza eta koherentea behar da, betebeharrak lotesleak, jarduteko protokoloak, erantzuteko epeak eta gainbegiratzeko eta zehatzeko mekanismo eraginkorrak ezarriko dituenak. Benetako erantzukidetasunak eskatzen du plataformek indarrean dagoen legedia betetzea, legedian aurreikusitako *compliance* mekanismo egokiak eta salatzeko kanalak garatuz (Zerbitzu Digitalen Legea eta 2/2023 Legea, arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzkoa), bai eta haurrak eta nerabeak babestea eta sustatzea ardatz duen antolaketa-kultura garatuz ere. Horretarako, beharrezkoa da talde espezializatuak inbertsio zehatzak egitea, segurtasun-indarrekiko lankidetzaren aktiboa izatea eta espazio digital seguruak diseinatzea hasieratik, haurren, familien eta haurren arretako profesionalen parte-hartzearekin.

“**Plataforma digitalek erantzukizun osoa dute haur eta nerabeen sexu-esplotazioari aurrea hartzeko orduan, beren espazioetan zirkulatzen duen edukia kontrolatu beharko luketelako**” —esparru akademikoko profesionala

“**Haur eta nerabeen babesa ezin da soilik plataformen borondatearen mende egon**”

—sexu-indarkeria digitaletan espezializatutako legelaria

9.8. Erakundeak indartzea eta nazioarteko lankidetzak

Azkenik, esplotazio digitala estatuen lege-, teknologia- eta administrazio-mugetatik haragodoa, eta horrek erantzun koordinatua eta eraginkorra bermatuko duten lankidetzak egiturak eskatzen ditu. Alde horretatik, beharrezkoa da:

- **Koordinazio zentralizatuko mekanismo nazional bat ezartzea**, NCMEC estatubatuarra edo *Haurren aurkako sexu-abusuari aurrea hartzeko eta horren aurka borrokatzeko Europako Zentroa*, EBren etorkizuneko Erregelamenduak aurreikusitakoa, oinarri hartuta. Zentro horrek datuen bilketa eta analisia, erakundeen arteko koordinazio operatiboa eta ebidentzian oinarritutako politika publikoen diseinua erraztu beharko lituzke.
- **Nazioarteko lankidetzak indartzea zigor-arloko justizian eta haurren eta nerabeen babesean**, alde biko eta alde anitzeko akordioen bidez, delituen trazabilitatea, informazio-truke arina eta jarduera koordinatua bermatzeko mugaz gaindiko testuinguruetan, batez ere legez kanpoko edukien zirkulazio global azkarraren aurrean. Ziberdelinkuentziari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmenak⁶⁷ elkarrekiko laguntzari eta lankidetzari buruz jasotzen dituen betebeharrak funtsezkoak dira zentzu horretan.
- **Datuak gordetzeko eta berehala erantzuteko protokoloak harmonizatzea**, eta ziurtatzea zerbitzu digitalen hornitzaileek eta agintari eskudunek irizpide bateratuak eta jarduteko epe eraginkorrak dituztela sexu-esplotazio digitalarekin lotutako edukia detektatzen edo salatzen direnean.

67 Ikusi Ziberkriminalitateari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmenaren (2001eko azaroaren 23an Budapestean egindakoa) 27. artikulutik 35.era bitartekoak; Europako Kontseiluaren tratatuen bilduma, 185. zk., 2010eko irailaren 17ko BOE, 226. zk.

10. Ondorioak

Haurren eta nerabeen sexu-esplotazio digitala oso indarkeria mota konplexua da, hainbat forma hartzen ditu, eta beste indarkeria batzuekin batera gertatzen da. Ingurune digitalean dimentsio berriak hartzen dituen arren, testuinguru horretako dinamika tradizionaletatik elikatzen den indarkeria da, hala nola botere-abusutik eta ahultasunen esplotaziotik, bai eta gizarte-faktoreetatik ere, hala nola kosifikaziotik eta desorekatik, eta esparru digitalean espazio berri bat aurkitzen du hazteko, egokitzeko eta ezkutatzeko. Sexu-esplotazioaren dinamikak identifikatzea ez da beti erraza izaten, eta, beraz, beharrezkoa da oraindik ere ahalegin bateratua egitea hainbat esparrutatik arazo larri horri aurre egiteko; eta gizarteak ere dinamika horiek ezagutzen ikasi behar du.

Ez da erraza. Haurren sexu-esplotazioaren aurkako borrokan ezer ez da erraza. Arazoa onartzea ere zaila da, eta guk uste baino askoz ere haur gehiagori eragiten die, hainbat modutan eragin ere: txosten honetan jorratu ditugun indarkeria modu asko imajinaezinak izan daitezke pertsona askorentzat. Baina onartzen zaila den errealitatea izan arren, ezin dugu beste aldera begiratu. Funtsezkoa da horretaz argi hitz egitea, eufemismorik gabe, haurrei eta nerabeei nola eragiten dien ulertzea, eta, batez ere, indarkeria horiek nola eta zergatik gerta daitezkeen jabetzea, aurrea hartu ahal izateko.

Informazioa, beraz, funtsezkoa da: zer gertatzen den jakin behar dugu, batez ere. Ikertzea, ebidentziak sortzea, datuak biltzea, profesionalak prestatzea eta familiak, hezitzaileak eta haurrak kontzientziazatzea ezinbesteko ekintzak dira, eta tresna egokiak eman behar dira horretarako. Baina, batez ere, borondate kolektiboa behar da Internet bidez hedatzen diren arriskuekin eta indarkeriekin amaitzeko, eta horien aurreko zigorgabetasunari ere erantzun behar diogu.

Izan ere, ingurune digitala ez da neutroa: erabiltzaileok ematen diogunaren emaitza da, eta, beraz, bizi garen gizartearen isla. Indarkeriak ez dira berez gertatzen esparru horretan; aitzitik, faktore tekniko hutsetatik harago, horiek errazten dituzten faktoreen eta jokabideen bidez hedatzen dira, eta gizarteak ezin du horiek normalizatzen jarraitu. Bada garaia Interneten ditugun portaerei buruz hausnartzeko, batez ere sareetan eta haur eta nerabeek eskuratu ditzaketen beste espazio batzuetan, bai eta ikusten ditugun edukiei buruz, zailtasun jarri gabe erreproduzitzen ditugun narratibei buruz, normalizatzen ditugun dinamikei buruz (hipersexualizazioa, genero-estereotipoak edo gorputzaren kosifikazioa) eta informazioa partekatzeko, beste pertsona batzuekin elkarreraginean aritzeko edo ez dagozkigun irudiak partekatzeko ematen dugun ereduari buruz ere. Sareko jokabideek, ingurune digitalean onargarria edo “normala” denari buruz ditugun usteek, sexu-esplotazio digitala onartzen edo ikusezin bihurtzen duten testuingurua eta esparruak eratzen dituzte.

Aldi berean, ulertu behar dugu ingurune digitala tresna huts bat baino gehiago dela egungo bizimoduan, eta haurrentzat eta nerabeentzat bereziki, ingurune horretan garatzen baitira, sozializatzen baitute, aurkitzen eta esploratzen baitute beren sexualitatea eta eratzen baitute beren nortasuna. Alde batera utzi behar dira beren gain hartu ditzaketen elkarreragin arriskutsuei buruzko aurreiritziak eta erru-ikuspegiak, eta, horren orde, galdetu behar da zergatik hartzen dituzten beren gain eta nola minimiza daitezkeen

arrisku horiekiko esposizioa, betiere eskubideen ikuspegitik: haurrek eta nerabeek beren eskubide guztiak modu askean, seguruan eta eraginkorrean baliatzeko aukera izan behar dute beren garapenerako espazio guztietan, baita digitalean ere.

Guztion betebeharra da hala izan dadin ziurtatzea: familiek, eskolek, plataforma digitalek eta erakunde publikoek konpromiso kolektiboa hartu behar dute beren gain haurrak eta nerabeak benetan babestuko dituen ekosistema digitala eraikitzeko, eremu horretan gertatzen zaien guztiaren ondorioak, onak zein txarrak, beste ingurune batzuetan gertatzen direnen berdinak direla jabetuta, eta ondorio horiei zeinen larriak diren kontuan hartuta egin behar zaie aurre.

Eranskina. Sexu-esplotazio digitalari aurre egiteko lege-esparrua

Esparru juridiko harmonizaturik ez izatea da ingurune digitaletan haurren eta nerabeen sexu-esplotazioaren aurka borrokatzeko oztopoetako bat; esparru juridiko horrek adierazpen horiek guztiak barnean hartu eta errealitate teknologiko berriak kontuan hartu beharko lituzke.

Estatu-mailan, ingurune digitaletan adingabeak babesteko Lege Organikoaren proiektua izapidetzea sustatu du gobernuak; proiektu horrek betebeharrak zehatzak esleitzen dizkie plataforma digitalei, edukien hornitzaileei eta konektatutako gailuen fabrikatzaileei. Alde batetik, zerbitzuaren arrisku-mailari egokitutako adina egiaztatzeko mekanismo eraginkorrak ezartzeko betebeharra; mekanismo horiek auditagarriak eta proportzionalak izan behar dute, eta oinarritzko eskubideak errespetatu behar dituzte. Neurri hori funtsezkoa da adingabeak zerbitzu desegokietara edo esplotatzeko edo atzitzeko arriskua izan dezaketen inguruneetara sartzea saihesteko. Gainera, agintaritzak eskudunekin lankidetzan sendo aritzeko betebeharra, bai arlo judizialean bai administratiboan, eta horren barruan sartzen da ebidentzia elektronikoak gordetzea eta azkar entregatzea judizialki eskatzen zaionean, Europa-mailako e-evidence sortak aurreikusten duenaren ildotik.

Testuak hainbat erreforma penal aurreikusten ditu esparru juridikoa delitu teknologiko berrietara egokitzeko:

- » Eremu birtualetara sartzeko debekua, zigor nagusi edo osagarri gisa, delitua esparru horietan egin bada.
- » Eduki sexualeko *deepfake*en berariazko tipifikazioa (ultrafalsifikazioak), CSAM sintetikoa sortzeko AAre gero eta erabilera handiagoari erantzunez.
- » Identitate falsuen erabilerak larriagotutako delituak, haurren abusuari eta sexu-esplotazioari eragiten dietenak (181.etik 189.era bitarteko artikulua).

Europa-mailan, 2022an, Zerbitzu Digitalen Erregelamendua (DSA) onartu zen, ingurune digital seguruagoa, errespetuzkoagoa eta gardenagoa bermatzea helburu duen mugarri bat. DSAk onartzen du haurrak eta nerabeak babestea EBren lehentasunezko helburu politikoa dela (71. kontuan hartuzkoa), eta horrek betebeharrak zehatzak dakarzikela plataforma digitalei, bereziki haurrek eta nerabeek erabiltzen dituztenei (46. kontuan hartuzkoa).

Baina, zalantzarik gabe, sexu-abusuaren eta esplotazio modu batzuen aurreko babesari dagokionez, Europako tresna juridikorik garrantzitsuena **haurren aurkako sexu-abusuari aurrea hartzeko eta horren aurka borrokatzeko arauak ezartzen dituen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Erregelamendua** da. Erregelamendu horren proposamena eztabaidatzen ari dira estatu kideen artean oraindik.

Europako Batzordeak, lehenik eta behin, behin-behineko erregelamendubataurkeztuzuen (2021/1232 EB Erregelamendua), 2002/58/EE Zuzentaraua (e-Privacy Zuzentaria) jasotako pribatasun-esparrua aldi baterako indargabetzea ezartzen duena, pertsonen arteko komunikazio-zerbitzuen hornitzaileek haurren aurkako sexu-abusuko lineako materiala borondatez detektatzen, jakinarazten eta ezabatzen jarraitzeko aukera izan dezaten. 2022an, Batzordeak erregelamendu-proposamen bat aurkeztu zuen betebeharrak horiek sendotzeko, EBn harmonizatutako eta nahitaezko esparru juridiko baten bidez.

Sexu-abusu digitalaren forma ezagunak eta azaleratzen ari direnak (CSAM edukia eta *grooming* barne) jorratzeko diseinatuta dago Erregelamendua, eduki horiek detektatzeko, jakinarazteko eta kentzeko betebeharrak ezarriz. EBn jarduten duten ostatu-zerbitzuen eta pertsonen arteko komunikazio-zerbitzuen hornitzaile guztiei aplikatzen zaizkie betebeharrak horiek, haien ezarpen-lekua edozein dela ere. Neurri aipagarrien artean, honako hauek jaso ditugu:

- » Haurren aurkako sexu-abusuari aurrea hartzeko eta horren aurka borrokatzeko Europako Zentroa (EUCSA)⁶⁸ sortzea. Funtsezko funtzio hauek esleitzen zaizkio zentro horri: Europa-mailako koordinazio eta ezagutza teknikoko zentro gisa duen zeregina, CSAM edukia detektatzeko adierazleen datu-baseak kudeatzea, hornitzaileek edukiak jakinarazteko eta ezabatzeko betebeharrak betetzen dituztela egiaztatzea, eta estatu kideei biktimak babesten eta laguntzen nahiz dagozkion jarduerak koordinatzen laguntzea.

“Oso garrantzitsua da, Europako NECMEC baten antzekoa, adingabeei egiten zaizkien sexu-abusuei aurrea hartzeko eta horien aurka borrokatzeko eta, gainera, enpresei laguntzeko”

—haurren eta nerabeen eskubide digitaletan aditua

68 Europar Batasuna, gaur egun, atzerriko erakundeen mende dago (NCMEC, adibidez) plataforma digital handiek sortutako CSAM edukien jakinarazpen gehienetarako, eta horrek muga handiak planteatzen ditu maila operatiboan, juridikoan eta subiranotasunaren mailan.

- » hornitzaileek beren zerbitzuak ebaluatzeko betebeharrak orokorra, zerbitzu horiek behar ez bezala erabilia CSAM edukia hedatzeko zer arrisku dagoen aztertzeko. Betebeharrak horrekin batera, arintze-neurri egokiak hartu beharko dira, hala nola adina egiaztatzeko sistemak aplikatzea.
- » estatuko agintaritzak batek, arrisku-ebaluazioetatik abiatuta, mehatxu esanguratsuren bat hautematen duenean, detekzioarako agindu bat eskatu ahal izango du, administratiboki edo judizialki. Agindu horrek edukia detektatzeko teknologia automatizatuak ezartzera behartuko du hornitzailea, CSAM edukia edo *grooming* identifikatzeko. Hornitzaileek berek erabaki ahal izango dute zer teknologia erabili, eta ahalik eta intrusio gutxien eragin behar dituzte. Agindu horiek proportzionaltasun-printzipioa errespetatu beharko dute, eta denbora (gehienez bi urte CSAM edukia kasuan eta urte bat *grooming*aren kasuan) eta materiala (eragindako zerbitzuaren zati bat) mugatu beharko dira.

Proposamen hori, ordea, eztabaida bizia sortzen ari da Europako kideen artean. Eztabaida horren muinean, pribatutasunarekin lotutako gaiak daude nagusiki, bai eta enpresek eta plataformek detektatzeko jarduerak egiteko izan behar duten borondatea edo derrigortasuna ere.

Jurisprudentzia European

Haurrak teknologien bidez egindako sexu-delituetatik babesten dituen lege-esparruaren zehaztasunik ezak arazoak sortzen ditu giza eskubideak eraginkortasunez babesteko. *Söderman v. Suedia* epaiak,⁶⁹ alabaordea komunean grabatzen zuen baina material hori gero hedatzen ez zuen gizon baten kasuari buruzkoak, agerian utzi zuen babesgabetasuna ekar dezaketen legezko hutsuneak zeudela. Horregatik, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak (GEEA) berretsi zuen beharrezkoa dela esparru juridiko eraginkorra izatea, sexu-indarkeriaren biktima diren haurrak behar bezala babestuko dituen, eta kasu larrienetarako zigor-xedapenak izatea eskatu zuen.

⁶⁹ Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, 2013ko azaroaren 12koa, *Söderman v. Suedia* auzian emana, (5786/08 demanda).

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak, bestalde, bere jurisprudentzian eskatzen du behar besteko lege-tresnak eduki behar direla biktimak babesteko behar diren ikerketak egiteko, eta behar diren legezko bermeen arabera erabili behar direla. Adibidez, *K.U. v. Finlandia* kasuan,⁷⁰ erabiltzaile batek 12 urteko haur baten iragarki faltsu bat sortu zuen Interneten, gizonekin harreman intimoak bilatzeko, eta haurraren benetako irudia eta harremanetarako datuak erabili zituen horretarako. Finlandiako auzitegi eskudunak, bere garaian, atzera bota zuen poliziaren eskaera telekomunikazioen zerbitzuaren hornitzailea arau-hauslearen nortasuna jakinaraztera behartzeko, garai hartako legedi nazionalak ez baitzien agintariei baimenik ematen telekomunikazio-operadoreei erabiltzaile baten identitatea jakinaraztea eskatzeko. Kasu horretan, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 8. artikulua urratu zela adierazi zuen.

Hala ere, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren ustez, haurrak sexu-abusuen aurrean babesteak ez du edozein esku-hartze justifikatzen: *Trabajo Rueda v. Espainia* epaian,⁷¹ CSAM materiala eduki eta Internet bidez partekatzeagatik zigortutako gizon baten bizitza pribaturako eskubidea urratu zela adierazi zen, poliziak agindu judizialik gabe ikuskatu baitzituen haren ordenagailuko artxiboak. Kasu horretan premia handia izan arren, Auzitegiak erabaki zuen baimen hori lortzeak ez zuela ikerketa eraginkorra egitea eragotziko, eta ez zuen justifikaziorik aurkitu baimen hori ez eskatzeko.

Metodologiari buruzko oharra

Metodologia kualitatibo eta dokumental batean oinarritu da txosten honetarako ikerketa. Alde batetik, nazioarteko, Europako eta estatuko arau-esparruen berrikuspenean oinarritu da azterketa, bai eta abian diren dokumentu estrategikoetan eta lege-proposamenetan ere. Bestalde, literatura espezializatuaren, txosten teknikoaren, azterlan akademikoaren eta fenomenoari buruzko ikerketa berrien azterketa dokumental sakona egin da, gaztelaniaz eta ingelesez.

70 Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, 2008ko abenduaren 2koa, *K.U. v. Finlandia* auzian emana (2872/02 demanda).

71 Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, 2017ko maiatzaren 30ekoa, *Trabajo Rueda v. Espainia* auzian emana (32600/12 demanda).

Txostenak landa-lan kualitatibotik eratorritako funtsezko ekarpenak jasotzen ditu baita ere. Landa-lan horretan, bederatzi elkarriketa egin ziren hainbat eremutako adituekin, eta foku-talde gehigarri bat ere izan zen, haurren aurkako sexu-indarkeria digitaleko kasuetan zuzeneko esperientzia duten lau profesionalen osatutakoa. Horiei guztiei esker, lanaren dimentsio arauemailea eta analitikoa osatzen duten pertzepzioak, esperientziak eta balorazio praktikoak jaso ahal izan dira:

- » Esparru juridikoko profesionalak, abokatutza, fiskaltza eta epailetza barne, zuzenbide penalean, haurren eskubideetan eta sexu-indarkerian espezializatutakoak.
- » Eskubide digitaletan eta ingurune digitalean hurrei eman beharreko babesean adituak.
- » Ziberdelinkuentzian espezializatutako segurtasun-kidego eta -indarren ordezkariak.
- » Zibersegurtasunaren arloko erakunde publikoetako teknikariak.
- » Kriminologian, ziberdelinkuentzian, psikologia juridikoan eta zuzenbidean esperientzia duten unibertsitateko irakasleak eta ikertzaileak.
- » Auzitegi-arloko eta haurren aurkako sexu-indarkerian espezializatutako arretako profesionalak.
- » Haurren sexu-esplotazioaren aurkako borrokan erreferentzia diren erakundeetako ordezkariak.

Gainera, bi eztabaida-lantegi egin ziren 15 urtetik 18 urtera bitarteko neska-mutilekin (ez ziren mistoak izan), eta haien iritzia jaso ziren genero-ikuspegitik, IKTek nerabeentzat dituzten aukerak eta arriskuak eta horiei aurre egiteko tresnak identifikatzeko, bai eta *online*ko sexu-indarkeria motei buruz dituzten iritzia aztertze eta ezagutzeko ere; arreta berezia jarri zen baimen kontzeptuan eta trukean, eta Internet haur eta nerabeentzako gune segurua izango dela bermatzeko proposamenak zehaztu ziren.

Bestalde, geuk egindako txosten batean oinarritutako zeharkako diseinuaren bidez egin da azterketa kuantitatiboa. Txosten horretan, Espainian bizi diren 18 urtetik 21 urtera bitarteko gazteen lagin bati galdetu zaio nerabezaroan ingurune digitaletan gertatzen den sexu-esplotazioari buruz dituzten ezagutzei, sinesmenei eta esperientziei buruz. 2025eko martxoaren 10etik apirilaren 26ra bitartean bildu ziren datuak, *online* formatuan. Lortutako azken laginak 1.008 parte-hartzaile ditu, 19,4 urteko batez bestekoarekin (DT = 1,03). Gehienak ikasleak ziren (% 98,4), baina % 20,7k ikasketak eta ordaindutako lana uztartzen zituen. 6. taulan zehazten dira ezaugarri soziodemografikoak.

6. taula. **Ezaugarri soziodemografikoak.**

		n	%
Generoa	Gizonak	234	23,2
	Emakumeak	773	76,7
	Beste bat	1	0,1
Adina	18	217	21,5
	19	342	33,9
	20	254	25,2
	21	195	19,3
Sexu-orientazioa	Heterosexuala	798	79,2
	Homosexuala	37	3,7
	Bisexuala	168	16,7
	Beste bat	5	0,5
Jatorrizko herrialde	Espainia	977	96,9
	Beste bat	31	3,1
Bizikidetzagunea	Jatorrizko familia	760	75,4
	Lagunak	166	16,5
	Bikotekidea	17	1,7
	Bakarrik	23	2,3
	Zentro bat	7	0,7
	Beste bat	35	3,5
Maila sozioekonomikoa	Baxua	22	2,2
	Ertaina-baxua	209	20,7
	Ertaina	546	54,2
	Ertaina-altua	227	22,5
	Altua	4	0,4
Okupazioa	Ikasten soilik	783	77,7
	Lanean soilik	11	1,1
	Lanean eta ikasten	209	20,7
	Ez lanean eta ez ikasten	5	0,5

Parte-hartzaileen lurralde-banaketari dagokionez, bizitoki duten autonomia-erkidegoaren arabera, gehienak Andaluziakoak (%26,7), Kataluniakoak (%18,2), Madrilgo Erkidegokoak (%12) eta Valentziako Erkidegokoak (%9,7) ziren. Kontzentrazio geografiko horrek koherentzia du adin horietako gazteen estatu-mailako biztanleriaren banaketarekin; izan ere, Estatistikako Institutu Nazionalaren (EIN, 2025) 10 azken datuen arabera, autonomia-erkidego horiek dute biztanleria gaztearen bolumen absolutu handiena. Estatistikei begira lagina adierazgarria ez den arren, lagin horren baliozkotasuna indartu egiten da herrialdeko joera demografiko errealak islatzen dituelako, eta horrek aztertutako kolektiboari buruzko arrazoizko inferentziak ahalbidetzen ditu antzeko testuinguruetan.

7. taula. **Banaketa autonomia-erkidegoen arabera.**

AAEE	%	n
Andaluzia	26.7	269
Aragoi	2.3	23
Asturias	2.1	21
Balearrak	1.1	11
Kanariak	1.5	15
Kantabria	2.3	23
Gaztela Mantxa	4.3	43
Gaztela eta León	5.8	58
Katalunia	18.2	183
Ceuta	0.3	3
Valentziako Erkidegoa	9.7	98
Extremadura	4.3	43
Galizia	3.3	33
Madril	12	121
Melilla	0.3	3
Nafarroa	2.2	22
Euskal Autonomia Erkidegoa	3.9	39

Bibliografia

- » Açar, K. V. (2017). **Webcam child prostitution: An exploration of current and futuristic methods of detection.** International Journal of Cyber Criminology, 11(1), 98–109.
- » Briere JN, Elliott DM. Immediate and long-term impacts of child sexual abuse. Future Child. 1994 Summer-Fall;4(2):54-69. PMID: 7804770.
- » Christensen, L. S., & Woods, J. (2024). «It's Like POOF and It's Gone»: The Live-Streaming of Child Sexual Abuse. Sexuality & Culture, 28(1), 1467–1481.
- » Europako Batzordea (2023). **Complementary impact assessment: Proposal for a Regulation laying down the rules to prevent and combat child sexual abuse.** Publications Office of the European Union. 2023ko apirilaren 27an argitaratua. ISBN 978-92-848-0446-7.

- » CRIN (2022). **Explaining the technology for detecting child sexual abuse online.**
- » Davidson, J., Farr, R., Bradbury, P., & Meggyesfalvi, B. (2024). VIRRAC toolkit report: Virtual reality risks against children. Institute for Connected Communities, University of East London.
- » Diaconía (2024). **Guía para profesionales del ámbito educativo. Trata en el mundo digital: protegiendo a los menores.** Madrid: Diaconía.
- » Dushi, D. (2019). Online child sexual exploitation and abuse: Investigating the live streaming of child sexual abuse and the responses of the criminal justice system. *European Journal of Crime, Criminal Law and Criminal Justice*, 27(3), 189–206.
- » ECPAT International & INTERPOL (2018). **Summary – Towards a global indicator on unidentified victims in child sexual exploitation material.** ECPAT International.
- » ECPAT International (2018). **Trends in Online Child Sexual Abuse Material.** ECPAT International.
- » ECPAT International (2020). **Summary paper on online child sexual exploitation.** ECPAT International.
- » ECPAT International (2025). **Terminology guidelines for the protection of children from sexual exploitation and sexual abuse.**
- » eSafety Commissioner (2023). **Generative AI – Tech trends position statement.**
- » eSafety Commissioner (n.d.). **Safety by design.**
- » Europa Press (2025eko martxoak 20). **Más del 50 % de participantes en el proyecto STOP-CSAM deja de consumir material de abuso sexual infantil.**
- » Europol (2017). **Online sexual coercion and extortion as a form of crime affecting children: Law enforcement perspective.** European Union Agency for Law Enforcement Cooperation.
- » Europol (2019). **Operation Chemosh: How encrypted chat groups exchanged emoji ‘stickers’ of child sexual abuse.** Europol Newsroom.
- » Europol (2019). **Internet Organised Crime Threat Assessment (IOCTA).** The Hague: Europol.
- » FAPMI-ECPAT España (2021). **La explotación sexual de la infancia y la adolescencia: Monográfico.**
- » Estatuko Fiskaltza Nagusia (2024). **Memoria de la Fiscalía General del Estado. Año 2023.**
- » Fry, D., Krzeczowska, A., Ren, J., Lu, M., Fang, X., Anderson, N., & Steele, B. (2025). **Prevalence estimates and nature of online child sexual exploitation and abuse: a systematic review and meta-analysis.** *The Lancet Child & Adolescent Health*. DOI: 10.1016/S2352-4642(24)00329-8
- » Gámez Guadix, M., de Santisteban, P., & Resett, S. A. (2017). **Sexting among Spanish adolescents: Prevalence and personality profiles.** *Psicothema*, 29(1), 29.34.
- » Grant, H. (2025, 5 de abril). **«I didn’t start out wanting to see kids»: Are porn algorithms feeding a generation of paedophiles – or creating one?** The Guardian.

- » Greenberg, A. (2022, April 7). [**The crypto trap: Inside the Bitcoin bust that took down the web's biggest child abuse site.**](#) Wired.
- » Kontzientziaziorako lantaldea, 4NSEEK proiektua (2021). [**Abuso sexual de menores en Internet: un análisis de 4NSEEK.**](#) Zibersegurtasunerako Estatuko Institutua (INCIBE), Biktimei Laguntzeko Portugalgo Elkartea (APAV), Guardia Zibila (EMUME Zentrala – Polizia Judizialaren Unitate Teknikoa), Espainiako Polizia Nazionalea, Maltako Polizia, EUROPOL – European Cybercrime Centre (EC3), UNICEF Espainia, Haurren Aurkako Tratu Txarren Prebentziorako Elkarleen Federazioa (FAPMI) – ECPAT Espainia eta EU Kids Online (Euskal Herriko Unibertsitatea).
- » Haur eta Nerabeen Sexu Esplotazioari buruzko Erakunde arteko Lantaldea (2016). [**Orientaciones terminológicas para la protección de niñas, niños y adolescentes contra la explotación y el abuso sexuales.**](#) ECPAT International.
- » Hailes, H. P., Yu, R., Danese, A., & Fazel, S. (2019). Long-term outcomes of childhood sexual abuse: An umbrella review. *The Lancet Psychiatry*, 6(10), 830-839. DOI: 10.1016/S2215-0366(19)30286-X
- » Horowitz, J., & Blunt, K. (2023, June 7). [**Instagram connects vast pedophile network.**](#) The Wall Street Journal.
- » Insoll, T., Ovaska, A., & Vaaranen-Valkonen, N. (2021). ReDirection Survey Report: [**CSAM users in the dark web – Protecting children through prevention.**](#) Suojellaan Lapsia ry / Protect Children.
- » Zibersegurtasunerako Estatuko Institutua (INCIBE) (s.f.). [**Sharenting: cuando los padres ponen en riesgo la imagen de sus hijos.**](#) INCIBE.
- » Internet Watch Foundation (2023). [**How AI is being abused to create child sexual abuse imagery.**](#)
- » Internet Watch Foundation (2022). [**Geographical hosting of URLs. Annual report 2022.**](#)
- » Internet Watch Foundation (2021). [**Annual Report 2020.**](#) Internet Watch Foundation.
- » INTERPOL (2020). [**Riesgos y tendencias en relación con el abuso y la explotación sexual de menores: repercusiones de la COVID-19.**](#)
- » INTERPOL (s.f.). [**Haurren Sexu Esplotazioari buruzko Nazioarteko Datu Basea.**](#)
- » Jonsson, L. S.; Fredlund, C.; Priebe, G.; Wadsby, M. y Svedin, C. G. (2019). [**Online sexual abuse of adolescents by a perpetrator met online: A cross-sectional study.**](#) *Child and Adolescent Psychiatry and Mental Health*, 13, Artículo 32.
- » Medrano, J. L. J.; López-Rosales, F.; & Gámez-Guadix, M. (2018). [**Assessing the links of sexting, cybervictimization, depression, and suicidal ideation among university students.**](#) *Archives of Suicide Research*, 22(1), 153–164.
- » Barne Ministerioa (2025). [**Investigaciones policiales por delitos de online child sexual grooming en España.**](#) NIPO 126-24-101-5.
- » Barne Ministerioa. [**Ziberkriminalitatea.**](#) Ziberkriminalitateari buruzko Atari Estatistikoa.
- » Montiel, I. (2016). [**Cibercriminalidad social juvenil: la cifra negra.**](#) IDP. *Revista de Internet, Derecho y Política*, 2016, 22. zk., doi:10.7238/idp.v0i22.2972.

- » Napier, S.; Teunissen, C. ; & Boxall, H. (2021). **Live streaming of child sexual abuse: An analysis of offender chat logs.** Trends & Issues in Crime and Criminal Justice, 639. Australian Institute of Criminology.
- » National Center for Missing & Exploited Children (NCMEC) (s.f.). **CyberTipline Data.**
- » National Institute of Standards and technology (NIST) of US department of Commerce (2024). **Artificial Intelligence Risk Management Framework: Generative Artificial Intelligence Profile.**
- » NCMEC (2024). **Generative AI CSAM is CSAM.**
- » NetClean (2018). **NetClean Report 2018.**
- » NSPCC (2023). **Child safeguarding and immersive technologies.**
- » Teknologiaren eta Gizartearen Estatuko Behatokia (ONTSI) (2022). **Beneficios y riesgos del uso de Internet y redes sociales.** ONTSI.
- » Ofcom (2024). **Protecting children from harms online. Vol. 5: What should services do to mitigate the risks.**
- » Padilla López, L. (2025). **El proxenetismo digital y la captación de menores en redes sociales: un análisis sobre la hipersexualización y el empoderamiento en plataformas online.** Revista de Victimología, (19), 213–250.
- » Pereda, N., Águila-Otero, A., Codina, M., & Cabrera, M. (2022). **Guía común de actuación para la detección, notificación y derivación de casos de explotación sexual contra la infancia en centros residenciales, con especial atención a niñas y adolescentes.** Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritza.
- » Pfeifferkorn, R. (2022). **Content-oblivious trust and safety techniques: Results from a survey of online service providers.** Journal of Online Trust and Safety.
- » Putnam, F. W. (2003). Ten-year research update review: Child sexual abuse. Journal of the American Academy of Child & Adolescent Psychiatry, 42(3), 269–278.
- » Reneses, M., Riberas-Gutiérrez, M., y Bueno-Guerra, N. (2024). **«Me halagó». Una mirada integral a los factores de riesgo del acoso online: Uniendo las voces de víctimas, agresores y expertos mediante entrevistas en profundidad.** Cyberpsychology: Journal of Psychosocial Research on Cyberspace , 18 (4), Artículo 3.
- » Riberas-Gutiérrez, M., Reneses, M., Gómez-Dorado, A., Serranos-Minguela, L., & Bueno-Guerra, N. (2023). **Online grooming: Factores de riesgo y modus operandi a partir de un análisis de sentencias españolas.** Anuario de Psicología Jurídica, Avance online.
- » Sabri, N., Teoh, A., Vaccaro, K., Chen, B., Dow, S., & ElSherief, M. (2023). **Challenges of moderating social virtual reality.** Proceedings of the 2023 CHI Conference on Human Factors in Computing Systems, April 23–28, 2023, Hamburg, Germany.
- » Salter, M., Zajdow, R., & Salter, R. (2024). **Understanding the relationship between adult pornography consumption and child sexual abuse material (CSAM) offending: A review of emerging evidence.** Child Abuse & Neglect, 150, 106472.

- » Save the Children (2019). **Indarkeria birala. Ingurune digitalean hurrek eta nerabeek sufritzen duten indarkeriaren azterketa.**
- » Save the Children (2020). **Sexu-(des)informazioa: pornografia eta nerabezaroa.**
- » Save the Children (2024). **Desinformazioa eta gorroto-diskurtsoa ingurune digitalean.**
- » Save the Children International (2005). **Position paper regarding online images of sexual abuse and other Internet-related sexual exploitation of children.**
- » Seto, M. C., Hanson, R. K. y Babchishin, K. M. (2010). **Contact sexual offending by men with online sexual offenses.** Sexual Abuse: A Journal of Research and Treatment, 23(1), 124-145.
- » Spence, R., Bifulco, A., Bradbury, P., Martellozzo, E., & DeMarco, J. (2023). **The psychological impacts of content moderation on content moderators: A qualitative study.** Cyberpsychology: Journal of Psychosocial Research on Cyberspace, 17(4), Article 8.
- » Stray et al. (2024). **Building human values into recommender systems: An interdisciplinary synthesis.**
- » Suler J. The online disinhibition effect. Cyberpsychol Behav. 2004 Jun;7(3):321-6. doi: 10.1089/1094931041291295. PMID: 15257832.
- » Tech coalition (2025). **Annual report 2024.**
- » Technology Coalition (2023). **Online grooming: Considerations for detection, response, and prevention.**
- » Thiel, D., DiResta, R., and Stamos, A. (2023). **Cross-platform dynamics of self-generated CSAM. Stanford Digital Repository.**
- » Thorn & All Tech Is Human - ATIH (2024). **Safety by Design for Generative AI: Preventing Child Sexual Abuse.** Thorn Repository.
- » Thorn & WeProtect Global Alliance (2024). **Evolving Technologies. Horizon Scan. A review of technologies carrying notable risk and opportunity in the fight against technology-facilitated child sexual exploitation.**
- » Thorn (2022). **Self-Generated Child Sexual Abuse Material: Youth Attitudes and Experiences in 2021.**
- » Thorn (2024). **Youth perspectives on online safety,** 2023.
- » Ullman, S. E. (2003). Social reactions to child sexual abuse disclosures: A critical review. Journal of Child Sexual Abuse, 12(1), 89–121.
- » UNICEF (2021). **Children and digital marketing: Rights, risks and opportunities.**
- » World Health Organization (2017). **Responding to children and adolescents who have been sexually abused: WHO clinical guidelines.**

Gure esker ona adierazi nahi diegu txosten honetarako ikerketan parte hartu duten neska-mutil guztiei, bai inkestari erantzuteko denbora eskaini dutenei, bai eztabaida-lantegietan parte hartu zuten nerabeei, beren gogoetak eta kezkek gurekin partekatzeagatik. Eskerrik asko txosten hau posible egiteagatik.

Elkarriketetan eta eztabaida-taldeetan beren ezagutzak eta jakintzak partekatu dituzten profesionalei, bai eta txostenari ekarpenak egin dizkiotenei ere: Ana Caballero, Cristina Gutiérrez, Elvira Tejada, Esther Pomares, Irene Montiel, Laura Serra, José García Serrano, Selma Fernández, Tania García Sedano, Raquel Rasposo, Iskander Segurola, Ignacio García Egea, Pilar Aranda i Lara eta Jorge Bardón.

Eta Save the Childreneko lankide guztiei, azterlan honen bertsiorik onena aurrera ateratzen lagundu dutelako: Carmela del Moral eta Catalina Perazzori, gidari-lana egiteagatik eta emandako laguntzagatik; Miguel Borque, Daniel Toda, Laura Soriano, Isabel Arrebola eta Martí Bàlusi, beren ekarpen guztiengatik; eta Irati Álvarez, hasieratik izan duen inplikazioagatik.



Save the Children



Argitaratzailea:

Save the Children Euskadi
Uztaila 2025



savethechildren.eus

Kolaboratzailea:



Asociación Europea
para la Transición Digital